



Esklabotza

Bangladeshtarrak,
enpresari kurduen
mafian kateatuta



Udalbiltza auzia

Frogarik ez dagoen
arren, 22 hautetsi
epaituko dituzte

Audio liburuak

Etxegiroan.com
webgunean
literatura entzungai

Jaialdi 2010

Diaspora bizirik,
lehen belaunaldiko
euskaldunak hiltzen
ari direnean

Oporretako lhesi

Etxe-trukea,
Mongol Rally eta
munduari bira

Brian
Currin

**Apartheid
garaia gainditu
zenekoaz**



Eskuratu *Zumetak* ARGIArentzat egindako lan-grafiko originala

 **argia**



EZAUGARRIAK

- Edizio limitatua
- Jose Luis Zumetak eskuz sinatutakoa
- Testura bereziko paper naturalean egina
- 50x40 cm
- ARGIAko harpideek izango dute lehentasuna
- 160 €

ESKAERAK

 943 37 15 45

 gunea@argia.com

 www.argia.com/denda



Azaleko irudia:
LANDER ARBELAITZ
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estibitz Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Sorluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loarte. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



kutxa



• NON ZER •

2010eko uztailaren 18a, 2.239. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Pablo Sastre:** «Idatzitako gutxi egiten diat, jorran ematen diat denbora gehiena». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Udalbiltza auzia.** Nazio eraikuntza akusatuen eserlekuan. URKO APAOLAZA / 5

Pertsonaia

- **Brian Currin:** «Euskal Herrira bakea ekartzen laguntzen badut, nazioarteari diogun zorraren zati bat kitatuko dut». LANDER ARBELAITZ / 10

Gaiak

- **Giza-salerosketa.** Esklabo Iraken. KARLOS ZURUTUZA / 15

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Ttakun (h)errenka** Laburbilduz. IXIAR ROZAS / 20
- **Azkuna=Franga?** IMANOL ALVAREZ / 21
- **Hiruko txikian** Emeki, badoa. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Aberastasunak banatu, ez zorrak.** I. ODRIOTZOLA SUSTAETA / 22
- **Txandan** Mespretxua. AMATIÑO / 22
- **Zirtak** Errezitaldia. ANGEL ERRO / 23
- **Bertso berriak** Bide katalanari jarriak. JEXUX MARI IRAZU / 24

Erdiko kaiera

- **Ihesi-Oporrak** Atzerrira, baina diferente. / 25
 - Guztiok bizi gara beste batentzat oso interesgarria izan daitekeen zerbaiten ondoan. OLATZ URRAKA / 26
 - Iker Muñoz: «Bakarrik atera nintzen, baina ez naiz inoiz bakarrik sentitu». MIKEL GARCIA / 30
 - Mongol Rallya: inoren laguntzarik ez espero. UNAI BREA / 32
- Etxegiroan.com, liburuak entzuteko ataria. UXUA LARRETXEIA / 35
- **Liburuak** SAIOA RUIZ GONZALEZ / 38
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 39
- **Ezpalak** JON TORNER / 40
- **Abarrak** GORKA BEREZIARTUA / 41
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 42
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 44
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 45
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 46

Termometroa

- **Jaialdi 2010.** 35.000 lagun dantzan, euskaldunen Far Westean. URKO APAOLAZA, MONIKA MADINABEITIA / 47. Heriotza Renon. MIEL A. ELUSTONDO / 50
- **Txirrindulariak...** eta euskara ikasleak. SAIOA LABAKA / 52
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA, XABIER LETONA / 54
- **Net Hurbil** Internet amets sortu zen eta Amazon bilakatu. PELLO ZUBIRIA / 56

Azkena

- Zezen hilketa erraldoien garaia. TXILLARDEGI / 58



“Idatzi gutxi egiten diat, jorran ematen diat denbora gehiena”

Pablo Sastre | Hitzen jostuna

Zeruaren graziaz behar ez duen idazlea;
barka, idazten duen pertsona.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Hara, progresoan sinesten ez duena!

Ederra zagok sinesteko!

Zer, zaldiz joan behar al dugu orain batetik bestera?

Zaldiz zaldunak joango dituk berriz ere.

Elkarrizketa hau aurrez aurre egin dugula esango dut, beraz.

Esan ba, nik lagunduko diat itxurak egiten.

Aizu, teknologia berriak ondo egon daitezke; funtzionatzen duten bitartean, behintzat.

Funtzionatuagatik gaizki daudenak ere badi-tuk.

Asko edukitzeak ez gaitu hobe egiten, hortaz.

Igual kontrakoa.

Esaiozu bi kotxe dituenari bat oparitzeko!

Ez al duk batekin nahikoa?

Luxuak itsututa bizi gara eta...

Ez pentsa. Begi-lausotuta gaudek, ez baita besterik.

Nor da itsuago, egungo progressoa edo gu geu?

Ez iezadak horrelako galdera inhumanorik egin.

Progreso zalea ez dena, zer da, atzerakoia?

Atzera eta aurrera gabiltzan bidea bera ez zai-guk batzuei gustatzen.

Baratzean jarduten duzu oraindik edo ari zara idazten?

Orain idatzi gutxi egiten diat, jorran ematen diat denbora gehiena.

Idazle izan baino nahiago duzu idatzi.

Askoz ere gainera.

Zertarako idatzi baina?

(Pentsakor gelditu da).

Eskribau errespetatuenen erreinuak ez zaitu sobera kezkatzen.

Urrunegi zagok.

Kritika alde eta irakurleak izanik, zertarako!

Bai, motel! Ezin kexatu gaitezkek! ■

Udalbiltza auzia

Nazio eraikuntza akusatuen eserlekuan

Datozen egunotan 22 euskal herritar epaituak izango dira Espainiako Auzitegi Nazionalan, Udalbiltza auziaren barruan.

Frogarik ez dago haien kontra, Udalbiltza ETaren menpe zegoela dioten poliziaren txostenak baizik.

Fiskalak, ordea, akusazioa mantendu du, eta ataka zailean jarri ditu udal jardueretan aritutako hautetsiak.

URKO APAOLAZA

UDALBILTZAKO HOGEITA BI auzipetuetatik ia guztiak kargu publikoak dira, herritarrek akeratutako hautetsiak. Zehazki, lau alkate, hamabost zinegotzi eta Udalbiltzan lanean zebiltzan hainbat langile epaituko ditu Auzitegi Nazionalako Zigor Aretoak. Udaletan zuten ardura bidez Udalbiltzan parte hartu zuten guztiek, eta parte-hartze horregatik prozesatu zituen Baltasar Garzon instrukzio-epaileak. Fiskaltzak eta Herri Akusazioak (Dignidad y Justicia talde ultraeskuindarra) “talde terroristako kide izatea eta kolaboratzea” leporatu diete auzipetu guztiei, eta horrez gain, zenbaiti “diru publikoa bidegabe erabiltzea” ere bai. Funtsean, akusazioek diote Udalbiltzak ETaren egitura gisa funtzionatzen zuela, horretarako froga zehatzik aurkezten ez duten arren.

Egunkaria auziko absoluzio epaia jakin zenean, Udalbiltzakoe adierazi zuten epai berbera espero dutela. Egunkariako epaiak agerian utzi zuen akusazioaren jokabidea okerra zela, indukzioa atzekoz aurrera egin zuelako. Udalbiltzaren kasuan ere halaxe egiten du: lehenik hipotesia formulatzen du –“Udalbiltza ETA da”– eta ondoren froga izaera ematen dien polizia-txostenak aurkezten ditu.



ARGAZKI PRESS / RAUL BOGAJO

2003ko apirilean Udalbiltzaren egoitzak itxi zituen Espainiako Poliziak.

Egunkariako epaia aurrekari positiboa da, baina Udalbiltza beste auzi bat da. Maribi Ugarteburu auzipetuaren ahotan kontrakoa idatz dezakete “lasai asko” –Berriari eskainitako elkarriketa–. Kezkatzekoa da, esaterako, Fiskaltzaren jarrera. 2007ko kalifikazioan

akusazioa mantendu zuen, Garzónen tesia bere eginez, nahiz eta ordurako egin zuen Egunkaria auzia artxibatzeko eskaera.

Zazpi urteren ondoren, Udalbiltzaren kontrako ahozko epaiketa uztailearen 15ean hasiko da, goizeko 10:00etan, Espainiako Auzitegi Nazionalan, Madrilan. Uztailearen 16, 22 eta 23an izango dira hurrengo saioak, eta ondoren, iraileko bigarren eta hirugarren astean jarraituko du epaiaketak, beste sei egunez. Auzipetuentzat 14 eta 22 urte arteko kartzela zigorrak eskatu ditu Dignidad y Justicia elkarteak eta 10 eta 15 urte bitartekoak fiskalak. Auzipetuen esanetan, epaiaketak iraun bitartean 200.000 euro beharko dituzte bidaia, alojamendu eta beste gastuetarako.

Epaiketari begira, gogor ari dira lanean ahalik eta babes sozial zabalena lortzeko. Laguntza taldeak sortu dituzte herrietan; Europar, Eusko Legebiltzarrean, udal batzarretan, 2.000 hautetsien artean... ari dira elkartasuna jasotzen. Eta alderdi politiko oso ezberdinetako ordezkariak ere eman diete azkenaldian babesa. Hilaren 17an manifestazio nazionala deitu dute Bilbon, *Udalbiltza aske!* lelopean.

Auziaren ibilbide gorabeheratsua

2003ko apirilaren 29ko goizaldean Espainiako Poliziak Udalbiltzako zortzi kide atxilotu zituen beren etxeetan. Horrez gain, poliziak Astigarragan, Bilbon, Gasteizen eta Iruñean Udalbiltzak zituen egoitzak miatu eta itxi zituen. Operazioa Baltasar Garzónen agin-

duz egin zen eta hurrengo egunean atxilotu guztiak espetxeratu zituen Auzitegi Nazionalako epaileak. Garzónek, ezker abertzaleko hautetsiek kudeatutako Udalbiltzari “Udalbiltza-Kursaal” deituko dio, eta bere esanetan 2001eko otsailean Donostiako Kursaalaren egindako bileraz geroztik, erakunde hori “ETA-EKINEk zuzentzen duen egitura terroristan sartuta” zegoen.

Ordurako, ezker abertzalea hurrengo udal eta foru hauteskundeetako zerrenda independenteak osatzen ziharduen —bi aste lehenago Auzitegi Gorenak Batasunaren ilegalizazioa berretsi zuen—, baina Udalbiltzaren kontrako operazioa gertatu eta hiru egunera Estatuko Abokatuak eta Fiskaltzak zerrenda horien kontra egin zuen Auzitegi Gorenean. Arrazoien artean Garzónek Udalbiltzaren kontra hasitako instrukzioa zegoen, erakunde horrek zerrenden osatze prozesua “koordinatzen” omen zuen Espainiako Gobernuaren ustez. Ángel Acebes Barne ministroak jadanik esana zuen hori, atxilotetak egin eta ordu gutxira: “Udalbiltza da azken asteetan kandidatura hauek diseinatzen baka-rik ez, baizik kontrolatzen aritu dena”.

2003ko maiatzaren 10ean manifestazio erraldoia egin zen Bilbon auzia salatzeke, Eusko Jaurlaritzako Barne sailak debekatua zegoen arren. Hortik gutxira beste hiru kide espetxeratu zituen poliziak, Loren Arkotxa Udalbiltzako lehendakaria tartean. Garzónek instrukzioarekin jarraitu zuen eta agindua

Egunkaria auzian bezala, Udalbiltzaren kasuan akusazioak indukzioa atzekoz aurrera egin du

22 auzipetuak

-**Juan Karlos Alduntzin.** Pasaiaiko alkatea eta Udalbiltzako Batzorde Eragileko kidea.
 -**Xabier Alegria.** Lezoko zinegotzi ohia, Udalbiltzako Batzorde Eragileko kide ohia, eta Udalbiltzako langilea.
 -**Miren Josu Aranburu.** Urretxuko zinegotzia eta Udalbiltzako langilea.
 -**Loren Arkotxa.** Ondarroako alkatea eta Udalbiltzako lehendakaria.
 -**Jasone Astibia.** Zubietako zinegotzia eta Udalbiltzako Batzorde Eragileko kidea.
 -**Miriam Campos.** Udalbiltzako langilea.
 -**Eider Casanova.** Barakaldoko zinegotzia eta Udalbiltzako Batzorde Eragileko kide ohia.
 -**Imanol Esnaola.** Lezoko zinegotzia eta Udalbiltzako langilea.
 -**Lander Etxeberria.** Bilboko zinegotzia eta Udalbiltzako Batzorde Eragileko kidea.
 -**Xarlo Etxezaharreta.** Hazparneko zinegotzi ohia eta Udalbiltzako Batzorde Eragileko laguntzailea.
 -**Joseba Garmendia.** Urretxuko zinegotzia eta Udalbiltzako Batzorde Eragileko kidea.

-**Oskar Goñi.** Berako zinegotzia eta Udalbiltzako Batzorde Eragileko kidea.
 -**Leire Idoiaga.** Udalbiltzako langilea.
 -**Xabier Irargorri.** Oiartzungo alkatea eta Udalbiltza Partzuergoa eta EGKFaren lehendakaria.
 -**Urko Irastorza.** Lazkaoko zinegotzia eta Udalbiltzako Batzorde Eragileko kidea.
 -**Espe Iriarte.** Iruñeko zinegotzia eta Udalbiltzako Batzorde Eragileko kidea.
 -**Txema Jurado.** Atarrabiako zinegotzia.
 -**Miren Odriozola.** Azpeitiko zinegotzia eta Udalbiltzako Batzorde Eragileko kidea.
 -**Larraitx Sanzberro.** Oiartzungo zinegotzia eta Udalbiltzako langilea.
 -**Maribi Ugarteburu.** Amorotoko alkatea eta Udalbiltzako Batzorde Eragileko kidea.
 -**Karmele Urbistondo.** Urnietako zinegotzia eta Udalbiltzako langilea.
 -**Ibon Arbulu.** Bilboko zinegotzi ohia.

*Karguak auzipetu zituzten garaioak dira. Miriam Campos eta Xabier Alegria preso daude 18/98 auziagatik



ARGAZKI PRESS /LUIS JAUREGIALTZO

eman zuten Udalbiltza elkartearen jardueraz gain, bere baitako bi entitatearen (Udalbiltza Partzuergoa eta Euskal Garapen eta Kohesio Fondoa) jardura ere eteteko eta Zuberoako garapen proiektuetarako bildutako 400.000 euro konfiskatzeko. Hurrengo hilabeteetan atxiloteta eta espetxeratze gehiago izan ziren.

Azkenik, 2004ko irailean Garzónnek 21 lagun auzipetu zituen ETako kide izatea egotzita. Geroago Ibon Arbulu ere auzipetuko du. Ordurako kide gehienak aske zeuden, baina Miriam Campos, Xabier Alegria eta Joseba Garmendiak preso segitzen zuten –2004ko abenduan geratu ziren libre–. Baltasar Garzónnek bere autoan, besteak beste, hainbat *Zutabe* aurkeztuko ditu frogara modura. Horietan ETak Udalbiltzaren inguruan dituen iritzi baikorrak hartuko ditu kontuan: “Helburu bera bilatzen dute guztiek, ordena konstituzionala irauli eta bake publikoa urratzea”, dio. Horrez gain, ETak ustez Bixente Lizarazu futbolariari bidalitako gutuna ere aipatzen du autoak. Gutunean, “nazio eraikuntzaren alde egiten duten mugimenduei” dirua emateko aukera ematen dio ETak futbolariari: “Udalbiltza, ikastolak, euskarazko komunikabideak...”. Aipamen horrekin Garzónnek ondorioztatzen du “kutxa bakarra” dagoela mugimendu horien guztien artean eta honela dio: “Berdin du ETari zuzenean ordaintzea, edo Udalbiltzari edo beste egitura batzuei ordaintzea, bistan delako honen kontrolpean daudela, eta ez direla ETaren ordezkariak besterik”. Loren Arkotxak “logika ilogiko” gisa deskribatu zuen autoan esandakoa. Aitzitik, Fiskaltzak logika eta argudio horiek erabiliko ditu Udalbiltzako hautetsiak akusatzeko, geroago ikusiko dugun bezala.

2005ean Fiskaltzak Udalbiltzaren jardueren etetea luzatzeko eskatu zion Garzónen ordezkari Fernando Grande-Marlaska epaileari. Juan Moral fiskala jatorrizko prozesamendu-autoan oinarritu zen horretarako, eta Grande-Marlaskak –euskal gatazkarekin zerikusia zuten gatazketan erabat kateaturik– Garzónnek urrututako bideari heldu zion, Udalbiltzaren suspentsioa hiru urtez luzatuz. 2007an suspentsio epea berriz amaitu zenean, fiskalak iritziz alda-

Atxilotetak salatzeko manifestazio jendetsua egin zen Bilboko kaleetan, Barne sailak debekatu egin zuen arren; 2003ko maiatzaren zen.

tu zuen ordea, etenaldia bertan behera uzteko eskatu baitzion Auzitegi Nazionalean bueltan zegoen Garzóni: “Jadanik beharrezkoa ez delako”. Garzónnek fiskalaren eta defentsen eskaera onartu zuen. Hortik gutxira jakin zen fiskalak auzipetuen kontra egindako zigor eskaera: guztira 240 urteko kartzelaldia.

Ia bi urtez, auzipetuak tentsio konstantean izan dira, epaiketa noiz egingo zain. Zaila egin zaie ezjakintasun hori. Behin baino gehiagotan piztu dute alerta, mobilizazioak egin eta babesa lortzeko. Azkenean, Auzitegi Nazionaleko Zigor Aretok apirilean jakinarazi du epaiketa noiz egingo den. Beste zehaztapen batzuk ere egin ditu, hala nola onartutako eta baztertutako lekukoak, peritua eta frogak zein diren, eta epaimahaia definitiboki nork osatuko duen: Javier Gómez Bermúdez (presiditzen), Manuela Fernández Prado, eta Javier Martínez Lázaro.

Zertan datza akusazioa?

2007ko irailaren 11n dataturiko 44 orrialdeko kalifikazioan, Auzitegi Nazionaleko fiskalak dio ETak Udalbiltzarekin bete nahi zuela “fronte instituzionalean sortu zaion hutsunea”, eta oinarri politiko eta ekonomiko modura erabili nahi zuela, etorkizuneko alderdi politiko baten “hazia” izan zedin: “Udalbiltza-Kursaal ETak zuzenean eta modu zehatzean kontrolatzen duen plataforma da”, dio.





ARGAZKI PRESS / JUANAN RUIZ



ARGAZKI PRESS / ANDONI CANELLADA

Goiko irudian, Gasteizen egindako bilkura; alderdi politiko askotako ordezkariak eman diete babesa auzipetuei. Beheko irudian, auzipetuetako batzuk Udalbiltzaren ekitaldi batean.

Pentsa liteke kategorizazio horiek egiteko frogak sendoak dituela fiskalak eskuetan. Baina kalifikazio osoan ez da frogak bat bera ere aurkeztzen, interpretazio ugari izan ditzaketan zantzuak baizik, polizia-txostenetan oinarrituak. Esaterako, kalifikazioak dio Kursaleko Biltzarren ondoren hautetsi ia guztiak EHkoak zirela eta Udalbiltza Partzuergoa osatzen zuten udaletan ere EHk gehiengoa zuela. Silogismo horrekin ondorioztatzen du Udalbiltza eta haren inguruko erakunde guztiak “ETA-EKINen menpe” zeudela.

Finantzazio arloan ere akusatzen du fiskalak. Zehazki, udaletako aurrekontuetako dirua Udalbiltza “eta ondorioz, ETA erakunde terrorista” legez kontra finantzatzeko erabiltzea leporatzen die Loren Arkotxa, Joseba Garmendia, Xabier Iragorri eta Xabier Alegriari. Kontrara, Udalbiltzako erabaki guztiak publikoak ziren, aurrekontuak eta proiektuetarako ematen zituen diru-laguntzak Gipuzkoako Aldizkari Orokorrean agertzen ziren: Euskal Meteorologia Institutua, *Pika* haurrentzako aldizkaria, Herrien Eskubideen Aldeko Nazioarteko Konferentzia, euskararen aldeko kanpaina Zuberoan, garagardo fabrika laguntzea, euskal selekzioaren eta komite olinpiko-

aren eraketa, barne turismo sarea, industria katalogoa, ondare dokumentalaren inguruko ikerketa, hezkuntza curriculumak... Horiek dira ustezko delituen frogak. Ekimen horietako askok, gainera, beste erakundeen laguntza ere jasotzen zuten. Esaterako, *Zuberoa 2010* plana Europar Batasunak, Frantziako Gobernuak eta Atlantikoko Pirinioetako Departamenduak ere finantzatzen zuten.

Azken batean, Garzónnek bere autoan erabilitako arrazoibide berak erabiltzen ditu, eta kasu askotan baieztapen harrigarriak egiten ditu fiskalak. Adibidez, denboran atzera salto egin, eta esaten du 1978ko Euskal Herriko Biltzarre Nazionala izan zela Udalbiltzaren aurrekaria, ETAk kontrolatua hura ere.

Herri akusazio gisa aurkeztzen den Dignidad y Justicia elkarteak, berriz, fiskalaren argudioak “fusilatu” ditu bere kalifikazioan, pasarte ugari hitzez hitz kopiatuz. Zigor eskaera da aldatzen den bakarra, kartzela urte gehiago eskatu baititu auzipetuentzat.

Poliziak peritu, informeak frogak

Poliziak, delitu bat dagoenean, frogak bilatu eta biltzen ditu, argiketa egiteko. Azkeneko urteetan baina, “ETAn adituak” diren poliziei peritu izaera eman diete, eta hauek egingako informeak frogak bezala eskaini dira. Horrela, poliziek hipotesia aurretik eginga dute, eta ondoren, handik eta hemendik bilatutako zantzu bidez, txostena idazten dute. Udalbiltzako auziaren kasuan nahierara harilkatu dituzte honakoak: beste sumarioetan erabilitako idazkiak, erregistroetan aurkitutako dokumentu bakan batzuk, telefono entzuketak, eta atxilotuen deklarazioak. Beti ere hipotesi poliziala justifikatzeko erabiltzen dituzte, eta ez alderantziz. Hortaz, indukzioa atzekoz aurrera egin da.

Epaimahaiak esan dezake poliziak egiten duen lana ez dela peritu batena –kontu teknikoetan laguntzea, alegia– eta epailearen ardura dela frogak interpretatzea eta ondorioak ateratzea. Horixe gertatu zen, esaterako, M-11ko epaiketan eta Egunkariakoan. Baina alderantzizkoa ere egin dezake, 18/98 makrojuizioan bezalaxe. Beraz, defentsaren abokatuak aldizkari honi azaldu diotenez, peritu-informeei emango zaien balioan dago auziko iltzearen gakoa. Akusazioak ez baitauka besterik –aurkeztu dituen lekuko eta peritu guztiak poliziak dira, mediku-forentseak izan ezik–.

Auzitegi Nazionelean aurkeztutako behin-behineko ondorioetan, akusazio guztiak banan-banan ukatzen dituzte auzipetuen defentsek –Jone Goirizelaia, Kepa Landa eta Kepa Manzisidor abokatuak–. Epaiketan fiskalaren eta Dyjren baieztapen guztiak errefusatu dituzte, eta horretarako Udalbiltzaren

Udalbiltzaren intrahistoria

Udalbiltza alderdi abertzaleetako 1.778 hautetsik sortu zuten 1999ko irailaren 18an, Bilboko Euskaldunan egin-dako bilkuran. Lehen erakunde nazional gisa aurkeztu zuten, eta bere helburuen artean lehena zen “Euskal Herria nazioa dela aldarrikatzea”. Lizarra-Garaziko bake prozesuak porrot egin zuenean barne liskarrak sortu ziren. Pixkanaka bi sektore nagusiak banatzen joan ziren, eta azkenerako praktikan bi Udalbiltza sortu ziren: EA eta EAJren hautetsiak gehiengo ziren Udalbiltza –Udalbiden bildua–, eta EHren hautetsiak gehiengo ziren Udalbiltza –AB eta independenteak han zeuden–. Batak zein besteak aldarrikatu zuen erakundearen ordezkaritza.

EHko hautetsiek gidatutako Udalbiltzak biltzar berezia antolatu zuen Donostiako Kursaalaren 2001eko otsailaren 24an, eta bertatik ateratako ekintza-egitasmoari heldu zion, erakundea indar handiz berraktibatuz eta ekimen ugari burutuz esparru desberdinetan: Euskal Nortasun Agiria edota Euskal Herriaren Eskubideen Karta, Zuberoa Garatzen...

2003an Garzónen operazioa gertatu zenean, bi Udalbiltzetako ordezkariak berriz bildu ziren, harremanak sendotzeko asmoarekin. Dena den, Udalbiltza bakarraren ideia behin baino gehiagotan plazaratu den arren, bi erakunde bereizi gisa funtzionatzen dute oraindik.

jarduera zein izan den azalduko dute, bai eta antzeko ekimenak burutu dituzten beste lekuetako adibideak hartu ere. Dena den, defentsarako aukera hankamotz geratu da, aurkeztutako 140 lekukoetatik 21 soilik onartu baitizkie Auzitegiak eta deklaratu behar zuten bi perituak eta frogak ere ukatu dizkiete. Bestaldekik, zantzu positibo gisa, badirudi akusazioari ere zenbait frogak atzera bota dizkiola, gauza ezohikoa auzi hauetan.

Fiskalaren eta tribunalaren jarrera

Iturri batzuen arabera Juan Moral fiskala auzia saihesten aritu zen, Udalbiltzako auzipetuak akusatzea erabaki zuen arte. Izan ere, begi bistakoa da auziak ez duela funtsik, eta horregatik ibili da kontua luzatzen. Hori ulertzeko operazioaren jatorrirra itzuli behar dugu. Garzón 2003ko hauteskundearen testuinguruan hasi zuen instrukzioa; ikusi dugun bezala, Udalbiltzaren kontra jo zuen hautes-plataformak baliogabetzeko aitzakia bat egon zedin, nahiz eta horretarako ez zuen inolako frogarik. Behin hauteskundeak igarota, auziak haserako zentzua galdu zuen eta “patata beroa” Auzitegi Nazionalan geratu zen ez atzera ez aurrera.

Ez dakigu fiskalak zein jarrera hartuko duen epaiketean. Azkeneko iritzia 2007an eman zuen, behin-behineko ondorioetan auzipetuak akusatu zituenean. Ordutik hona ez da mugimendu juridikorik izan auzian, baina behin akusatzeko erabakia hartuta, ez dirudi erraza denik epaiketa osteko ondorioetan iritzi aldaztea.

Eta zer dakigu epaimahaiak? Hasiera batean Angela Murillok presiditu behar zuen epaiketa –18/98ko auzian eta beste zenbait epaiketetan auzipetuekiko jarrera gogorra azaldu izan duen epailea–, baina iaz Egunkaria eta Udalbiltza kasutik apartatu zuen Auzitegi Nazionalako

**Garzón Udalbiltzaren
kontra jo zuen, hautes-
plataformak baliogabetzeko
aitzakia bat egon zedin**

Zigor Aretoko buru den González Bermúdezek. Egunkaria kasuan bezala, González Bermúdezek presidituko du azkenean Udalbiltza epaituko duen tribunala, eta bere iritzia –eta jarrerak– eragina izango du azken epaian. Manuela Fernándezek ere epaitu zuen Egunkaria auzia, eta ideia kontserbadoreak dituen arren, itxura batez ez da hain pisuzkoa izango; berdin esan liteke Javier Martínez Lázaro-rengandik.

Jurisprudentzia berririk ba ote

Udalbiltza auziko ahozko epaiketako sententziak eragin nabarmena edukiko du aurrerantzean izan daitezkeen beste epaiketetan. Egunkariako absoluzio epai gogorraren ondoren, Udalbiltzakoan antzeko zerbait gertatzeak jurisprudentzia berria irekiko luke. Baina momentu honetan jurisprudentzia beste bide batetik doa eta “terrorista desarmatuak” zigilupean, makina bat pertsona sartu dute jada kartzelan.

2005ean Auzitegi Nazionalak Jarrai, Haika eta Segiren kontrako auzian esan zuen epaituriko 23 gazteak ez zirela “ETAko parte” eta ezin zituela “terrorismo delituagatik” zigortu. Ostera, sententzia hori atzera bota zuen Auzitegi Gorenak eta gazteak kartzelan sartzeko agindua eman zuen. Gorenaren erabakiak

ETAren *entorno*a juzkatzeko jurisprudentzia ireki zuen. Ondoren etorri dira 18/98, Askatasuna eta Bataunaren kontrako epaiak.

Jarrai-Haika-Segiko sententziaren ziaboga, hain justu gertatu zen bake prozesua zalantzan zegoen unean; testuinguru politikoak horrelako auzietan izan dezakeen pisuaren adierazgarri da hori. Udalbiltzako auzipetuek badakite, bultzada politikoa duen epaiketa izaki, auzitegietatik kanpoko estrategia politikoen menpe ere badagoela azken erabakia. ■

Brian Currin

«Euskal Herrira bakea ekartzen laguntzen badut, nazioarteari diogun zorraren zati bat kitatuko dut»

Zuria izan arren, Hegoafrikan apartheidaren aurka urteak egin zituen borrokan, abokatu gisa. Behin demokrazia lortuta, etsai zaharrekin berradiskidetu da Brian Currin. Orain, urtetan bildutako esperientzia nazioarteko beste gatazka batzuk konpontzen laguntzeko erabiltzen du. Johannesburgoko bere bulegoan hartu gaitu Euskal Herrian gauetik goizera ezagun egin den abokatuak.

Testua eta argazkiak:
LANDER ARBELAITZ

Nola gogoratzen duzu zure gaztaroa apartheid garaian?

Herrialdea banatuta zegoen II. Mundu Gudan parte hartu zuten zurien eta Alemaniaren aldeko jarrera hartu zuten zurien artean. Nire familian, aitak gudan parte hartu zuen. Ni jaio baino bi urte lehenago, Alemaniaren alde egin zutenak boterera heldu ziren eta Hegoafrika afrikaner nazionalisten herrialdea izatera bultzatu zuten. Gaztetatik, sentsazioa eduki dut ez nintzela lehen mailako hiritarra nire herrialdean.

Beltzenganako jarreraz zer gogoratzen duzu?

Beltzek zurien guneetan ibili nahi bazuten, paseak behar zituzten. Poliziak kalean topatzen zituen beltzak geratzen zituen, eta pasearik ez bazuten, furgonetetan eramaten zituzten. Horrez gain, ia zuri guztiek beltzak izaten zituzten etxean lanean. Gaueko ordu txikietan, polizia etxeetan sartzen zen eta beltzek lo egiten zuten gelak miatzen zituzten, paseak eskatuz. Dena oso fisiko eta agresiboa zen. SS polizia judu bila ibiltzen zen bezala, ia.

Noiz sortu zitzaizun kontzientzia politikoa?

Abokatu ikasketak amaitzean, apartheidaren hiriburura joan nintzen lan praktikak egitera: Pretoriara. Smangaliso Mkhathshwa apaiz beltz aktibista atxilotu zuen poliziak, eta Eliza babes legal bila hurbildu zitzaigunean, aukerarik merkeena nintzenez, niri eman zidaten kasua. Nire bizitza aldatuko zuen kasua izan zen. Orduan hasi nintzen lehen aldiz Hegoafrikako politika ulertzen. Etengabe kartzelan

sartu-atera zebilen Mkhathshwa eta behin eta berriz defendatu behar izan nuen. Bere bitartez iritsi nintzen gatazkara, abokatu gisa. Gero sindikatuen batasuna defendatzen ere aritu nintzen, hamar bat urtez.

Pertsona zuria zinen, dena zure onurarako prestatua zegoen herrialde batean. Hala ere, 1987an Giza Eskubideen Aldeko Abokatuen Elkargo Nazionala sortu zenuen. Zergatik?

1987an, salbuespen egoera zegoen Hegoafrikan, eta abokatu gisa, behin eta berriz salbuespen egoerari muturrak ateratzen ibiltzea zen gure lana, biltzeko eskubidea, prentsa askatasuna, eta abar. Momentu batean konturatu nintzen arte, salbuespen egoera perfektionatzeko ari ginela horren aurka ari ginen abokatuok. Orduan sinetsi nuen giza eskubideen aldeko aktibista izateko, gauzak egiteko modua aldatu behar genuela. Lau hilabete kanpoan egin ostean, nahikoa babesekin itzuli nintzen. Herrialdean 140 pertsona inguruko lantaldea sortu genuen eta probintzia guztietan ordezkaritza genuen.

Nortasun agiria

1950. urtean jaio zen, Hegoafrikan. Abokatu ikasketak egin ostean, bere herrialdeko giza eskubideen borrokatzaile sutsua izan da. Egiaren eta Berradiskidetzearen Komisioa ezartzeko orduan, garrantzitsua izan zen bere egitekoa. Behin herrialdeko zauriak itxita, Sri Lankan, Rwandan, Ekialde Hurbilean eta Ipar Irlandan urte luzez egin zuen lan. Euskal Herriaren txanda da orain.



Ez al zinen beldur?

Garai hartan, 40 urteren bueltan gaztea eta idealista nintzen. Hasieran ez nuen arriskurik ikusten. Lanean ari ginela, ordea, konturatu nintzen hil egin nintzaketela. Gure etxea tirokatu izan dute, baita emaztea eta seme-alabak bahituko zizkidatela mehatxu egin ere. Urte gogorrak izan ziren. Segurtasun pribatua kontratatu behar izan nuen. 80ko hamarkadaren amaieratik nire lagun eta bezero asko hil zituzten. Niri ere gauza bera gertatu ahal zitzaidala nuen buruan eta gimnasia joaten nintzen astean hirutan, noizbait tiroren bat botatzen bazidaten, bizirik ateratzeko aukerak handitu nahian.

Nola gogoratzen duzu Mandela askatu zuten eguna?

Galdera egin didazun momentuan, hotzikarak hartu dit gorputz osoa. Egun zoragarria izan zen. Egun osoa telebistaren aurrean egin genuen, itxaroten, itxaroten eta itxaroten, behar zuena baino hiru ordu beranduago askatu baitzuten.

Garai haietaz duzun oroitzapen sakonen bat?

Hauteskunde demokratikoen hurrengo egunean, Hegoafrika zaharretik berrira pasa ginen egunean, emaztea, seme-alabak eta ni probintzian agintzen zuen pertsonaren etxe kanpoan bildu ginen, Pretorian. Bertan bandera zaharra zeukaten oraindik zintzilik eta nola aldatzen zuten ikusi nahi genuen. Erabat hunkitu ninduen polizia afrikaner zuriek bandera zaharra zegoen mastara hurbildu, bandera zaharra jaitsi, berria aireratu eta agur militarra nola egin zioten ikusteak. Poliziek keinu hori egin zuten unean, nire polizia zirela sentitu nuen, lehen aldiz. Ordura arte nire arerio izandakoeekin berradiskidetze pertsonala hor hasi nuen. Roelf Meyer zen horietako bat eta orain laguna dut, Euskal Herriko kontuan ere batera gabiltza.

Erraza izan al zen ANCrentzat (Afrikako Kongresu Nazionala) borroka armatua amaitzea?

Lehendik Thabo Mbeki-k egin zituen negoziazio saiakera batzuk, baina MK-n (ANCren beso armatua) ez zen pertsonarik maitatuena. 80ko hamarkadaren amaieran, ordea, ANCko "gogorrak" ziren horiek ere konturatu ziren Hegoafrikarentzat alternatiba bakarra zegoela: negoziazio baketsua. Bide horretatik jarraituz gero, herrialdea denontzat suntsituko genuela. Momentu hori oso garrantzitsua izan zen. Mandela kartzelatik atera zenean, horrenbestekoa zen jendeak zion errespetua, MK-n ados ez zegoen jendeak ere beregan jarri nahi izan zuela fedea. ANC babesten zuten milaka eta milaka zuluren aurrean, Mandelak oso hitz ezagunak esan zituen: "Har itzazue zuen lantzak, zuen armak, zuen pistolak eta bota itzazue itsasora". Jendartetik batzuek oihu egin zioten, baina erronka bota zien. Bide bakarra bakea zela argi utzi zuen.

Nola deskribatuko zenuke Nelson Mandela?

Pertsona paregabea da. Benetako liderra hitzaren zentzu guztietan, mendean behin jaiotzen den pertsona horietako bat. Agian mendea baino gehiago beharko da horrelako beste bat jaiotzeko. Herri bat gidatzeko behar diren ezaugarri guztiak ditu eta bere lidergoa instintiboki jarraitzea erabakitzen duzu.

Eta Mandela askatu zuen De Klerk?

Desadostasun handiak izan genituen. Bere segurtasun indarrek, *hirugarren indarra* bezala ezagunek, sarraski askotan hartu zuten parte. Nahiko naifa zela uste dut, posizio zailean zegoen arren, indar horien existentzia ez baitzuen aitortzen. Baina esan behar da berak jokaturako rol hori gabe, ezingo genuela egungo egoerara heldu. Horregatik errespetatzen dut.

Trantsizioan paper garrantzitsua jokatu zuen Egiaren eta Berradiskidetzearen Komisioak



ONDARRU

Uztailaren 23tik abuztuaren 1era, Alamedan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

"Herri bat gidatzeko behar diren ezaugarri guztiak ditu Mandelak eta bere lidergoa instintiboki jarraitzea erabakitzen duzu"

(TRC). Zu sorreratik partaide izan zinen. Zer iritzi duzu prozesu osoaz?

Amnistia orokorra zela eta ez zela eztabaida handiak izan ziren herrialdean. Guk, giza eskubideen aldeko abokatu talde gisa, presio handia egin genuen komisioa sor zedin. Berradiskidantzan paper garrantzitsua jokatu zuen, dudarik ez. Entzuketak publikoak ziren, telebistan botatzen zituzten eta albiste-gietan beti entzun zitekeen egun hartan nork esan zuen zer. Hegoafrikar zuriei aukera eman zien ikusteko beren gobernuak zer egin zuen eta bide batez, ulertzeko beltzek zergatik borrokatu zuten.

Torturatuak barka al dezake torturatzailerak? Familiako kide bat hil diotenak barka al dezake hiltzailerak?


Batzuek bai eta beste batzuek ez. TRCren helburua ez zen barkamena. Ekintza kriminala egin zuenak iraganarekin haustea eskatzen zuen. Ez zuen damua bera ere eskatzen, nahiz eta askok azaldu zuten guztiz damututa zeudela. Nire bezeroetako batzuek barkatu zuten eta beste batzuek ez. Nik barkatu diet nire aurka egin zutenei, baina noski, nik ez nuen prezio gorena ordaindu.

Hamasei urte dira zure herrialdean demokrazia ezarri zenutela. Pozik al zaude bilakaerarekin?

Ez guztiz. Zenbait puntutan huts egin didala sentitzen dut. Ustelkeri handia dago eta hori onartezina da. Ekintzaile asko politikan sartu ziren eta hor zenbaitek beren jarreraz abusatu dute. Zerbitzu publikoekin ere ez nago pozik: garraioa, hezkuntza, osasuna... Gure jendearen gehiengoari ez zaizkio aplikatzen legez onartzen zaizkion eskubideak. Polizia eta etxegintzarekin berdin. Lehen aipatu ustelkeriagatik, maila ematen ez duen jendeari ematen zaizkio betebeharreko zenbait lan, diru asko poltsikoratuz. Badakit egun batetik bestera ezin dela dena konpondu, baina hala ere uste dut gobernuak gauzak hobeto egin zitzaakeela.

Eta adiskidetasunari begira, zer balorazio egiten duzu?

Oso bide luzea egin dugu hamasei urtetan. Askok hobetu da, baina ez da egoera bikaina. Hegoafrikar zuri asko oso ongi bizi da eta pribilegiatuak dira. Orain zuri pobreak ere badaude, baina hegoafrikar beltzen gehiengoak ikaragarri pobrea da. Ez naiz ekonomia-



laria, baina zaila egiten zait ulertzea zergatik gobernuak ez duen garatzen enpleguak sortzen dituen ekonomia bat. Eskulangintza sektorea gehiago hazi behar da. Herrialde asiarretatik asko dugu ikasteko, negozio txikietan askoz kontzentratuago daude.

Beltz askok esan dit zuriak eurekin urrunak direla eta herrialdearekin oso kritiko.

Gobernu berriak indarrean jarritako zenbait legedik jendea sailkatzen du. Ados nago orain arte desabantailak izan dituztenei laguntza ematearekin, baina zenbait zuri diskriminatuak sentitu dira, eta hori ere ez da ona. Lege horien formulazioa eta aplikazioa gainbegiratu behar genukeela uste dut.

Pobrezian bizi den pertsonak, bestalde, ia ezer gabe bizi denak, herrialdea ez dela behar bezala garatu sentitzen du derrigor. Lana bultzatu behar da eta biztanle bakoitzari aukera eman bere abildadeak garatzeko. Behin etxea eta lana lortuta, jendea normal bizitzen hasten da, eta orduan arrazen arteko harremanak hobetzeko aukera sortzen da. Herrialde honen arrakasta, neurri handi batean, politika ekonomikoan dago. Egun baino hiru-lau aldiz gehiago hazi behar da ekonomia. Munduko Kopak lehen aldiz horretarako aukera eman digula uste dut.

AZKEN HITZA

Bakea

"Inongo biolentzia edo biolentzia mehatxurik gabe, prozesu demokratiko guztietan, bere zaleen helburu politikoak era legitimoan ordezkatzeko ahalbidetu behar duen ebazpen politikoa. Legean eta konstituzioan oinarrituz, era aske eta gardenean, inongo errepresoren beldurrik gabe".



Zer ekarpen egin dio Munduko Kopak berradiskidetzeari?

Handia. 1995. urteko Munduko Errugbi Kopa izan zen lehena molde honetako ekarpenak egiten. Baina orduan herritar beltzak izan ziren euren iritzia aldatu eta zurien kirola babestu zutenak. Ordutik zuriak oso interes gutxi erakutsi dute beltzen kirol eta interesguneekiko. Eta zoragarria izan da orain arte beltzen kirola izandako hau babesten ikustea. Beltzak horrelako keinu baten zain zeuden, eta esan didatelako dakit, asko poztu dira.

Bake prozesuek izan ditzaketen antzekotasunak buruz mintzatu nahi nuke...

Bake prozesua eraikitzeko osagai jakin batzuk behar dira nahitaez, Hegoafrikan, Ipar Irlandan, Ekialde hurbilean, Ruandan, Sri Lankan edo Euskal Herrian.

Konfiantza aipatu izan duzu nahitaezko osagai gisa. Ikusten al duzu konfiantzarik egun Euskal Herrian?

Gatazkako bi protagonista nagusiak diren ezker abertzalea eta Espainiako Gobernuaren artean, ez. Konfiantza ez da egun batetik bestera sortzen. Landu egin behar da. Euskal alderdi abertzaleen artean, ordea, konfiantza sortzen ari dela ikusten da. Euskal Herriko lider sozialista zenbaiten eta ezker abertzalearen artean ere zerbait sortzen ari dela ikusten dut.

Euskal Herrian jende askok uste du Espainiako Gobernuak ez duela gatazka hau konpondu nahi.

Konfiantza faltan dago galdera horren erantzuna. Laster hauteskundeak dira eta horrek ere eragina du. Madrigo Gobernuak itxaroten ari da ikusteko zer gertatzen den. Etorkizunean aukera ikusiko du Madrilek, eta jendeari imajinatzen zailak egiten zaizkion gauzak gertatzen direnean, Espainiako iritzi publikoa aldatzeko aukerak egongo dira. ETAk su etena baino, betirako amaiera aitortuko balu,

adibidez. Eta hori gertatzean, aukera berriak sor daitezke.

Zergatik ari zara euskal gatazka konpontzen laguntzen?

Hamabost urte egin nituen bakearen eta justiziaren alde borrokan nire herrian. Urte mingarriak, zailak eta askotan oso bakartiak izan ziren. Nazioartetik zetorkigun babesaren aurrera egiteko indarra ematen ziguna. Gogorantzat dut bere garaian pentsatzen nuela noizbait Hegoafrikako gatazka konpontzea lortzen baguenen, ez nuela nazioarteko babes hori sekula ahaztuko, eta beharra zuenari lagunduko niola. Mundua nazioarteko komunitatea da eta gure betebeharrak gure herrialdeetako behar, esperantza eta nahietatik harago doaz. Gainera, Hegoafrikan asko ikasi nuen gatazka sozio-politikoez eta hauen ebazpenaz, eta jakinduria hori besteekin banatzeko betebeharrak gisa ikusten dut. Hamahiru urte egin nituen Ipar Irlandan. Euskal herritarrek bakea eta denek parte hartuko duten demokrazia bat lortzeko etsi antzera zaudete. Nazioarteko komunitateko kide gisa, helburu hori lortzen lagun badezaket, nazioarteko komunitateari Hegoafrikan bakea eta justizia lortzen lagundu izanagatik diogun zorra-zen zati bat kitatuko dut.

Baikor izateko arrazoirik ba al dugu?

Arrazoi onak daude baikor izateko. Uste dut ezker abertzaleak heldutasunera pausoa eman duela. Badakite euren estrategia politiko berriak emaitzak eman ditzakeela. Sinesten dut bide horri eutsiko diotela eta ez dutela atzera egingo. Aurrera bultzatuko dute, ETA-ren buruzagitzak jarrera hori babestu arte. Ezker abertzalearen lidergoa aldatu dela uste dut, alde militarretik alde politikora pasa da gidaritza. Garrantzitsua da. Bestalde, ezker abertzalean badakite, aurrerapenik ezean, biolentzia gehiago gertatzen bada, eta ez badute garbi gaitzesten, beste alderdiekin lortutako babes osoa galduko dutela. Nazioarteko babesaren ere galduko lukete. Nik uste ongi doala eta bidean aurrera egingo dutela. ■

• Giza-salerosketa •

Esklabo Iraken

Lana Dubain (Arabiar Emirerri Batuetan) lortzeko promesagatik dirutza ordaindu ondoren, Irakeko Kurdistango kaleetan erratza pasatzen bukatu dute. Hori da giza-salerosketaren mafien biktima diren milaka bangladeshtarren patua.

KARLOS ZURUTUZA

Argazkiak: Borja Portuondo

LARANJA KOLOREKO DISTIRA, kale gris eta zikinean. Berehala aurkitu daiteke Abhik bere peto fosforitoz jantzita. Egunsentian hasten da Dohukeko (Irakeko Kurdistan) Kawa hiribide nagusian erratza pasatzen; sortaldetik mendebalderantz, eguzkia bizkarrean duela beti. Abhikek dio zehaztasun handiz kalkula dezakeela denbora, eskobatzten ari den tokiaren arabera. Hamiden fala-

fel jatetxe parean badago, goizeko 6ak dira; 7ak Hassanen ile-apaindegiraino iritsi bada, iparraldeko saihebiderearen sarreratik bost minutura... Agian bere itzalak lagunduko dio ordua zehazten, etengabe luzatzen eta txikitzen Kawa hiribideko zoru gainean. Edonola, Abhikek beharra bukatzerako aspaldi eraman du eguzkiak bere bikote ilun eta isila.





“Dhakan (Bangladesheko hiriburua) 3.000 dolar ordaindu nizkion lan agentzia bati Dubain hiru urteko kontratua lortzeko. Pepsin lan egingo nuela esan zidaten, hilean 500 dolarren truke; horiexek ziren baldintzak”, gogoratu du Abhikek Ostiraleko meskitaren minaretearen itzalpean. “Baina Dubaiko aireportura iritsi bezain laster, bertan lanik ez zegoela esan ziguten; Erbilera (Irakeko Kurdistango hiriburua) joan behar genuela”, azaldu du 22 urteko gazteak. Iritsi zenetik, hilean 150 dolarrengatik aritu da lanean.

12:30ak jo orduko bazar hegoaldeko kalea laranjaz jantzitako gizonez josita ageri da. Erbil nahiz Suleimaniarako taxiak bertatik abiatzen dira baina Artosh Companyko langileak bazkaltzera doaz, Dohuk kanpoaldeko euren kanpamentura.

Irakeko iparraldean gaude, Turkiako mugatik ordubete eskasera, baina kanpamentuan bengaliarra da menua beti, ehuneko ehun: kurriz egositako bildotsa edo oilaskoa,

Mainak oraindik ez da ausartu etxekoei esaten Dubain bulego-administraria ez, baizik Iraken kale garbitzailea dela. Emaztearen familiak mailegatu zizkion hasierako 3.000 dolarrak, “euren aurrezki guztiak”

egunaren arabera, beti arroz mordoaz lagunduta. “Janaria oso ona da hemen”, dio Charbakerek, oilasko pusketa txikiak atzamarrez jaten dituen bitartean. “Lana ez da espero nuena, baina, gutxienez, hemen ez dut goserik pasatzen”, diosku 24 urteko gazte honek. Bogran-en (Bangladesh iparraldean), bere jatorriko herrian, egunean hiru otordu egitea pribilegiatu urrien luxua baino ez omen da.

Bere ondoan eserita, 38 urteko Kashi ez da hain baikorra. “Nire gurasoek beren etxea saldu behar izan zuten 3.000 dolar haiek agentziari ordaindu ahal izateko. Hilean 500 dolarren truke epe laburrean berreskuratuko genukeen etxea, baina orain ezinezkoa da”, kexu da. Zailtasunak zailtasun, 100 dolar bidaltzen ditu etxera hilero. “Gainontzeko 50ak telefonoan gastatzen ditut, nire emaztearekin eta bi seme-alabekin hitz egiteko”, gaineratu du, te zurruten artean.

Mainak-ek ere emaztearekin hitz egin berri du, telefonoz. Jada hilabete darama Kurdistana-



XXII. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria



2010

Sari nagusia: Baleike aldizkaria

Kazetari berria saria: Beñat Sarasola

Epaimahaiaren sari berezia: Imanol Murua

Ohorezko aipamena: Argia astekaria, 90 urteko ibilbidea



ANDOAINGO UDALA
Euskararen Normalizaziorako
Lansaila



EUSKO JAURLARITZA
Kultura Saila



Ezker-eskuin eta goitik behera: Abhik, Chabak, Kashi, Mainak, Rahul eta Bardhan, Dubain lan on bat lortzeko ametsa zuten bangladeshtarrak; eta Farish Artosh, ziria sartu dien enpresaria.

nen, baina oraindik ez da ausartu etxekoei egia esaten: Dubain bulego-administraria ez, baizik Iraken kale garbitzailea dela. “Nola kontatu nire emazteari? Ezkonberriak gara, planak genituen. Hiru urte elkarrengandik urrun eman behar genituen, baina etxera bueltan bizimodu duinaz gozatu ahal izango genuen irabazitako diruarekin”, damu da Mainak. Emaztearen familiak mailegatu zizkion hona etortzeko 3.000 dolarrak, “euren aurrezki guztiak”.

Bazkaldu ostean, gizon laranjak kamioietara igo dira lanera itzultzeko. Rahul bazarreko garbitzaileetako bat da. Laneko arropa gabe ere, erraz bereiz genezake merkatal gunea inbaditzen duen giza-uholdearen erdian. Bere azal ilunak eta azpikontinenteko aurpegierak urrutitik etorri dela diote. Edonola, Dohuken eman dituen bi urteotan apenas izan du harremanik bertako kurduekin. Ez da harritzekoa, Rahul ez baita inoiz urrundu eskobatu behar dituen Dohukeko kaleetatik. “Gure pasaporteak enpresak dauzka gordeta, gure hiru urteko kontratua amaitu arte. Gauzak horrela, ezin dugu Dohuketik alde egin; ezin *checkpoint*a zeharkatu dokumentaziorik gabe!”, kexu da Rahul, ixten ari diren burdinazko pertsianen garrasi artean.

“Pasaporteak edukita ere ezingo genuke hiri honetatik atera”, gaineratu du Bardhanek, Rahulen lankidea bazarrean. Gazteak dioenez, lanerako bisa ez, turismorako bat dute pasaportean zigilatuta. Poliziaren eskuetan eroriz gero, atxilotuak izango lirateke “legez kanpoko etorkinak” direla leporatuta.

Nagusiak dio

Jantoki ondoko eraikinean du Faris Artoshek bere bulegoa. Mahai atzean eserita erantzun



ditu gure galderak, alboan bandera kurdia duela, Artoshek “abertzale kurdutzat” baitu bere burua. “Hau dena Kurdistanen alde egin dut. 2007an jarri nuen martxan enpresa hau, mingarria gertatzen baitzitzaidan gure kaleetako zaborra. Gaur denek zoriontzen naute!”, dio Artoshek larruzko aulki etzangarrian eroso. Mahai gaineko hautsontzian Zeri Oil-en logotipoa ageri da. Antza, izen bereko

Asiako langileak Iraken

Nazioarteko hainbat erakunderen arabera, Hego Asiako milaka langile daude egun Iraken, esku-lan merke gisa kontratatuta. Irakeko Lan Ministerioak dio Bagdadek ez duela kanpoko langileen kontratazioa onartzen herrialdeko langabezi tasa oso handia delako. Iturri bereko informazioen arabera, Irakeko Kurdistanen lizentziarik gabeko hiru enpresek bideratzen dute kanpotarren kontratazioa.

Bangladesheko langileak turista bisa batekin iristen dira Hego Kurdistanera. Hala, ezin dute, besteak beste, herrialdean libre ibili, apartamentu bat errentan

hartu edota euren lan-eskubideak defendatu. Hori gutxi ez eta oinarritzko komunikazioa ere arazo bilakatzeko da, etorkinek apenas baitakite kurduez edota arabieraz.

Langile bikain eta ondraduen ospea dute bangladeshtarrek eta oso gutxi eskatzen ei diete euren kontratatzaileei. Astean sei egunez eta egunean 16 orduz lan egin arren, 200 dolar baino gutxiagoko soldata jasotzen dute. Bangladeshtar gehienak kale garbitzaile lanpostuetan aritzen dira, bai eta hoteletako zerbitzari edota etxeko laguntzaile.

gasolindegia-sarea da Artoshen beste enpresa arrakastatsuetako bat. “Gure energia-aberastasunaren kudeaketa egokia batetik, eta turismoaren sustapena bestetik dira nire lehentasunak”, dio enpresariak. Izan ere, Faris Artosh luxuzko hotelen sare baten jabe ere bada.

Garbitzaileen lan-baldintzen gaineko edozein irregulartasun Bangladesheko egiturari leporatu dio Artoshen. “Gardentasuna nagusi da gurean, Kurdistanen”, dio, kontratu baten fotokopia ateratzen duen bitartean guri emateko gero. “Nire langileei doako mantenua eskaintzen diet. Hori gutxi ez eta, sei hilero, inspektore bat etortzen da Bangladeshetik nire langileen baldintzak ikuskatzera. Etxean baino hobeto daudela baieztatzen du beti”, gaineratu du Artoshen, logela bakoitzean haize egokitua instalatu berri duela azpimarratuz.

Hala ere, langileen pasaporteak giltzapean dituela aitortu du. “Hala ez

balitz, Turkiara eta gero Europara saiatuko lirateke asko ihes egiten”. Ziurtatu digu lanerako bisa batekin iritsi direla denak. Ordea, ezin baiezatu, nagusia ez baitago prest agiri bakar bat ere ateratzeko segurtasun kutxatik.

Unibertso txikiak

Gauero, hamaika gomazko bota lerrokatzen dira logelen arteko pasilloan. Lasaitzeko garaia iritsi da Artosh Companyko 150 langileentzat. Sei lagun dira gela bakoitzean, hiru ohatzetan sakabanatuta. Erdian gelditzen den koadro txikia elkarbanatu beharreko espazioa da; funtsean, cricket partida bat ikusteko esertzeko tokia. Bangladesh 1971n independizatu zen Pakistandik eta beraz, bi herrialdeek elkarren kontra jokatzeko duten bakoitzean berebiziko algara sortzen da barra-

koietan. Baina gutxitan gertatzen den gertakizuna da. Gehienetan, langile bakoitza bere ohatzean egoten da. Mairidire edo eskuoihal batek estalita askotan, unibertso txikiak bezain bitxiak dira ohatzeen arteko eremuak: familia erretratuak, denak kolore biziz jantzita, landaredi oparoak inguratuta; *Haji* Mekarainoko peleginazioa egin duen senide edo lagun baten argazkia; egurrezko etxe ederra Chittagong mendietan; paretan idatzitako esaldi xume bat: “Zintzotasuna politikarik onena da”.

56 urterekin, Naresh da langile zaharrena. Ohe txukun baten ertzean eserita, gaur beste hiru urtetarako sinatu berri duela aitortu du. “Argi dago hau ez dela hitz eman zidaten ogibidea. Baina hobe hemen, Dhakako kaleetan burdin zuria biltzen baino, eguneko dolar bat irabaziz”, dio ohera joan aurretik. ■

“Gure pasaporteak enpresak dauzka gordeta, hiru urteko kontratua amaitu arte. Ezin dugu Dohuketik alde egin; ezin checkpointa zeharkatu dokumentaziorik gabe”

RAHUL, GARBITZAILEA



GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Laburbilduz

Jarraian datorrena irakurtzeko irudikatu irratia-ahots bat, edozein, gustukoena duzue edo gehien gorrotatzeko duzue. Eroso eseri, adostasunaren nahiz ezadostasunaren bidean sartu ahal izateko. Hona eguneko aktualitatea laburbiltzen duten titularrak lau egunkaritan.

DANI BLANCO



Iñaki Rozas



Urkiza



Padroin

Berriak: “Ondarroako operazioko atxiloaldiaren bideorik ez dagoela aitortu du Aresek”, orrialde bat. “AHTren aurka, meategi barruan. Leherketak egin dituzte ekintzaileak meategian egonagatik”, bi orrialde. “Gaur hasiko da Euskal Herria Zuzenean jaialdia, Heletan”. “Heldu zerbitzua ixteak etorkinak babesik gabe utziko dituela ohartarazi dute”. “Anzaren familiak fiskala ikertzeko eskatu dio Alliot-Mari-ri”. “Udazkenean lan gatazkak areagotuko direla diote ELAk eta LABk”. “Vital Kutxa-ko presidente kargua uztea erabaki du Gregorio Rojok” eta “Zallobentako harrobiko lanak berehala uzteko agindu du Jaurlaritzak”. Kirola atalak, lau orrialde.

Garak: “La familia de Anza reclama explicaciones por falta de investigación”, bi orrialde eta editoriala. “Bajo el suelo del TAV”, orrialde bat. “Langileek lan erreformari emandako ezezkoa negoziazio kolektibora eramango du gehiengo sindikalak”, bosgarren orrialdea. “Canícula jazzística”, kultura atalean, bi orrialde. “Sanfeminak 2010 Iruñean”, gehigarri berezia, hamasei orrialde.

Noticias de Gipuzkoa egunkariak: “La delincuencia juvenil crece en Euskadi un 19% durante 2009”, bi orrialde. “Basagoiti reivindica la roja y se parte el peroné”, hamaseigarren orrialdean. “La Diputación advierte la brusca caída del ahorro de los municipios guipuzcoanos”, bi orrialde. “Recurren por favoritismo un concurso de Donostia Kultura”. “Una subida fatal. Comerciantes y consumido-

res desapruaban la subida del IVA”. “Tour: Cinco vasos debutan en la ronda gala en busca de algún triunfo parcial”, bi orrialde eta gehigarri berezia. “Real: El padre de Demidov asegura que su hijo ha elegido la Real”. “Sudáfrica 2010: Brasil, Holanda, Ghana y Uruguay a por las semifinales”, bost

orrialde. “Hoy, la revista *Stylo*”.

El Paisek, País Vasco orrialdeetan: “El PP consigue que Rojo se marche”. “Industria ordena el cierre inmediato de la polémica cantera de Zallobenta”. “La subida del IVA no afecta a las rebajas”. “Directivos vascos ven con incertidumbre la reforma laboral”. “Plan de igualdad de oportunidad en Kutxa para hombre y mujer”. “Los universitarios de 2006 lograron trabajo en menos de tres años”. “El responsable del metro también dirigirá el consorcio de transportes”. “PSOE y PP piden que el anterior equipo de EITB se explique en el Parlamento”. “La Ertzaintza redoblará su esfuerzo contra la simbología etarra en verano”. “Las murallas de Vitoria se convertirán en un jardín”.

Zerrenda osatzen dutan bitartean, Iñaki Azkuna alkate jaunaren ahotsa irratian, Singapurretik, Bilbok “hirien Nobel saria” jaso duelako. Azkuna jaunak bota duen bigarrenengo esaldia: “Sari hau lortzeko kamiseta izerditu behar izan dugu”. Esaldi eredugarria hizkuntzaren erabileraren aldetik, are eredugarriagoa, esaldia dioen bitartean Azkuna jaunak irudikatu dituen gizonezkoen kamiseta izerdituak irudikatu ahal izan ditudalako neuk ere. Eta hau idazten dutan bitartean, izerditan

bero sapa dagoelako, nire auzoa beste Nobel sari baterako desegiten eta eraldatzen ari diren kamioiez, garabiez eta hondeatzaile makinez josita dago. Eta hotza behar du bitartean Itsasondoko meategian, lurpean, hotza hezurretaraino, ilunpetan bidoi dardarati bati lotuta. ■

Hotza behar du Itsasondoko meategian, lurpean,
hotza hezurretaraino, ilunpetan
bidoi dardarati bati lotuta

Imanol Alvarez

IRAKASLEA

Azkuna = Fraga?

Fragak esan ohi zuen ez zeukala ezer marikoen kontra, beti ere marikoi-keriak logelan egiten baldin bazituzten. Iritzi berekoak omen dira Azkuna jauna eta, harrigarriagoa dena,

Madrazo andrea. Nola ulertu, bestela, ekainaren 28an Arriaga Plazan dagoen udal mastan gay bandera jarri eta homofobiaren aurkako mezuak ematea; eta, aste batzuk lehenago, lasai asko, Bilboko Udalak onartu berri duen Espazio Publikoaren Ordenantza proposatu eta defendatu izana?

Izan ere, delako arautegian* surrealismo hutsa diren artikulua daude, hala nola kometatan jolastea debekatzea, kometa bat urtean behin ere ikusten ez den Bilbo bezalako hiri batean; kalean edatea debekatzea, edaria tabernatan erosia denean izan ezik... Are atal surrealistagoak zeuden, herri-presioari esker aldatuak izan direnak; adibidez: espaloietatik oinezkoak eskuinetik ibiltzera derrigortzea, ideia politikoen propaganda egitea debekatzea!

Sexu-askatasunaren aldeko erakunde bateko kide den honentzat, orde, modu berezian eskandalizatzeko modukoa da 16. artikulua. Bertan kale-prostituzioa debekatzen da. Hori berori nahikoa arrazoi izango zen araudiaren erabat kontra egoteko, beste batzuetan azaldu ditudan eta errepikatuko ez ditudan zioengatik. Baina ez, are harago joatera ausartu, eta



IÑIGO AZKONA



Hemendik aurrera, beraz,
akabo kotxe barruko txortak
edota parkeko iluntasunaren
babespean eginiko zirri
edota musuak



izaera barru-barruko —*intimo*— eta pertsonaleko adierazpen afektibo oro, eta sexuarekin zerikusirik izan lezakeen beste edozer, espazio publikoan debekatzeraino heldu dira, gizalegezkoa ez omen delako holako zerrikeriarik egitea besteen aurrean. Hemendik aurrera, beraz, akabo kotxe barruko txortak edota parkeko iluntasunaren babespean eginiko zirri edota musuak. Isunak ere ez dira halamoduzkoak: huts arina (aipatu berri ditugun zirri edo musuak, kasu) 750 □; huts larria (ume aurrean egitea) 1.500 □. Sinesgaitza, ez da? Baina erreala, tamalez.

Hainbatek pentsa lezake tokiko afera dela. Bada, ez. Bartzelonakoa izan zen holako ordenantzetako lehen estatuan. Gero, beste zenbait hiritan kopiatua izan da, kopiatze bakoitzean errepreboago bihurtu delarik. European ere antzekorik bada. Bilbokoa aurrera ateraz gero, laster izango ditugu antzekoak Donostian, Iruñean edo Getxon. Larria da, gero, ustez gaindituta zegoen katiximako moralinean eta sexofobian oinarrituriko arautegia baita. Martxa honetan Torquemada txiki utziko dute laster. Ikusteko jaioak, alajaina! ■

*http://www.bilbao.net/castella/espacio_publico/normativa/ordenanzas/ordenanza_espacio_publico.pdf Ordenantza erdaraz; euskaraz ez ci dago idatzita.

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ez daude hain urrun Iparalde honetan *Force basque* amu bezala udan egiten ziren erakustaldiak turistak arrain. Bospasei ikastola, Seaska hastapenetan, Herri Urrats baten batzuen linboan eta herrietako dantza taldeak eta pelotariak zeruan. Turismoaren menpekotasunaren aurkako kanpaina militanteak indarrean, euskara eta lana herrian errebindikatzeko zituzten komertzianteen haserrera. Guztia, frantses bakarrean. Gogoan dut hegoaldekoak espainoltzat frantsesez aurkeztzen ziren garaia, esan bezala atzokoak. Aste honetan inguratu gara Urruñan antolatutako horietako batera. Bertako bi talde ohiko kirol jokoetan

Emeki, badoa

elkarren arerio. Aurkezpenak euskaraz, frantsesezko adierazpenez paratuak. Hegoaldeko atleta bakarra, urruñar hizkuntza duen gipuzkoartzat aurkeztua, euskaldunak bat garela esanaz argitua. Megafoniatik garai hartan kantu errebindikatzailak kontsideratuak. Eta partaideen arteko hizkuntza, salbuespenak apaingarri, eskuara. Estatistikek besterik erakusten badigute ere gure ardurarako, hemen euskarak bide egin du, jada abandonatu du agurren leku baztertzaila eremu honetan. Eta turistak pozik beste kultura baten berri izanez. Ez ziren ez turistak gure arazo, haiek guk ezkutatzeko geniena ezagutzeko prest zeuden, Urruñako euskal indarra lekuko. ■

Iñaki Odriozola Sustaeta

IRAKASLEA

Aberastasunak banatu, ez zorrak

Bi urte badira, jada, krisi ekonomiko famatua gainera –literalki gainera– etorri zitzaigunetik, eta inguruko denok, sozialista antzekoak asko, betiko sindikalistak, izandako komunistak, oraingo aurrerakoiak, krisiari buruzko “konponbideak” derrigorrez ezartzen ari zaizkigun honetan, gure ardura eta egonezina adierazten ari gara.

Batzuek diote krisia ez dutela langileek ordaindu behar; beste batzuek, funtzionarioek ere ez daukatela zertan ordaindu; badaude esaten dutenak iruzur fiskala sakonki begiratzu gero, neurri askoz ere bigunagoak hartuta nahikoa izango litzatekeela krisia gainditzeko.

Denok ados gaude erretiroak eta pensioak ez direla ukitu behar; eskubide sozialak, hezkuntza eta osasunari buruzkoak batez ere –lortzen hainbeste kostatu zaizkigunak–, mantendu behar direla. Eta denok ados gaude, krisiaren erantzulea ez dela jendartearen gehiengo zintzoa, lan egiten duena, ezagutzen dugun auzoko herritar hipotekatua, asko daukaten gutxi batzuen gehiegikeria, eta hauek sortu eta garatu duten merkatu sistema eroa baizik.

Norbaitek esan zidan joan zen astean, guri krisiaren zati bat ordaintzea badagokigu, bankuek ere, euren aldetik zerbait jarri



DANI BLANCO

beharko luketela. Esaterako, “Botinek sei hilabeteko etekinak gizarteari eskainiko balizkio –zioen lagunak– estatuaren defizita ederto murriztuko litzateke”.

Eztabaida hauetan aipatzen edo defendatzen ditugun argudio guztiak ikusi eta gero, niretzako, ez gabiltzala ondo. Esan nahi dut, langileek edo funtzionarioek ordaindu, bankeroek edo enpresarioek ordaindu, azkenean, krisiari eurak nahi duten irtenbidea proposatzen ari garela, hain zuzen ere. Kapitalismoaren soka, berriz ere –zorrak denon artean banatu eta gero–, mugiaraziko dugu, merkatuaren berregituraketa eginaz, sistema “hobetuz”, eta beste ziklo bati hasiera emanaz. Baina gure helburua –gizartearen gehiengoarena, krisia pairatzen dugunona– ez litzateke hori izan behar. Merkatu sistema eroak sortzen dituen desorekak eta krisiak, sosegu eza eta ezbeharrak, helburua merkatuaren agintetik ahalik eta eremu gehien kentzea izan beharko litzateke, herritarren beharretara egokituz, eta jendartearen kontrolpean jarritz.

Eraginkortasuna lortzeko, beste arlo guztietan egiten dugun bezala, jendartearen eremu ekonomikoa planifikatzea izango da modu bakarra, arrazionalki, zorrak banatzen, aberastasuna banatzera igarotzeko. Non dago oztipoa? ■

«
Helburua merkatuaren
agintetik ahalik eta eremu
gehien kentzea izan
beharko litzateke,
herritarren beharretara
egokituz, eta jendartearen
kontrolpean jarritz
»

TXANDAN

Amatiño



Ekonomiarekiko mespretxua, alegia. Mendebaldeak bizi duen krisiaren arrazoietakoa bat finantza-merkatuen gehiegikeria denik ez du inork ukatzen.

Inor gutxi gogorarazten du, ordea, finantza-merkatu horien nagusitasuna ekonomia erreala gutxies-teari darionik. Labur esanda: heldu ginen heldu ginen gailurrera ekonomia errealean sinetsi eta sustatu genuelako; eta heldu gara heldu garen amildetara sasi-ekonomiaren finantza-trikimailuei amore eman diegulako. Gure aita zenak esan ohi zigun orain berrogei urte: “Gaurreguneko gazterixiak

Mespretxua

lehenago ikasten jok gastatzen irabazten baino”. Zer esango ote luke orain bizi izango balitz...

Finantza-merkatuetan ezezik, euskal gizartearen baitan ere ez dago batere modan ekonomia erreala. Hemengo abertzaletasunak, oro har, erraz –errazegi– heldu ohi dio txakur handiko hitz potoloen erretorika aldarrikatzaileari eta erraz –errazegi– egin izaten dio muzin, berriz, eguneroko ekonomia errealarari.

Hitzetik hortzera aipatu ohi dugu Eskozia, Flandria edo Kataluniaren abertzaletasuna. Baina horiek ekonomia erreala dute gogoan eta guk, aldiz, erretorika kanpolarrosa. ■

ZIRTAK

Angel Erro

IDAZLEA

Errezitaldia

Isiluneak gaina hartu du, hara bildutakoen artean azkenak ere jabetu direnean hor norbanako bat zutik dagoela, eskuan papertxo bat, tartean hari eta tartean jendea begira, inon ere arreta luzeegi lotu gabe, batari begi ematea bestearen aitzakia eta aitzinkaria baino ez balitz bezala.

Isilaldia ahula da, baina. Datorrenetik datorrelako. Tenkatzera, berehala adituko lirateke kaleko garrasiak, iskanbila, zeinean ordura arte barrunbe ilunkara honek ere parte hartzen baitzuen, hara bildutakoak (ontzi komunikatuen teoriaren nolabaiteko egiaztapenean) solas ozena berrartzera bulkaturik.

Hutsunea betetzeko, eta ez, eskuan papertxoa, zutik dagoenak unea iritsi dela erabaki duelako, idatzitakoa irakurtzen hasi da. Poema bat da. Denek erreparatu diote segituan. Batzuek lehenagotik bazekiten. Musika leun bat ere hasi da.

Errepresentazio honek milaka urtez dirau. Zutik dagoen norbanakoak argi ahoskatzen ditu, behar duten erritmoa nabarmen markatuz, hexametrorak, eta gero dotoreziaz ixten du distiko bakoitza. Distrailtu ez direnek (zorionekoak hitzen arrimura distrailtzen direnak!) miretsi lezake zeinen termino bidezkoetan aipatu duen poetak etxeko jabea, hortxe baitago, jainkoekin ahaidetua, belarriei sinestera, garaitu dituen batailen ohoreagatik.

Hortik gutxira, poemak, oraindik berbera baldin bada, beste norabide bat hartu du, bidean galdutako baten baten arreta berreskuratuta: maite kontuak aipatu dira. Giroa mendi eta basoez, berdegune eta lorategiez kargatu da. Aieneka dabil, aurpegia ere olerki, poeta. Hara bildutako batzuek –ni neu tartean– ondokoari begiratzen diogu, hodeituta, entzun berri dugun xamur eta oparotasunaren kutsadura barrundatu nahian, harik eta errima bereziki deigarri



JOSU SANTESTEBAN

batek, haizean berean dardar, sonetora itzultzen gaituen arte.

Musikarako tarte laburrean, zutik dagoenak eskuko papera lurrean utzi eta beste bat hartzen duen bitartean, arnasa berrartzen dugu denok. Ez nintzen gai izanen poemak zertaz ziharduena esateko ere; are gutxiago, gustatu ote zaidan. Irudi goi-arnasadunak, metafora leundu bereiztezinak, bihuelaren doinuak galtzen diren abiada berean, hitzen zurrunbilotik esaldi nahi bat etorri zait, oroitzapen formagabearen itxurapean: “Ustekabekoa maiz gertatzen da”.


Ustekabekoa maiz gertatzen da. Hola esanda, ez dirudi gauza handirik eta buruan dabilkidana tontakaria bat da –ez dut esanen–, baina maiz gertatzen da ustekabekoa. Badakizue zertaz ari naizen.

Pentsamendu hau ere ezabatu du poetak hitza hartu duenean berriz ere. Hurrengo *testua* azaltzen hasi da, non eta zergatik, norentzat eta nola idatzi zuen. Askok irri egiten dute azalpenaren toki jakin batzuetan. Harrigarria da, ez bada zuzenean beldurtzekoa, jendearen irri komuna, irriek beraiek oihartzundua, ezeztatua. Nire ondoan eserita dagoenak ere egin du irribarre (poetak bere amona aipatu duenean), eta –bai, bai, badaki– bakeak egiten ditut gizadiarekin. Argia apaldu da eszenatokian, musika elektroniko goxoa hastearekin bat, eta tarte batera mailot beltzaz jantzitako dantzari bat haragitu da ilunpeetatik, hor zutik dagoenak aletzen dituen isurkari eta txinparten segidari neurria ematera.

Errezitaldia amaituta, hara bildutakoak arrotz gisara elkarri begira mugitzen dira eserlekuetan, pixkanaka, oharkabea, iskanbilak, kaleko zarataren biziak aretoa berriz bere egiten duen arte.

Ondokoa altxatzen den bitartean, nagiki biltzen ditut nire gauzak; izan ere, ustekabekoa maiz gertatzen da. ■

Argia apaldu da eszenatokian, musika elektroniko goxoa hastearekin bat, eta tarte batera mailot beltzaz jantzitako dantzari bat haragitu da ilunpeetatik, hor zutik dagoenak aletzen dituen isurkari eta txinparten segidari neurria ematera



irudia:

Antton Olariaga

BERTSO BERRIAK

Jexux Mari Irazu

Bide katalanari jarriak

DANI BLANCO



I

Herrialde Katalanak
eredu, aitzindari,
ekinbide pragmatiko,
lege borrokalari.
Hiru urte ta gehiagoz
deliberatzen ari
ta Stop esan diote
bide katalanari.

II

Legezko bide guztiak
Madrilek eskatuta
Parlamentak, Gorteen ta
herriak bozkatuta.
Abortuaren legeaz
PP hain kezkatuta
jaio baino lehenago
hil dute Estatuta.

III

Kontsentsuaren aldeko
gurtza ta gomendio
Parlamentean gehiengoz
orraztua propio
Gortetan *zepillatu*,
Guerra bakeaz fio?!
Orain Konstituzionalak
makina pasa dio.

IV


Ibarretxeren plana zen
Gortetan erori
kontsentsurik ez zuela,
aitzakia bai lodi.
Ta katalanek sinetsi
gure Zapaterori
pragmatismoa ez baizik
fedeghitxo zen hori.

V

Gero manifik, jendetzak
ta hauteskunde jira
protestaldi neurtuaren
errones jaialdira.
Hemengo joerak ere
onargarri ez dira
beti elkarri ez beste
norabaite begira.

VI

Geure barrutiak sortu
hazi berriak bota
geure mugarriak sartu,
hor gogor egin kontra.
Nahiz ustelduta dagola
behin eta berriz konta
ez hesola, ez estaka
ez dira eroriko-ta.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

DOINUA: "Agure zahar batek zion".

Ihesi-Oporrak Atzerrira, baina diferente

Mundua aldez alde korritzeko modu asko dago. Bat da, sakelak zuloz beteta ditugun honetan, hotela behintzat debalde bilatzea: truke zerbitzuei esker, beste norbaiten etxean egon zaitezke zure etxea beste norbaiti uzteko prest bazaude, Olatz Urraka bezala. Badira handinahiagoak ere. Iker Muñozek, esaterako, urte eta erdiko bidaiaren berri eman digu. Hogei herrialde baino gehiagotan ibili da bere kasa, surfaren aitzakian. Iaz Mongol Rallya egin zuten Oiarzabal anaien kasuan, berriz, GKE batzuei laguntzea izan zen abentura handi bat bizitzeko aitzakia. Edo agian alderantziz.



AXIER OIARZABAL



INAKI ALCALDE

Intervac elkarteak oporraldietan etxe trukaketa egiteko zerbitzua eskaintzen du 1953tik. Oinarrian, zure etxea beste bazkide baten etxearekin trukatzeko duzu. Ohikoena une berean etxeak trukatzea da, baina bada bestelakorik. Besteak beste, bi familiak beste bi familiarekin trukea egitea, edo etxean gauden bitartean bazkide bat baino gehiago bertan jasotzea.

OLATZ URRAKA

Argazkiak: Olatz Urraka/Iñaki Alcalde

Guztiok bizi gara beste batentzat oso interesgarria izan daitekeen zerbaiten ondoan



URTERO-URTERO, opor garaian, aterpetxeetan, furgonetan edo kanpin-dendan hara eta hona bidaiatzen ibili eta gero, 2007ko udan, ia urtebeteko bestelako bidaiak zoragarri baten ondoren, familian bi izatetik hiru izatera pasatzen ginen. Bidaiatzen jarraitu nahi bagenuen, beste formula bat behar genuen.

Formula unerik egokienean iritsi zen. Zenbait lankiderengandik etxeak trukatzeko aukeraren berri izan genuen. Hasieran mesfidantza handiz entzun genituen batzuen eta besteen esperientziak, hainbat webgune kontsultatu genuen, lankideak, behin eta berriz, galderaz josi genituen, eta azkenean galtzeko gutxi eta irabazteko asko gurela konturatu ginen.

Urtebeterako 130 euroko bazkide kuota ordaindu ostean, bisitari posibleen azalean jarri eta opor garaian bila zezaketena eskaini behar geniola adierazi ziguten elkartetik. Zegoeneko Intervac-eko webgunean toki bat genuen. Garrantzitsuena gure web tokiak era-

kargarria egitea zen. Lehenik, galdetegi orokorra bete genuen. Etxearen ezaugarriak, gertuko zerbitzuak, itsasoa eta mendia zer distantziatar dauden, gure lanbideak, bisitatu nahi genituzkeen herrialdeen izena eta abar. Jarraian, informazio pertsonalagoa ipintzeari ekin genion. Ahalik eta etxeko argazki gehien atera genuen, baita gertuko eskaintza zein zen irudikatuko zituztenak ere: Donostiako Jazzaldia, Iruñeko San Ferminak, Iparraldeko hondartzak, Bilboko Guggenheim, Gasteizko Andra Mari Zuriaren festak, gastronomia... Informazio guztia ingelesez idaztea erabaki genuen, hori baita trukerako erabiltzen den hizkuntza nagusia.

Mundua eskura

2009ko ekaina hasieran semaforoa berde genuen. Horrela adierazten baitira trukerako pronto dauden etxeak. Hawaii, Holanda, Paris, Kanada, Zeelanda Berria... A ze aukera mordo! Mundua gure esku. Eta munduko



Kale antzerkia Kilkenny hirian.

bazter guztietatik hasi ziren, baita ere, gurera etortzeko asmoz mezuak iristen: Belgika, Danimarka, Finlandia, Bartzelona, Britainia. Nondik hasi?

Azken urteetan ingelera da gure bidaien motorra. Hizkuntza horrekin badugu nola-baiteko erronka, eta opor garaia berau praktikatzeko aitzakia ezin hobea dela iruditzen zaigu. Hori eta beste arrazoi batzuk bide, lehendik ere ezagutzen genuen Irlandara itzuliko ginela erabaki genuen. Orduantxe hasi zen mezu festa. Makina bat e-mail bidali ostean, hor ibiltzen ginen gauero ea inork erantzun ote zuen begira. Hilabete genuen udako oporrak lotzeko. Batzuekin hartu-emanetan hasi, une berean beste batzuekin, datak adosten, kotxea trukatzeko kide bila, azken orduko bazkide interesgarriago baten aukera... hilabeteko dantza bizi haren ostean Wexford konderriko Curracloe herrixkatxan hiru asteko egonaldia lortu genuen, auto trukaketa barne. Gauza bat argi geratu zitzaiz-

gun: trukeak denbora eskatzen duela eta denboraz egin beharra dagoela.

Denbora eskatzen du, baita ere, zure etxea besteentzat prestatzeak. Guztia idatzita uztea komeni da: sukaldeko tresnak nola erabili, etxeko argi nagusia nondik piztu eta itzaltzen



Makaztui
landetxea

Dima (Bizkaia)

☎ 946 338 160 / 656 791 001
www.nekatur.net/makaztui



Curracloen, bizilagunekin.

den, zakarrak nola antolatu behar diren, zein gauza erabiltzerik ez duzun nahi –besteak beste, telefonoa–, oinarrizko zerbitzuak –medikua, tailer mekanikoa, janari dendak...– non dauden, eta informazio turistikoa. Zenbat eta harreman handiagoa egin trukaketa baino lehen, orduan eta egokiagoa izango da utziko diezun informazioa. Oso ohikoa da maiztasun handiaren behar diren edo ez galdetzea, batzuentzat inolako arazorik sortzen ez duen arren beste batzuentzat oso gai pertsonala da eta.

Trukaketa, Dublinen

Dena prest bidaiarako! Dublin izan zen gure elkargunea. Bertan jaso gintuzten, oinarrizko informazioa trukatu genuen, autoko eta etxe-

Kilkennyko gaztelua.



ko giltzak elkarri eman eta bidaia ona opa genien batzuek besteei. Hurrengo egunean Biarritzera hegan egin eta guk bezperan aireportuan utzitako autoa bertan hartuko zuten.

Elkar ezagutzeko aukera izan genuen, bitartean. Argazkietan ikusi arren, zure etxera nor doan aurrez aurre ezagutzeari lasaitu egiten zara, horrela izan zen kasu honetan behintzat. Ez ginen luze egon, baina nahikoa izan zen egindako aukera zuzena zela ikusteko.

Ezkerreko bidetik gidatuz, kotxe handi batean, irratia piztu genuen. Ingelera barra-barra eta zelta hizkuntza, baita ere. Alde batean eta bestean marrubiak salgai ikusten hasi ginen konturatu ginen Wexford-eko konterrian sartu ginela. Curracloera iristeko irrikan geunden. Irlandan murgiltzen hasiak.

“Gure” etxe berria

Giltzak etxeko atea ireki zuenean, ondorengo hiru asteetan gure txokoa izango zena ezagutu genuen. Gaua zen eta gauzak ahalik eta gutxien ukituz maiztasun handiaren behar zuten ohean egin genuen lo hirurok.

Hurrengo goizean goiz jaiki ginen, eguzkia atera orduko, ez baitago pertsianarik Irlandako etxe gehienetan. Hara gure lehenengo sorpresa! Pixkanaka etxeko bazter guztiak ezagutzen joan ginen. Tentu handiz eta gauzak nola zeuden kokatuta begiratu. Hiru asteren buruan dena berdina uztea baitzen gure asmoa. Konfiantza eta errespetua dira truke hauen oinarria. Konfiantza eman behar duzu zure etxean eta errespetuz jokatu bestearenean. Hasierako neurri hori hartu eta gero, sukaldeko mahaian ongiatorria ematen zigan eskitutzarekin egin genuen topo.

Turistak bai, baina ez guztiz kanpotarrak

Ceád míle fáilte... edo “ongi etorri gure etxera. Bertan dagoen guztia zurea balitz erabili, disfrutatu eta zaindu”. Horixe zen eskutitzak esaten ziguna. Gustura sentitu ginen hasieratik. Eta hau da modu honetan bidaiatzearen arrazoi nagusietako bat, alegia, berria zaizun ingurunean goxo sentitzen zarela, eta hori abiapuntu aparta da. Bertakoekin harremanetan jartzeko aukera gehiago duzu. Auzokoei etxeari eta herriaren dinamika hitz egiteko parada bada. Beraientzat zu ez zara hain arrotz, beraien auzokideen etxean baitzaude, eta kuriositatea sortzen duzu. Ingurukoekin gertuago sentitzen zara. Ez zara turista soila.

XXI. mendean gero eta arrakasta handiagoa lortzen ari den aukera

Euskaraz abegi-zerbitzu esamoldearekin itzul genezake ingelesezko *hospitality service*. Intervac ez da era honetako webgune bakarra; gehiago daude, baina denetan parte hartzeko baldintzak ez dira berberak. Batzuetan, elkarri etxea eskaintzen diote trukea egiten dutenek; beste batzuetan, etxera joango denari lanen bat egitea eskatzen zaio, etxalde organikoan lan egitea adibidez... Formula asko dago, baina muina, beti ere, ezer ordaindu gabe etxe batean egoteko aukera eskaintzea da.

Tankera honetako ekimenek XX. mendearen erdian izan zuten abiapuntua. Intervac, ikusi dugunez, 50eko hamarkadatik dago martxan. 1965ean, berriz, John Wilcock-ek Traveler's Directory izeneko antolatu zuen: beren bidaietan elkarri etxea eskaintzeko prest zeuden bere lagunak zerrenda besterik ez zen hasie-

ran. Lehen hazi haietatik iritsi gara abegi-zerbitzua eskaintzen duten webgune mordotxoak edukitzera. Gaur egun Internet bidez egiten dira kontaktu gehienak, eta gero eta gehiago: 2000. urtetik hona asko hazi da honelako zerbitzuen erabilpena, eta erabiltzaile kopuruak etengabe gora egiten du. Oraingo krisiak ez zien bultzada txikia emango.

Hona hemen zerrendatxo bat:

–www.intervac-homeexchange.com
 –www.couchsurfing.com
 –www.bewelcome.org
 –www.intercambiodecasa.org
 –www.prof2000.org
 –www.hospitalityclub.org
 –www.wwoof.org/

Etxean bezain eroso zaude, baina etxetik kanpo egoteak eskaintzen dituen esperientziakin. Hori du bidaiatzeak, hori gustatzen zaigu, harrituko gaituzten gauzei atea irekitzea. Eta ateez ari naizela, gure bizimodu gautxoria aldatu behar izan genuen ondo bazkaldu eta lo kuluxka egin ondoren Wexford-era hurbildu eta ate guztiak itxita topatu genituenean. Arratsaldeko 5etan komertzioak, igerilekua, liburutegia, arte galeriak eta gainerako guztiek pertsiana botata baitzuten. Pertsianarena, esateko modua da.

Hiru txanponen truke hiru asteko egonaldia zoragarria egin genuen. Irlandako hegoaldeko hondartza luzeaz gozatu genuen. Batzuetan hondarrezko gazteluak eginez, bestetan kometekin jolasten eta ia egunero, ilunabarra baino lehen, paseo luzea eginez. Bizilagunekin berriketan, beraiek aholkatutako txokoak bisitatuz, Kilkenny-ko kale

antzerkia ikusiz eta Dublineko kale giroa usainduz, egunak berehala xahutu genituen.

Itzultzeko ordua! Dena ondo joango ote zitzaien? Etxea guk utzi bezala egongo ote da? Egunerokotasunak sor ditzakeen kalte txiki batzuez gain –hautsitako basoren bat, pertsiana tokiz askatua eta zartaginak ontzi-garbigailuan sartu eta gero gastatuak–, gainerakoa berdin-berdin utzi ziguten.

Gerora Bartzelonan izan dugu beste esperientzia arrakastatsu bat. Epea laburragoa zen eta beraz, prestaketa lana baita ere. Hizkuntzak asko erraztu zuen trukea. Eta orain Brighton, Ingalaterran; hori dugu uda honetarako erronka. Abuzturako trukea lotuta dugu. Hiri koloretsu hori ezagutzeko gogoz gaude. Etxera datorren ingeles bikotea herriko festak hasten diren egunean iritsiko da. Guztiok asko gozatuko dugulakoan nago. Ireki burua eta ibili munduan! ■



HOTELA IRIARTE JAUREGIA *****

Bidania (Bidegoian) Gipuzkoa • Tel: 943681234
www.iriartejauregia.com

«Bakarrik atera nintzen, baina ez naiz inoiz bakarrik sentitu»

Iker Muñoz Pikabea 24 urteko irundarra ekainean bueltatu da urte eta erdiko bidaiatik. 12-13 herrialde bisitatzeko asmoz abiatu zen 2008ko azaroan, motxila arina eta lau surf-ohol gainean, eta azkenean 22 herrialdetan izan da. Orain, lan egin eta dirua aurrezteko da asmoa, berriz alde egiteko, munduko mapan markatu egin baititu ezagutu dituen herrialdeak, eta Internetek esan dio %8 baino ez duela bisitatu. “Handia da mundua!”.

MIKEL GARCIA

Nola prestatu zenuen hain bidai luzea?

18 urterekin egin nuen lehen bidai luzea, hilabete Indonesiara lagun batekin. Hurrengoa hiru hilabetekoa izan zen, eta gero esan nuen etxean: bi urte barru urtebeteko bidai egingo dut. Lan asko egin nuen, hiru lanetan batera ere aritu nintzen, aurrezteko, eta behin dirua bilduta, abiatu egin nintzen. Ez da askoz gehiago planeatu behar, hegazkina hartu eta aire, hemen betikoa delako, bi urteren ostean bueltatu eta dena berdin ikusi dut. Surfa izan da nire motibazioa, munduko olatuak ezagutzea, baina gero askoz gehiago aurkitu dut, makina bat jende, kultura eta bizipen. Azken finean, jendea da bidaiatzearen onena, mundu guztiko jende oso ezberdina aurkitzen duzulako, batzuk zure egoera berdinean, eta lagun berri asko egiten dira, batez ere ni bezala joaten bazara, ez turista moduan dena lotuta, baizik suertatzen denari irekita.

Motxila txiki bat eta lau surf-ohol, besterik ez zenuen abiatu zinenean. Baina jan, lo... ere egin beharko zenuen.

Australiara joan nintzen lehenik eta *backpacker* batean lanean aritu nintzen hiru hilabetez, lora-zain, pintore, mudantzatan, obran... diru gehixeago aurrezteko. Ondoren furgoneta zahar-zahar bat erosi eta hori izan nuen bizileku. Zeelanda Berrian autoan egin nuen lo hiru hilabetez, gero ostatueta-eta egon naiz normalean, kanpoan surfeko funda gainean eguraldi ona eginez gero... Lekuaren arabera; egokitzen jakitea da gakoa. Oso gutxiarekin bizitzera ohitzen zara, gutxienekoa baino ez



Rio de Janeiron.

gainean, arropa, janari, lo-gune eta garraio merkeenekin beti.

Australia, Zeelanda Berria, Tahiti, Indonesia eta Hawaii, bidaiaren lehen zatia. Bakarrik atera zinen, baina ez duzu bakarrik bidaiatu...

Oso desberdina da bakarrik edo lagun batekin bidaiatzea, eta nik biak egin ditut oraingoan. Nahiago dut bakarrik bidaiatu, inorekin erantzukizunik izan gabe, jende berria ezagutuz, beti norbait aurkitzen duzulako egun bat, bi edo bost berarekin bidaiatzeko, jende desberdinarekin. Bakarrik bidaiatzeak behartzen zaitu irekia izatera, jendeari galdetzeko, hitz egiteko... Bakarrik atera nintzen, baina ez naiz inoiz bakarrik sentitu. Denetarik aurkitu dut, batez ere israeldar asko bidaiatzen, soldaduska egin ostean ohitura dutelako bidai luzeak egiteko. Holandarrak,

estatubatuarrak, ingelesak, alemaniarak, argentinar asko... ere aurkitu ditut. Harrituta geratu naiz Euskal Herria ezagun zitzaielako askori, politikagatik gehienbat. Harreman horiek gero baliagarriak dira gainera, munduko leku ezberdinetan ostatu bilatzeko. Ni hala ibili naiz, eta nire etxera etorriko dira orain.

Lehenengo zatia surfari oso lotua egin duzu. Sustorik eraman duzu olatu artean?

Tahitin nire bizitzako erorketarik okerrean izan nuen. Arrezifearen aurka ohola puskatu zitzaidan, kolpe handia hartu nuen, 25 minutu eman nituen igerian uretik atera ahal izateko... Gainera marrazo pila bat ibiltzen dira egunero inguruan, eta odoletan nintzenez... baina janari asko dute eta ez dira arrisksuegiak. Lau oholekin atera nintzen Euskal Herritik (merke



lortzen ditut, Pukas-en egin dudalako lan) eta bost puskatu ditut. Olatu onak hartu ditudan seinale, beraz ez da txarra.

Oso arriskutsua da itsasoa?

Errespetua izan behar zaio eta arrezife inguruetan gabiltzanok normalean badiogu, ez da edonor sartzen, arrezifeak kasik ur-azaleraino iristen direlako eta erraz labaindu eta ebakia egin dezakezu. Arriskutsuagoa da hondartzetan, surfa modan jarri baita eta jende pila bat sartzen da, era gutzietakoa.

Eta mundua, arriskutsua da gure mugetatik at?

Gehienbat Hego eta Erdialdeko Amerikan. Guatemalara iritsi eta jada ikusi genuen oso ohikoa dela kalean pistolarekin ibiltzea, eta Panaman eskolta jarri ziguten denda batera joateko. Lekurik arriskutsuena Honduras iruditutako zait, etxeko leihoak burdinez josiak, jendea eskopetekin, zaindariz betea, tiro hotsak... Lapurtu egin ziguten han eta arazo asko izan genituen pasaporteak berriz lortzeko, enbaxada eta polizia tarteko. Perun berriz lapurtu ziguten eta espetxean amaitzeko zorian izan ginen, illegal egoeran ginela-eta. Aurretik, Australian, furgonetaren matrikula ostu zidaten eta hori paper piloa bete behar izan nuen! Tahitin ere bisatuarekin problemak izan nituen, AEBetan obsesionatuta daude segurtasun neurriekin... Burokraziaren munduan profesional bilakatu naiz dagoeneko, kar, kar, kar. Eta leku askotan soborno bidez funtzionatzen dute, edozerengatik gelditu eta ia-ia eskua luzatzen dizute, diru zain, azkenerako ikasi egiten duzu gutxi gorabehera zenbat eman leku bakoitzean. A, eta Indonesian hiru egunengatik libratu ginen lurrikara bat jasatetik. Arriskua eta aurreikusi gabekoak beti suertatzen dira, eta beharrezkoa da pazientziarekin hartzea. Gainera, esperientzia bezala ere oso baliagarriak izan dira ezbehar horiek guztiak.

Integratzen jakitea garrantzitsua izango da...

Bai. Indonesian oinarritzko hiztegi bat ikasi dut, nik uste ilusioa egiten duela. Hemen

Ezker-eskuin:
Australian,
munduko leku
guztietatik
etorritako jendez
inguratuta;
Zeelanda Berriko
bizileku
inprobisatua;
Txileko dunetan
snowboard egiten
hiru hilabetez; eta
Tahitiko uretan.

Bidaiatzeko gakoak

"Irribarre batekin joateak ate asko irekitzen ditu, eta gertaera berrietara irekia egon behar duzu, dena lotuta utzi gabe. Ohitu egiten zara gainera, egunero leku desberdin batean lotan, baina era berean egunero esperientzia berri bat".

kanpotar batek euskaraz hitz egiten badizu inkontzienteki prestuago zaude laguntzeko. Gastronomia ere oso modu ona da kultura batean sartzeko eta denetik jan dut; arraroen, oilasko bihotza, Brasilen. Kanpotarra zarela ikusten dute, hitz egiten hasten zara eta ez da zaila integratzea, euren arazoak kontatzen dizkizute... Arazorik handiena? Pobrezia izugarria. Hegoamerikan oro har eta bereziki Hondurasen. Hangoa ikaragarria da, jendea kalean botata, burua zaborrontzian sartuta. Etengabeko krisian bizi dira han!

Hawaiitik Kanada, AEB (Los Angeles, Las Vegas), Mexiko, Guatemala, Honduras, Nikaragua, Costa Rica, Panama, Ekuador, Peru, Bolivia, Txile, Argentina, Paraguai eta azkenik Brasiler. Hondartzen lasaitasunetik, hirietako anabasara.

Kontraste handiak aurkitu ditut. La Paz, adibidez, Bolivian, asko gustatu zait, jendetza eta dendak leku guztietan, bizi handiko hiria, kaotikoa guztiz. Eta lasaitasun handiko guneetan ere izan naiz. Surf egiteko nahiago ditut leku lasaiak, baina bidaiatzeko kaosak gehiago erakartzen nau, saltsak, mugimenduak. Hasieran dena surfa zen, baina aseta bukatu nuen eta bidaiaren bigarren zati honetan gehiago izan da bidaiatzea jendea eta leku berriak ezagutzeko. Gainera surfariak ez dugu deskonektatzen, beti eguraldiari eta itsas-baldintzei begira gaude eta pixka bat egoistak gara, olatu onak hartzea baino ez buruan eta lehia uretan, baina bidaiariaren filosofia alderantzizkoa da guztiz: eskuzabal-tasuna. Bien arteko nahasketa izan da nire filosofia, surfaren eta bidaiatzearen artean. Surfak lasaitasuna ematen dit, mundutik deskonektatzeko aukera, eta bidaiak jendea, harreman itzelak, eta hori da garrantzitsuen. Gomendatu ez, behartu egin beharko lukete bidaiatzera! ■

<http://ikermmp.blogspot.com> blogean jaso du Iker Muñozek bere bidaia, argazkitan.

Mongol Rally: inoren laguntzarik ez espero

Joseba eta Axier Oiarzabal anaia urduñarrak duela urtebete inguru abiatu ziren etxetik Ulan Batorrera, Mongoliako hiriburura, autoz. Ez zuten helmuga besterik gabe aukeratu; 2004tik Mongol Rally izeneko abenturan parte hartu duten ehunka lagunetako bi dira oiarzabaldarrak.

UNAI BREA

Argazkiak: A. Oiarzabal/J. Oiarzabal

MUNDUKO ABENTURARIK HANDIENA dela esan izan da. GPS eta bestelako teknologiek edozein bazterretara iristea errazago —eta seguruago— bihurtu duten honetan, gauzak txarto joatea, benetako arriskuan egotea nahi dutenentzako abentura modura aurkezten da Mongol Rally-a, azken lau urteetan hura antolatzeaz arduratu den enpresaren webgunean. League of Adventurists International dauka izena, britainiarra da, eta bai, enpresa da, dirua irabazteko asmoz jarduten du. Hala uler daiteke bertan izen-emateko 800 euro ordaindu behar izatea, nahiz eta Axier Oiarzabalek, iaz Mongol Rallya egin zuten euskaldunetako batek, diru hori zehazki zertarako zen ez digun zehatz esaten jakin. Irabazteko asmoarena Wikipediatik atera dugu.

800 euroak gastu zerrenda luze baten abiapuntua besterik ez dira. Horrelako erronka bati aurre egiteko berez behar den sosaz gain, Mongol Rallyaren egileek beste konpromiso bat hartzen dute aldezturik: 1.500 euro ematea Mongolian lanean ari diren zenbait

GKErentzat. Gainera, autoa helmugan utzi behar da, hangoek erabili dezaten. Oso ongi errezibituak dira anbulantziak, Mongolian ia ez dago eta.

Axier eta Joseba Oiarzabal urduñar anaia gazteak anbulantzia bat eramatekotan izan ziren, hain zuzen, baina azkenean auto arruntagoa aukeratu zuten. Hura ere erosi behar izan zuten, jakina. Rallyak egiten ohituta daude, baina laburrak, etxe inguruan. Lehiatzen, beraz. Aspalditik zeukaten gogoia, ordea, abentura rally bat egiteko. Azkenean, Mongoliakoa hautatu zuten, “ikusien gurelako elkartasun osagai bat ere bazuela, eta zerbaiterako balioko zuela; ez zen geratuko joan-etorri hutsean”, dio Axierrek.

Munduko bira osoaren herena den odisea, zelan laburtu hain tarte txikian? Nekez. Datu batzuk lehenik: 15.000 kilometro eginda, metroa gora metroa behera, 26 egunetan iritsi ziren helmugara. Denek ez dute lortzen. Rallya egiten hasi zirenean, 2004an, %30 inguru ailegatu ziren Ulan Batorrera. Gaur egun



Finantzazioa, beste abentura bat

Mongol Rallyan parte hartzeko behar den diru kopurua normalean patrikan eramaten duguna baino gehixeago da. Horrek inork kikildu ez dezan akaso, antolatzaileen webguneak dio posible dela diru hori lortzea norberaren ekonomiari zauri larria eragin gabe. Nola? Erraz, eskatuta. Horretan ari dira, esaterako, uztailaren 22an Ulan Batorrera abiatuko diren Cormac MacDonell eta Iker Galin bizkaitarrak. 12.000 eurotik gora joan zaie aurrekontua, eta hainbat enpresaren babesa lortzeaz gain —eramango duten furgonetak agerian uzten duenez— hainbat jaitan txosna eta guzti ipini dute. Hori bai, ohikoa baino askoz kilometro gehiago egiteko asmoa daukate, eta patxadaz gainera: antolatzaileek gomendatutakoa baino lau aste beranduago iritsiko dira —espero deza-gun— helmugara. Itxarongo omen dituzte.



INIGO AZKONA

%70era igo da portzentajea; antolatzaileek, ahalik eta baldintza kaxkarrenetan abiatzeko filosofiari eutsiz, arau bat ezarria dute: erabiltzen den autoa ezin da oso ona izan. Baina mongoliar gobernuak, ikusita uzten zizkieten kotxeek ez zutela gehiegirako balio, bere baldintzak jarri zituen: autoek hamar urte baino gutxiago eduki behar dute. Gehienezko zilindrada 1.200 cm³-koa izateko ere presio egin zuten, hasieran 1.000koa besterik ez zen eta.

Zenbakietatik harago, anekdotez bete genitzake datozen orrialdeak eta askoz gehiago. Denak behin Asian sartuta, Europa ziztu bizian utzi baitzuten atzean Oiarzabal anaiek. Ezagunegia da gure kontinente txiki hau, eta bestalde, zer abentura usaindu daiteke haren autobide erosoetan, GPSrik gabe joanda ere?

Mongol Rallyaren benetakoa esanahia Turkian hasten da, baldin eta, Axier eta Joseba bezala, Asiara Turkiatik sartzea erabakitzen bada, hori ere libre da. Batzuk iparraldetik joaten dira, Ukrainiatik, eta Zirkulu Polar Artikoa zeharkatu ostean Ulan Batorrera iritsi denik ere bada. Antolatzaileek ez dute ibil-

bide jakina inposatzen, eta dena den, bidean zerbait gertatzen bazaizu ez dira zutaz arduratuko, 800 euroko prezioan doa hori.

Irlandarrak, irekienak

Turkiako asiar aldean gaude beraz, eta autobideen erosotasuna desagertu egin da, baina behintzat autobide izena merezi duen zerbait badago oraindik. Iranera sartu orduko ezta hori ere, nahiz eta asfalto kontuetan gorrienak iristeke dauden. Bidean aurkitutako jende guztietatik, irlandarrek utzi zuten oroitzapen goxoena Axier Oiarzabalen gogoan. Jatorrak, irekiak, beti laguntzeko prest... Ia gauero kanpin-dendan egiten zuten lo, arropa garbitu beharrak hotel bat bilatzera behartzen zituenan izan ezik, baina otorduak bideko ostuetan egiten zituzten. Hala, geldialdi luzeak egiten ez bazituzten ere, bertokoekin harremanean izan ziren etengabe, hizkuntzaren ozttopoa nola edo hala gaingituz, eta batzuetan gaingitu gabe; aurkitutako guztiak ez ziren-eta irlandarrak bezain jatorrak izan, bide batez esateko.



ITSAS MENDI

Karabanak eta autokarabanak



- Europako marka garrantzitsuenak :
KNAUS, HYMER, HOBBY, BENIMAR, SUN
ROLLER, RIMOR.
Salmenta ondorengo zerbitzu bermatua
- Furgoneten eraldaketa

E-posta: itsasmendi@itsasmendi.com / www.itsasmendi.com
Errep. Nazionala 1 - 20140 Andoain (GIPUZKOA)
Tel. 943 59 32 90 - Faxe: 943 59 41 73

Turkmenistandarrak, esaterako, ez zitzaizkien atsegin suertatu. Beharbada espioiak izatea leporatu zietelako, ikatzentral bati —hala zela gerora jakin zuten— argazkiak egiteagatik. Zertxobait atseginagoak ziren uzbekistandarrak, eta gainera ikusteko moduko hiri bi daude han: Buxoro eta Samarkanda, biak historiak gainezka.

Uzbekistan atzean utzita, iparraldera jo zuten Axierrek eta Josebak, oso iparraldera. Mapari begiratuta itxuraz bidea alferrik luzatzea da, baina mapek zer dakite munduaz. Batetik, ekialdean dagoen Kirgizistanera sartzeko ez zuten bisarik; Bruselan daukate Euskal Herritik hurbilen dagoen enbaxada. Eta alferrik zatekeen gainera: are ekialderago dagoen Txina inola ere zapalduko ez zutela argi zuten abiatu aurretik: “Joko Olinpikoak igaro eta gero oso zail bihurtu da hara sartzeko baimena lortzea”, argitu digu Axierrek.

Gasolina arazorik ez ei duen herrialdea

Hortaz, Kazakhstan izan zen zeharkatu zuten hurrengo herrialdea, bai kostata zeharkatu ere. Munduko bederatzigarren estaturik handiena da sobietar errepublika ohia. Jende gutxi bizi da ordea. Estepa hutsa zuten bidaide, hegoalderagoko basamortuaren orde. Zenbat eta iparralderago, orduan eta klima hezeagoa, eta, uda izan arren, hotzagoa. Garaiera handian egoteak ere lagunduko zuen horretan.

Gutxi populatutako eskualdeak zeharkatuta ere, behin ere ez zitzairen gasolindegirik falta izan. Kazakhstango batean, gasolina botatzen ari zitzairen mutilari botoiren bat sakatzeari ahaztu zitzaion, eta behin autoa beteta likidoa lurrera jausten hasi zen. Han zeuden guztiak barrezka hasi ziren, euskaldunak izan ezik: “Lasai, hemen sobera dugu, ez dago arazorik”,



Irandar emakumeak gorputz osoa estaltzen dien bainu-jantziz bainu hartzen, Kaspiar Itsasoko hondartzan batean.

esan zieten urduñar harrituari. Nola da *peak oil* kazakhstanera?

Beti iparralderantz, Errusian sartu ziren azkenik, Europa gogorarazi zien eskualde batetik. Izen hori merezi zuen errepede bakarrak oso iparrera joaten behartu zituen, euren helburua ekialdean egon arren. Barnaul hiritik, berriz, hegoaldera osterara ere, mendi eta basoz inguratuta, Euskal Herriaren antza zeukan paraje batean. Eta behin iparraldera egindakoa hegoaldera deseginda, azken muga politikora iritsi ziren: Errusiaren eta Mongoliaren arteko. Hor hasi ziren benetako arazoak.

Mongolia, herrialde hutsa

Bidaian izandako bizipen guztiak biderkatu egin zitzaizkien Mongolian. Ordura arteko mugak zeharkatzea zaila bazen, Mongoliakoan egun erdiz eduki zituzten geldi besterik gabe, eta euroak Mongoliako dirutara aldatzean erdia baino ez zieten eman. Behin muga gaindituta, zer esan? Ordura arte populazio txikiko herrialdeetatik ibiliak ziren, baina Mongolia denetan da gailen: munduan biztanle dentsitate txikiena daukan estatua da. Hiru milioi lagun, horietatik milioi bat Ulan Batorren, Frantziako estatuaren hiru halako den lurraldean. Mongoliako kilometro koadro gehienetan ez da inor ere bizi. Eta ordura arte errepede txarretatik ibiliak baziren, aurrerantzean errepede ere ez zuten edukiko hiriburutik 300 kilometroira egon arte. Mongol Rallyaren sortzaileek ez zuten alferrik aukeratu Mongolia: munduko errepede txarrenak omen ditu. Izan ere, ez dago ia errepede, asfaltorik esan nahi baita. Mapan adierazitako bide batzuk badaude, baina lur eta hareazko pistak besterik ez dira, eta gainera ez doaz mapak dioen lekutik. Dena den, lautada amaigabeetan bizi diren mongoliarrek mapa bat zer den ere ez dakite, Axier Oiarzabali kasu egitera.

Rallyko parte hartzaile guztiak helmugara ez iristearen errudun nagusia Mongolia da seguruenik, baina gure urduñar tematiek oztopo horiek eta gehiago gainditu zituzten, baita erreka bat zeharkatu nahian autoa urez bete zitzairenean eta ia erremintarik gabe konpondu behar izan zutenean ere. Eta zalantzarik ez izan tematiak direla: antolatzaileek, Ulan Batorrera iritsi zirenean, ez zieten jaramon handirik egin hasieran, baina beraiek umezurtz-etxe bat ikusi nahi zutela eskatu eta eskatu egin zuten, haraxe joan behar baitzuten abenturaren hasieran aipatutako 1.500 eurok. Lortu zuten ikustea, eta beraiek izan ziren horretan lehenengoak. ■

Gorozika

Aterpetxea

www.gorozika.com

Gorozika Auzoa, 25 · Muxika (Bizkaia)

Harremanetarako:

☎ 946 731 332 · gorozikanatura@gmail.com

Literatura



Etxegiroan.com, liburuak entzuteko ataria

Haurrei eta helduei zuzenduriko ipuinak eta audioliburuak entzun daitezke, besteak beste, etxegiroan.com webgune berrian. Maria Uriarte, Tomas Fernando eta Osoitz Elkorobarrutia daude proiektu horren atzean, pasioz, mimoz eta konpromisoz lanean.

UXUA LARRETxea

Argazkiak: Dani Blanco

IPUIN LABURRAK, mikroipuinak, poemak, egunkarietatik jasotako hausnarketak, liburu osoak edo horien pasarteak topa daitezke www.etxegiroan.com atarian. Helduentzat, gazteentzat eta umeentzat prestatutako lan horiek euskaraz zein gaztelaniaz entzun daitezke. Audio literatura garatzeko plataforma da webgunea, baina bertan dauden grabazioak ez dira testu baten irakurketa soilak, espiritu propioa duten lanak baizik.

“Gure sormena martxan jartzeko bidea izan da etxegiroan.com”, Maria Uriartek dioenez. Bera da proiektuaren atzean dagoen

kideetako bat; hitzez, testuez eta ahotsaz arduratzen da. Tomas Fernando du alboan, grabazioak girotzeko eta bideratzeko soinua txertatzen eta editatzen aritzen dena. Horiek sarean zintzilikatzeko eta modu argian aurkezteko ardura duena, aldiz, Osoitz Elkorobarrutia da.

Apirilean eman zuten argitara webgunea, eta bertan azken urteetan zizelkatzen joan diren lanak aurki daitezke. Enkarguz ere grabazioak egiteko aukera eskaintzen dute; esaterako, material didaktikoa egiten duten argitaletxeek eskatuta ipuinen grabazioak egin izan dituzte, testuen osagarri gisara. Edonola

ere, atariaren bitartez edonork bidal dezake testu bat eta ahozko narrazio profesionala enkargatu musikak girotuta.

Euren bidean jarri den ekimena da honakoa, baina Tomas Fernandok aitortu digunez grabaketak egiten aritu diren arren, beti izan dute gogoan webgunea sortzea: “Seriotasunez egin nahi genuen eta horretarako Osoitz Elkorobarrutiaren laguntza eta konpromisoa izan ditugu”. Izan ere, bera arduratu da web egitura erabilerraz eta iraunkorra sortzeaz. “Hasieratik argi eduki dugu egitura sinplea, kontrasteduna eta irisgarria nahi genuela”. Urtebete aritu dira webgunean lanean, entzungaiak biltzen eta izena, logotipoa eta egitura lantzen, besteak beste. “Buelta asko eman dizkiogu denari, baina gogo eta kariño handiz egin dugu”. Zentzu horretan asko lagundu die denbora mugarik ez izateak, atzetik inor ez egonda nahi izan duten bezala egin baitute lan.

Uxue Apaolaza, Harkaitz Cano, Eduardo Galeano, Miren Agur Meabe, Jon Maia, Eider Rodríguez, Joseba Sarrionandia, Mariasun Landa... Horiek dira Etxegiroan atarian aurki daitezkeen testuen egileetako batzuk. “Idazle jakin baten testua landu aurretik eurekin hitz egiten dugu eta egia esan orain arte itzelezko eskuzabaltasunarekin hartu dute ekimena; bereziki jakinda proiektuaren atzean ez dagoela irabazi ekonomikorik. Gainera, maiz eskerrak eman izan dizkigute euren testuekin lan egiteagatik”.

Elkarlanaren fruitua

Proiektu berria sortu aurretik ere entzumenaren alorrean lan egiten zutela nabarmendu du Uriartek. “Tomas musikaria izandakoa da eta gaur egun soinu teknikari aritzen da. Nik, aldiz, haur itsuekin egiten dut beharra; horrenbestez, Etxegiroan denen gaitasunen ondorioa da, gure esparruen baturatik sorturiko zerbait”.

Gaitasunak elkarturik, beraz, lortzen dute kontakizunak hautatu, grabatu, eta musikaz lagundurik modu erakargarrian

Webgunearen bitartez edonork bidal dezake testu bat eta ahozko narrazio profesional bat enkargatu musikak girotua

aurkeztea. “Gauza berarekin lanean gabiltza, baina bakoitzak berean jartzen du arreta. Elkarlana da gurea”. Tomasek sonoritateari –erritmoari, ahotsari eta melodiari– erreparatzen dio, eta Uriartek alderdi testualari. Ipui-na ondo uler dadin lan handia egiten du testuarekin aurretiaz. Hasteko hautatu egiten du, eta horretarako, arreta deitu behar dio. Ondoren etorriko lirateke testuari tonua bilatzea, hiztegia lantzea... Gainera, haurrentzat diren ipuinekin ez du helduentzat direnekin bezalakoa lanketa egiten: “Haurrentzako ipuinetan bereziki pertsonaiak lantzen ditut eta bakoitzari pertsonalitate bat topatzen diot, gero hortik abiatuta ahotza ateratzeko”.

Osoa, azeria edo esne saltzailea, esaterako, oso pertsonaia ezberdinak dira, eta horrenbestez, bakoitzak bere pertsonalitatea eta horrekin batera ahotza izango ditu. “Nagusientzat diren testuetan, berriz, ez zait gustatzen larregi dramatizatzea, eta egoera lantzen dut kasu horietan”.

Entzuten duenak narrazioa uler dezala bilatzen du Uriartek, hori baita beretzat funtsezkoena: istorioan sartzea eta esaten den guztia ulertzea. Horretarako, denbora eman behar zaio entzuleari esaten doana irudika

dezan. Tomas Fernandez arabera, testua baliozkoa izateko honakoa izan behar da kontuan: “Grabazioa ondo ulertu behar da, une horretan entzutearekin batera beste zerbaitek egiten aritu arren. Beraz, entzuteak ez du ahalegin handia eskatu behar. Finean, irratia entzutea bezalakoa da, baina literatura jasoz”.

Grabaketan testuak bezainbesteko garrantzia du musikak ere, eta alderdi horretaz arduratzen da Tomas Fernando. Abesti batzuk berak sortzen ditu, besteak lagun batzuei eskaturikoa dira eta azken batzuk diskografiatik harturikoa. Hori bai, ia denak editatuak daude entzungaietan fondo gisara erabiltzeko. “Musika gidari bezala eta testua atontzeko erabiltzen dugu, ez da oztopo izan behar testua ulertzeko”.



Behin testua eta musika aukeratu eta landu ondoren, grabatzeko unea –eta horrekin batera hainbat proba egitekoa– iristen zaie; horren ildora, lehenengo grabaketa egunean hainbatetan entzuten dute, belarria momentu ezberdinetan dagoenean: jaiki berritan, ohean, goizean zerbait egiten ari direla, autoan doazela, iluntzean... Modu horretara, grabazioaren ikuspuntu ezberdinak jasotzen dituzte. Horrek denak, dudarik ez dago, lana denboraz eta mimoz egitea galdegiten du.

Audio literatura, aukera askoko esparrua

Orain arte entzuteko literatura ez da gehiegi landu izan, eta hortaz, alderdi asko dago oraindik jorratzeke. Nolanahi ere, Maria Uriarteri eta Tomas Fernandori mundu hori ez zaie arrotz egiten, aspalditik dabilzako eremu horretan lanean. “Lehen ez zegoen euskarazko entzungairik eta itsuekin lanean aritzen naizenez, Joseba Sarrionandiaren *Lagun Izoztua* eta Jesus Mari Olaizola *Txiliku-ren Alabaka lurrina* grabatu genituen”, azaldu du Uriartek. Halere, eurek ez dutela edozelako hutsunerik betetzeko lan egiten gaineratu du; ipuinen eta entzumenaren mundua maite dute eta norbaiten gustukoa izateko itxaropenarekin jarduten dute horretan. “Ikastoletatik, hizkuntza eskoletatik edota euskaltegietatik asko idazten digute, entzumena lantzeko material aproposik ez dutela eta gure ekimena interesgarria iruditzen zaiela esanaz. Hori entzuten duzunean gogo handiak sartzen zaizkizu milaka gauza egiteko, baina guk bakarrik ezin dugu gabezia guztia bete. Gure erritmoan eta gure bidea lantzen jarraituko dugu gauza zainduak eta gustukoak eginez”.

Astiro baina aurrera doa hirukote hau eta dagoeneko ipuinez gain audioliburuak egiten hasiak dira; hain zuzen, Ixiar Rozas idaz-

leak *Negutegia* obra grabatu zuen Etxegiroan-en txertatzeko, baita Itziar Madinak *Beste eguzkia* lana ere, bere Urepeleko bordan grabatua. Tomas Fernandok obra literarioa bere sorlekuan grabatzeak daukan garrantziaz hitz egin du: “Idazle batek idatzi duena idazteko, nahitaez zerikusia izan behar dute lekuak, usainak, espazioak eta inguruko soinuak”. Haren irudiko, horren frogara da idazleek beraiek bilatzen dutela espazio eta une jakin bat sortzeko, eta hori dela-eta espazio jakin horretan grabatuz gero antzematen da aldea.

Aurrera begira ataria ikastola, institutu, euskaltegi eta euskal etxeei aurkezteko asmoa ere badute, baina dagoeneko esparru horietako askok beren

proiektua ezagutzen dutela baieztatu dute. Izan ere, etxegiroan.com mundura zabaltzen ari da, 30 herrialdetara iritsi da dagoeneko. “Mexikotik euskaldun batek idatzi zigan Euskal Herritik kanpo euskal literatura entzutea pribilejio bat dela esateko”. Moskuko aldizkari batetik ere jaso zuten erantzuna. Horren harira, Tomas Fernandok uste du teknologia berriek gauza asko egiteko aukera ematen dutela, hala nola, euren lanaren emaitza jasotzeko. “Askok asetzen gaitu etxera iritsi, posta elektronikoa ireki eta ikusteak norbaitek eskerrak emanez edo komentario bat eginez idatzi digula; aurrera jarraitzen laguntzen digu”.

Jende gehiagoren inplikazioa lortze aldera ahots banku bat egitea ere euren asmoen artean dago, idazleena edo euren ahotsa jartzeko dutenena. “Nahi duen orok nahi duena egin dezan bilatzen dugu”. Pribilejioa eta kapritxoa, horrela definitzen dute Maria Uriartek eta Tomas Fernandok euren egitekoa. Zabalik daude eta nahi duenarentzat euren txokoa ere zabalik dute etxe giroan lan egiteko. ■

“Mexikotik batek idatzi zigan, Euskal Herritik kanpo euskal literatura entzutea pribilejioa dela esateko”

MARIA URIARTE



ERAIKINAK ZAHARBERRITZEKO TEKNIKAK
TÉCNICAS DE RESTAURACIÓN DE EDIFICIOS

Olmos pasealekua 14, 5. solairua 20016 DONOSTIA
Tel: 943 401340 · Fax: 943 401511
teusa@teusa.com · www.teusa.com



Liburuak

KRITIKA

Gizarte osasuntsua.
Erich Fromm (Itzulpena: Jaione Alberdi).
Gaiak.
328 orrialde. 20 euro.

Helduen literatura
Saioa Ruiz Gonzalez



Utopia psikoanalitikoa

BALITEKE, BATI BAINO GEHIAGORI, hizpide dugun liburuaren izenburua irakurtzeak berak ikara eragitea. Beste batzuek arretaz irakurriko dutelakoan nago. Baina apustu egingo nuke, psikoanalisisa hitza ikusi eta, zuzenean, beste artikulu interesgarriago bat irakurtzera pasako direnak ere badirela tartean. Edozein hautu errespetagarria izanik ere, eta barkaidazue sarrera ezkor hau, aspertzen hasia naiz gaur egun psikoanalisiak, batez ere freudianoak, gizartearen opioa bailitzan hitz egiten dutenekin, ahoa argudioz eta aurreiritziz beteta, baina harekin inongo esperientzia zuzenik eduki ez duen jendearekin. Bai, badakit ezjakintasuna eta ausardia elkarren eskutik datozela gehienetan, eta horrexegatik, isildu egingo naiz.

Erich Fromm (1900-1980), Marx eta Freuden pentsamenduaren arteko batasun saiakeraren emaitza litekeen psikoanalisi humanistaren teoriagatik ezaguna da. Carl Jung zein Ana Freud psikoanalisten tendentzietatik abiatuz, Frommek berak ere, gizabanakoaren inkontzienteari buruzko teoria freudianoa baztertzen zuen, eta Mendebaldeko gizaki guztiok batzen gaituen patologia orokorrak aztertzeari ekin zion. Horretarako, XX. mendeko gizartearen egitura ekonomiko eta sozialaren arteko erlazioen analisi objektibo eta sakona egitea ezinbestekoa ikusten zuen, sistema kapitalistak dakarren gizaki alienatuaren kontzeptua definitzeko. *Gizarte Osasuntsua* (*The Sane Society*, 1955) deritzan lan honetan, alienazioaren zenbait arrazoi posible eskaintzen dizkigu era sistematiko batez. Hala ere, jarrera idealista xamarra antzematen zaio, batez ere, osasun mentalaren helburuari erantzungo dion gizarte baten eraiketakako printzipioak jorratzen dituenean. Sistema kapitalistaren bortizkeriak sorrarazi duen deshumanizazio azkarraren ondorioz, gizakia, herrialde baten sostengurako bitarteko bilakatu da. Baina Frommek planteatzen duena, eta barkaidazue espresioa, erlatibismoaren teoriarekiko atentatua da. Estructura orokor eta amankomunen menpe bizi garela egia da, baina gauzak ez dira uste bezain errazak. Ene ustez, gizabanako bakoitzak estruktura hori bereganatu eta partikularizatu egiten du, beraz, sistema ekonomikoan aldaketa suertatu arren, subjektu bakoitzak ez du modu berean pairatuko. Humanismoaren ideia hau oso polita da, baina giza existentziari buruzko azalpena emateko bide idealegia iruditzen zait. Absolutua den ezer ez dagoelako, askotan sufritzen du gizakiak. Eta Ideia horrekin bizitzen ikastea da gizakiak bereganatu dezakeen askatasunerako biderik zailena, baina errealistenetakoa. ■

Koldo Zuazok, Sakanako euskarari buruz

Euskaltzaindiaren Mendaur bilduman kalera-tu da Koldo Zuazoren *Sakanako euskara*. Burundako hizkera liburu. Egileak berak liburuaren hitzaurrean aitortzen duenez, ezusteko galanta hartu zuen hizkera hori ezagutzeari, Bonapartek zioenaren kontrara, ez baitzen giputza Nafarroako eskualde horretako herri-tarren hitz egiteko modua. Zuazok azaltzen duenez, Nafarroako, Gipuzkoako eta mende-

baldeko euskararen era-gina du, hiruren “tarte-koa” da. Eta kontzeptu hori, tarteko hizkerarena, nazioarteko dialektolo-gian oso zabaldua egon arren, ez da ohikoa izan

Euskal Herriko iker-larien artean. 2007an eta 2008an bi egonal-di luze egin zituen egileak liburu osat-zeko eta adin tarte ugaritako jendea izan du mintzalagun. ■



Sakanako euskara.
Koldo Zuazo.
Euskaltzaindia.
227 orrialde.
12 euro.

Nafarroako sinboloen historia

Álvaro Baraibarrek Pamiela argitaletxearen bidez publikatu du *Historia y memoria de los símbolos de Navarra* liburu. Saiakera historikoa da Baraibarrena, Nafarroako ikurretan arreta berezia jartzen duena. Herrialdeko armariak azken mende honetan izan duen garapena ezagutuko dugu liburuari esker: 1910ean diseinatutako kate eta koroazko ikurretik, 36ko Gerraren ondoren Francok jarritako ereinotz-koroatik pasaz eta gaur egungo armari ofizialeraino iritsiz. Noski, ez gara ikur soil bati buruz ari: armariak izandako aldaketa bakoitzak testuinguru historiko bati erantzuten dio, eta Baraibarrek horiei buruzko gogoeta egitera gonbi-datzen du liburuan. ■



Historia y memoria de los símbolos de Navarra.
Álvaro Baraibar.
Pamiela.
182 orrialde. 18 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Frenetikodrome.
Governors.
Oihuka.
Iraupena: 48'14".
14 euro.

Estiloetatik at, doinuaren eta irmotasunaren bila

SORGUNEA Arrasaten duen Governors taldeak bigarren ikasgaia dakarkigu beso azpian. Brutal Melody, Ekon eta Fjord-en sortzaile Juan Sangrek egonkortu du Governors eta oraingoan ere doinu borobilak, ñabardura ugari eta erabat osatuta dauden kantuak aurkeztu dizkigu. Aurreko lana baino melodikoa-goa da eta ekoizpena garbiagoa, baina era berean oso indartsua da eta estiloetan inoiz mugatzen ez dena. Hard-rocka, stonerra, high-energy bizi-bizia,

pop-rockaren aldarrikapena, rock-metal erasotzailea, elektro dantzagarria, funky zein punk-rocka, guztiak daude ordezkaturak, eta guztietan emaitza mailakoa da. Hitzei dagokienez, Fredi Paiak, Eider Zumaldek eta Juan Sangrek berak sentimenduz eta amorruez idatzitakoak dira. Gainera, opari gisa, 10. Hatortxu Rock-eko *Kristal kolpatuak*en bideoklipa jaso dute.

www.myspace.com/governorszone

Juan Sangre - Governors

«Ez nau estilo bakarrak asetzen eta doinuak uzten didan biderantz joaten naiz»

Frenetikodrome. Hain frenetikoa izan da disko hau egitea? Egunerokotasuna ere halakoa da zuentzat?

Bai. Gauza ugari gertatu dira disko honekin batera: Governors eta Brutal Melody taldeak aldi berean jotzen aritu ginen; gero Ekonen bira etorri zen eta Governorsekin kontzertuak egiten genituen bitartean disko honetako abestiak konposatu nituen. Zoratzekoa izan da prozesua. Izenburuan estresa eta ezinegona irudikatu nahi nituen eta Parisen Sexodrome izeneko aretoa ikusi nuen, bururatu zitzaidan behin-betiko izena. Egia esan behar badut, saltsa askotan egotea gustatzen zait, ez dakit geldid egoten.

Beste behin, ahotsarekin urrunago jo duzu eta oraingoan ere bestelako erregistroak lortu dituzu. Urrunago heltzeko premia daukazu?

Ez. Ekonen abesten hasi nintzen edo Fjord sortzean banuen

zerbait erakusteko beharra, baina orain ez. Ateratako melodiek eraman naute erregistro horietara. Gaur egun eroso nago abesten eta badakit nondik tiratu dezakedan.



Ibiltaria kanta harrituta utzi nau: pop-rock pieza borobila da.

Hala irten zen; ez nindoan gauza zehatz baten bila. Hala ere, bai metalzaleei eta rockzaleei, guztiei,

asko gustatu zaie. Estilo bakarrak ez nau asetzen eta doinuak uzten didan biderantz joaten naiz. Estiloak fusionatzen dituzten taldeek betetzen naute gehien.

Zer izan da zuentzat *Kristal kolpatuak* kanta konposatu eta grabatu izana?

Poztasun handia zentzu askotan: Hatortxukoek kantua egiteko gu aukeratu izana eta Hatortxuk duen helburua bera. Gainera, kanta horri esker askoz jende gehiagok jarri du arreta gure musikan eta hori nabaritzen dugu kontzertuetan.

Zer unetan dago orain taldea?

Oso une onean gaude, diskoaz disfrutatzen gabiltza. Izan ere, egindako lan guztiaren ordaina kontzertuak dira: jendearekin egotea, erantzuna ikustea... eta orain horretan ari gara. ■

Ezpalak

JON TORNER

Gaztetxoen dantza taldeak protagonista Gauargi jaialdian



MAZEDONIA, Errumania, Ukraina eta Grenobleko dantza konpainia banak parte hartuko du Ezpeletako (Lapurdi) Gauargi folklore jaialdian, Ezpeleta bertako,

Hazparneko eta Larrainek dantza taldeekin batera. Uztailaren 16tik 20ra bitartean egingo da dantzari gaztetxoak bilduko dituen nazioarteko jaialdia. Egite-
raua www.gauargi.com webgunean kontsulta daiteke.

Bilboko Konpartsek planto egingo dute egun batez

KASKAGORRI ETA TXORIBARROTE konpartsek aurten ez dute txosnarik jarriko Bilboko Aste Nagusian. Iñaki Azkuna alkateak debekatu egin die, iazko festetan euskal presoek argazkiak eta "terrorismoa" babesten duten sinboloak jartzeagatik. Debeku hori dela eta, Bilboko Konpartsek, zigortutako bi taldeei elkartasuna adierazi eta Udalak indarrean jarri nahi duen jai ereduaren aurka protesta egiteko, festetako egun batean planto egingo dute: txosnetako eremua –Areatza– hutsik lagako dute, konpartsek jaiari ematen dioten kolorea agerian uzteko. Abuztuaren 21etik 29ra bitartean egingo dira Bilboko festak, eta aipatu plantoaz gain, elkartasun eta protesta ekimen gehiago antolatuko dituzte egun horietan.

Donostiako Arte Eszenikoen Tailerrak Besarkada saria jaso du, Euskal Aktoreen Batasunaren eskutik. Ana Perez taldeko koordinatzailearen hitzetan, "sortu eta hamabost urtera iritsi zaigu saria, heldutasun une batean, momentu honetara iristeko egin diren ahalegin guztiak sendotu direnean, ibilbidea oso gogorra izan delako".

San Adriango pasabideari (Aizkorri-Aratz natur parkea) buruzko DVDa plazaratu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Aranzadi Zientzia Elkartek azken bi urteetan egindako indusketak ardatz hartuta, hiru dimentsiodun lau paseo birtual jaso ditu DVDak, bakoitza garai konkretu baten ingurukoa: Brontze Aroa, Erdi Aroa, XIV. mendea eta XIX. mendea. DVDko edukia bere webgunean paratuko du Foru Aldundiak.

Photomuseum

Zarauzko (Gipuzkoa) argazkilaritza eta zinema museoak azkenaldian bizi izan dituen zailtasun ekonomikoak gainditu eta lanean jarraituko du. Hala adierazi du museo-



ko sortzaile eta egungo zuzendari Leopoldo Zugazak. Diru-laguntzen murrizketa izan da museoaren iraupena kinka larrian jartzearen arrazoi nagusia. Ataka honetatik ateratzeko beharrezko laguntza eman diona, aldiz, Kutxa izan da. Arazoak gainditu izanaren erakuslea, museora bilduma berria ekarri izana da. Berlingo harresiari buruzkoa da eta abuztura arte izango da ikusgai Zarautzen.

● **Xabier Lapitz kazetariak Zuzen.com-en, EITBren jardunari buruz:** «Negozioa ezagutzen ez dutenek agintzen jarraitzen badute, EITBko profesionalen aholkuei kasurik egin gabe eta esperientzia profesional urriarekin, etorkizuna beltza ikusten dut. Horri gehituz gero arazoek aurrean ezikusiarena egiten ari direla, errua hirugarren pertsonen leporatuz; hala nola, joan ginenoi, euskal abertzaletasunari edo audientziak neurtzen dituzten enpresei... Norbere akatsak onartzen ez dituenak, ia ezinezkoa du arazoek soluzioa bilatzea. PSE eta PPk nahi zutena hori ote zen da geratzen zaidan zalantza bakarra; azken batean, Espainian oso pozik daude, gaizki egiteagatik ere premioak ematen dizkiete! Katxondeoa da».

● **Gorka Andraha Tas-Tas irratiko esatariak UK aldi-karian:** «Tas-Tas irratiaren jarduteak badauzka abantailak, profesional, kazetari legez askeagoa naiz neuk gura legez esan eta egiteko (...) Desabantailak ere badira: bitarteko mugatuagoak, nazioarteko deiak egiteko dirurik ez... dena da konplexuagoa (...) Kazetaritza aldetik, karreraren irakatsitako egiteko moduak hemen ez dira betetzen, desberdinak dira; edozein irratiaren dioten lehenengo gauza zein kargu duen da, eta hona datorrenak ez du inoiz elkarrizketarik egin, edo ez du kargurik. Horiekaz berba egiteko aukera, modua, elkarrizketatzeko era... karreraren esaten edo irakasten digute egiten jakin behar dugula, baina inork ez du egiten».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php


GORKA BEREZIARTUA

2010EKO UZTAILAREN 18A **argia** ▶ 41

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Berorik eza. Basamortu. 2. Egilearen izenik ez duena. Musika nota (alderantziz). 3. Zezen zikiratu. Eraikin erlijioso. 4. **Argazkiko herria**. Bertso lerroaren osagaia den eta hura neurtzeko erabiltzen den silaba multzo. 5. Herri hizkeran, zer. Hainbat gauza-ren erdiko gunea. Automobilaren atal. 6. Bakarti, goibel. Guztiz isila. 7. Azpikoz gora jarri. Ogidunak. 8. Dena. Diakroniari dagokiona.

Goitik behera:

1. Koba, leize. 2. Alditxar, gaitz. 3. Astun. Ahoko gaixotasun. 4. Zinkaren sinboloa. Etekina, emaitza. 5. Itsu-itsuan. 6. Ez arrak. Dauka (alderantziz). 7. Azukre-kanaberaren destilazioz lortutako edari alkoholiko. Lore. 8. Olertia. 9. Mila milako kopurua. 10. Nafarroako herria. Enbor. 11. Apur, ezdeus. 12. Leize, amildegi. 13. Punta, gailur. 14. Burdina lantzeko lantegiak. 15. Atzizki destinatiboa.

Krisia eta astoak

Interneten bolo-bolo dabilen istoriotxo bat dakargu gaur.

Behin, inork ezagutzen ez zuen emakume bat azaldu zen Euskal Herriko herri txiki batean, astoak erosi nahi zituela esanez. Bakoitzarengatik 100 euro ordainduko omen zituen. Egun hartan baserritar askok saldu zizkieten beren astoak.

Emakumea, ordea, biharamunean itzuli zen asto gehiago behar zuela esanez, eta 150 euro eskaini zituen. Bezperan zalan-tzan zegoen askok saldu zituzten beren astoak. Handik aste-betera, berriz, 300 euro eskaini eta herrian geratzen ziren azken astoak ere saldu zizkieten.

Hurrengo astean, han zen

berriro emakumea. Orduan, 500 euro eskaini zituen asto bakoitzarengatik. Astorik ez ordea, eta alde egin baino lehen, hurrengo astean itzuliko zela eman zuen aditzera.

Egun batzuk beranduago, laguntzaile bat bidali zuen herrira, ordura arte erositako asto guztiekin. Baserritarrek harrapazka erosi zizkieten astoak 400 eurotan. Sosik ez zeukanak ere, lagunei eta senitarteko-ei eskatu zien dirua, negozioa egingo zuen segurantzian.

Denak zain egon ziren, baina han ez zen gehiago, ez emakumerik, ez laguntzailearik azaldu.

Ondorioa: herria astoz bete zen, eta diruz hustu.

Sudokuak

Erraza

8				6			1	
			1			8		
7		5	4		9	3		
		6			3	2		8
			9		4			
1		2	8			9		
		8	2		7	1		3
		1			8			
	7			5				6

Zaila

8				4		6		
			2					
	3			6	9	4		
2		9				1		8
5	6						7	2
3		1				9		5
		5	4	3			9	
					8			
		6		7				4

Soluzioak

9	8	1	5	3	6	2	7	4
6	1	7	4	8	9	5	3	2
5	3	2	7	6	4	8	9	1
1	3	2	7	6	9	4	8	5
5	8	7	9	2	4	6	3	1
9	4	6	5	1	3	2	7	8
7	1	5	4	8	9	6	3	2
6	2	4	1	3	5	8	9	7
8	9	3	7	6	2	5	1	4

Erraza

Zaila

9	8	6	1	7	5	2	3	4
4	2	3	6	9	8	7	5	1
7	1	5	4	3	2	8	9	6
3	7	1	8	2	6	9	4	5
5	6	8	9	1	4	3	7	2
2	4	9	7	5	3	1	6	8
1	3	2	5	6	9	4	8	7
6	9	4	2	8	7	5	1	3
8	5	7	3	4	1	6	2	9

Ezker-eskuin: 1. Horz. Eremu. 2. Anonimo. 3. Idi. Tenplu. 4. Tolosa. 5. Ze. Nukleo. Motor. 6. Uzkur. Isl. Isl. 7. Irault. Olinak. 8. Osoa. **Goitik behera:** 1. Hartzulo. 2. Ondoez. 3. Toli. Kila. 4. Zn. Onura. 5. Isura. 6. Emekak. 7. Ron. 1. lli. 8. Poesia. 9. Mili. 10. Usun. 11. Mili. 12. Osn. 13. Tint. 14. Olak. 15. Rako.

EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**



Informazio gehiago nahi baduzu: **ARGIA**

Industrialdea 15 • 142 P.K.

LASARTE-ORIA 20160

Telefona 943 37 15 45

posta-e: denda@argia.com

<http://www.argia.com/makilak.htdocs>

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Tibetarrak altuerara nola egokitzen diren argiago dago

ORIOL GASCON



SCIENCE ALDIZKARIAREN uztailaren 4ko zenbakian tibetarrek altuerarekiko duten egokitzapen mekanismoari buruzko arrasto sendoak eman zituzten. Munduan bi populazio bizi dira 4.000 metrotik gora, tibetarrak eta andetarrak. Azken horien altuerarekiko egokitzapen mekanismoa ezaguna da: euren odolak askoz hemoglobina gehiago ekoizten du gainerako giza-kiona baino; horrela, nahiz eta bizi

diren altueran itsas mailan baino %40 oxigeno gutxiago izan, beraiek oxigeno gehiago garraia dezakete gorputzeko zeluletaraino.

Baina hemoglobina ekoizpen horrek oso ondorio kaltegarriak ditu andetarrentzat. Odola loditu egiten da, eta horrek zaildu egiten du ehunen oxigenazioa. Horregatik, emakume haurdunek ume asko galtzen dituzte, eta jaiotzen direnak oso txikiak dira. Tibetarren hemoglobina kopurua, berriz, normala da; haien kasuan, geneetan dago gakoa, eta batez ere EPAS1 izena duen eta goi mailako kirolean ondo ezaguna den genean. Antza, egungo tibetarrengan EPAS1 genea mutatu egin da, eta oxigeno eskasiara moldarazi ditu gorputzak.

Arren eta emeen gantza, genetikoki desberdinak

SAGUEKIN EGINDAKO PROBETAN, emeen eta arren gantzen genetika desberdina dela ikusi da. Saguek dituzten 40.000 geneetatik 138 gene berdin baino ez dira topatu arren eta emeen gantzetan, eta horrek asko harritu ditu ikerlariak, aurkako zerbait espero zuten-eta, hau da, 138 gene inguru besterik ez izatea desberdinak.

Aurkikuntza horrek arrasto batzuk eman ditzake gizakion gantzari dagokionez. Jakina da gizonezkoek urdaila aldean biltzen dutela gantza, eta emakumezkoek gerrian eta aldaka inguruan. Kontu estetikoa baino gehiago da gantzaren biltokia: gizonezkoengan, emakumezkoengan ez bezala, metatutako gantzak diabetesa eta gaixotasun kardiobaskularrak eragiten ditu.



WWW.CANARIAS7.ES

Ozeano batek Marteren herena estali omen zuen

Gero eta datu gehiago ari zaigu iristen Martetik, eta ondorioz gero eta hipotesi gehiago egiten ari dira planeta gorriaz. Azkenetakoa haxe da: egitura geologikoak aztertuta, badirudi orain dela 3.500 milioi urte inguru ozeanoak Marteko gainazalaren zati handi bat estali zuela.

<http://ttiki.com/14957> (Gaztelaniaz)

Lehenengo bizidunen arrastoen bila

Leeds-eko Unibertsitatean (Erresuma Batua) biziaren jatorriaren arrasto berriak topatu dituzte. Ikerlarien arabera, pirofosfito izeneko konposatua energi iturri garrantzitsua izan zen lehen izaki bizidunentzat.

<http://ttiki.com/14958> (Gaztelaniaz)

Grigori Perelman errusiar matematikariak sariari uko

Orain hilabete batzuk orrialde honetan iragarri genuen Grigori Perelman matematikariak milioi bat dolarreko saria irabazi zuela Poincare-ren aierua ebazteagatik. Orain jakin dugu uko egin diola sariari. Arrazoietakoa bat da bere ustez beste matematikari batek ere, sariaren irabazle izan behar zuela.

<http://ttiki.com/14959> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

44 ► **argia** 2010EKO UZTAILAREN 18A

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Gaurko Jupiter

JUGLANS REGIA, intxaurrondoak bere jario desatseginaz inguruetan agintzen du. Pozoiak beste landareak atzeratzen ditu eta bakarrik, nagusi bizi da, jatenik kenduko dionik gabe. Agintari guztien gisara bakarrik, bakarturik bizitzera jarria da. Pozoiaz, agintekeriaz eta bakardadeaz gutxi bezala zekiten erromatarrek emana da *Juglans* izena. Latinez intxaurrea esateko hitza da eta *jovis* (Jupiter) eta *glans* (ezkur) hitzetatik dator, hau da, Jupiterren ezkurra da intxaurrea. Azak ontzeko, *regia* hitzak errege, hotsandiko esan nahi du.

Jupiter jainko nagusia zen erromatarrentzat, grekoen Zeusen ordainekoa. Harluxet entziklopediak honela dio: “Zeruaren eta argiaren jainkoa zen, lurreko ondasunen banatzailea eta hiri eta estatu erromatarren babeslea. Erromako Kapitolioko tenplua berari eskaini zioten, eta bertatik babesten zuen estatu erromatarra; bertan egiten zuten kontsulek beren karguaren zina. Era berean, zuzenbidearen eta esta-

tuarekiko, familiarekiko eta jainkoekiko eginbeharren zaintzailea zen. Inperioaren garaian enperadore eta estatuburuaren babesle berezitzat hartzen zuten Jupiter”.

Inperio haren ekonomiak, lehen hemen bagenituen laboreak eta berak ekarri zituen mahatsa (*Vitis vinifera*) eta olibondoa (*Olea europaea*) zituen oinarri. Inperio hark ekarri zuen geurera intxaurrondoak, bere erlijioari eta estatuari zor zitzaion gurtzaren adierazle. Eta harrezkero gure kultura atlantiarra mediterraneartu besterik ez dugu egin: sagardoaren ordeaz ardo txar horiek besterik ez ditugu gurtzen eta gure etxe atarietako milaka urtetako odolaren adierazle diren arte (*Quercus ilex*) eta hagin (*Taxus baccata*) mitikoak eraitsi eta intxaurrondoak jartzen ditugu. Eta inperio berriei, estatuaren babeslearen gurtza kokatzeko, toponimo ezin euskaldunagoak, ezin egokiagoak eskaintzen dizkiegu: Intxaurrondo.



JAKOBA ERREKONDO

Evorako itsasoa

Itsasoa du Alentejoko Evorak, garai bateko Eborak. Udako solstizioan besterik ez, baina itsasoa. Atlantikotik ehunen bat kilometrora egonagatik, evorarrak marinel sentitzen dira. Espaloietan barrena urdina zabalduz luzatzen dio hiriak udari ongi etorria. Geurean gaztainondoa (*Castanea sativa*) bezala, urteko egunik luzeene-

tan loratzen dira Evoran jakarandak (*Jacaranda mimosae-folia*). Ubel urdin dotore etxe zuri eta granito dotorezko kale tarte zaharretan. Ia berrogei gradutako berotan usainak erotu egiten du bat, edozertarakotu. Eta egunero euria, bero handiengan lore-euria. Erleak, lorez lore, lurrean dabilta.

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Alexander Selkirk, benetako Robinson

Arrastoak

Urdinak ere badu historia



Juan Fernandez uhartea (egun Txileko lurraldea). Alexander Selkirk eskoziarrak 52 hilabete eman zituen bakar-bakarrik Ozeano Bareko irlan.

HORNOS LURMUTURRA, 1704. Alexander Selkirk marinel eskoziarra *Cinque Ports* galera ingelesean ari zen lanean. Tripulazioko kide gehienak gaixorik zeuden, janaririk ez zuten ia, eta pipia kroskoa jaten ari zen. Horrenbestez, Juan Fernandez uharte haizetsuan lurreratzea erabaki zuten, atsedean hartzeko eta jakiak biltzeko. Selkirkek ontzia uzteko eta, laguntza iritsi bitartean, irlan geratzeko proposamena egin zuen. Kapitainak ezetz esan zuen eta eztabaida hain gogorra izan zen ezen galera berriro abiatu zenean eskoziarra atzean uztea erabaki baitzuten.

Ihes egitea ezinezkoa zen. Gertuen zeuden gizakiak 600 miliatara zeuden eta, tartean, Ozeano Bareko ur ez hain bareak. Selkirkek ur geza eta janaria aurkitu zituen: fokei eta ahuntzei esker proteinak lortzen zituen eta aranei esker, bitaminak. Piztiak, bereziki arratoi gogaikarriak, etsai izan zituen hasieran. Baina zenbait katu etxekotuta arratoiak urrun-tzea lortu zuen eta ahuntzak, elikagai izateaz gain, kantuan eta dantzan lagun izan omen zituen.

Irlan bakarrik geratu eta handik 52 hilabetera, *Duke* ontzi ingelesa, Woodes Rogers kapitaina buru, Juan Fernandez artxipelagora iritsi zen, piratak jazartzen ari zela. Lurreratze-ko bidean zirela, marinelak zur eta lur geratu ziren ahuntz-larruz jantzi-tako gizakia saltoka eta zuzia eskue-tan astintzen ikusi zutenean. 1709ko maiatzaren 2an, azkenean, Alexander Selkirkek lau urtez kartzela izan zuen uhartetik bizirik irtetea lortu zuen.

Oraindik urte batzuk eman behar izan zituen itsasoan, 1717an etxera, Eskoziara, itzuli arte. Marinelak uhartetik ihes egitea lortu arren, uharteak ez zion sekula ihes egin; ez zen sekula zibilizaziora berregokitu. Hala, sarri etxe inguruko muino bateko kobazulora alde egiten zuen, hainbeste gorroto izan zuen bakardadea-bila.

1721an hil zen, Daniel Defoe beraren bizipenetan oinarritutako *Robinson Crusoe* argitaratu eta bi urtera. Lau urteko lazeria Selkirkek jasan behar izan zuen, baina loria Rusoe fikziozko bikiarentzat izan zen.

MICHEL PASTOUREAU Erdi Aroko historian aditua gai bitxia jorratzen ari da: koloreen historia. Bere azken liburuak urdina du hizpide (*Bleu, histoire d'une couleur* jatorrizko bertsioa eta *Azul: historia de un color* kaleratu berri den gaztele-razko itzulpena).

Greziarrek eta erromatarrek urdina baztertu egin zuten barbaroen koloretzat zutelako. Eliza katolikoak ere ez zituen luzaroan begi onez ikusi kolore biziak. Baina XIII. mendean urdinak Chartreseko katedraleko beiraterietan eztanda egin zuen (argazkian) eta Europako gorteak, batez ere Frantziakoa, kolore hau jantzietan eta ikurretan erabiltzen hasi ziren.

Egun, urdina europarren %50 baino gehiagoren kolore kuttuna da. Eta Pastoureau-aren ikerlanek elementu txikiak ere historia osatzen dutela erakusten dute.



FR.ACADEMIC.RU



Jaialdi 2010

35.000 lagun dantzan, euskaldunen Far Westean

Bi aste barru egingo da Boisen euskal diasporako ekitaldi jendetsuena, Jaialdi. Bost urtean behin egiten da ospakizuna eta 2005eko edizioan 32.000 kroketa zerbitzatu ziren. Baina Jaialdi ez da krocketak eta dantzak bakarrik, hiltzen ari den AEBetako euskal komunitateari arnasa ematen dion festa berezia baizik.

URKO APAOLAZA

DAVE EIGUREN Jaialdiko zuzendaria pozik agertu zen duela bost urteko edizioaren ostean *Euskal Etxeak* aldizkariari eskainitako elkarriketan: “Gauzak ondo egiten ari garenaren sentzazioa dugu (...) Jaialdi etengabe antolatzen den zerbait da. Bihar bertan hasiko gara hurrengorako lanean”. Ez da harritzekoa Eigurenen poza, inoiz baino jende gehiago bildu zen 2005ean, 35.000 inguru. Boiseko Euzkaldunak Inc. elkarteak hamahiru laguneko lan taldearen eta 900 bolondresen zereginari esker, arrakastatsua suertatu zen diasporako euskal festa handie-

na, 1987an sortu zenetik izan duen goranzko joerari eutsiz.

Beraz, lanean jardun dira urte hauetan, eta seigarren edizioaren egitaraua pronto dute. Uztailaren 27an egingo diote Jaialdiri ongi etorria *Basque Blocken*, euskal jatetxe ugari, euskal etxea, museoa, frontoia, euskal kultur taldeen egoitzak, merkatua... biltzen dituen koadroa. Hura da AEBetako euskal komunitatearen zentro neuralgikoa, nolabait. Jakiak eta edariak izango dira bertan, musika eta dantza, aspaldiko lagunak eta berriketa... Hurrengo egunetan ekitaldi ugari burutuko

dute. Bat nabarmentzearren, *Festara* emanaldia aipa liteke: Euskal Herri-tik joandako bi dantza talde, jadanik ibilbide luzea duen Boiseko Oinkari dantza taldeak, bertsolariak eta Trey McIntyre Proyect balleta ikusteko parada izango da. Azkeneko hau Boiseko kultur enbaxadore prestigio-
soa da, lan horretarako subentzionatu zuen David Bieter alkateak, eta euskal kulturarekin erlazionaturiko koreografia prestatu du Jaialdin estreinatzeko. Boiseko udalak kalkulatu duenez, kultur ekitaldietan inbertitzen den dolar bakoitzeko zazpi dolar jasotzen ditu



JON C. HODGSON



JON C. HODGSON



JON C. HODGSON

Jaialdi 2005eko hainbat irudi. JonQ.com webgunean sorta ederra aurki liteke.

hiriak bueltan, eta Jaialdi bezalako ospakizunen inpaktu ekonomikoa oso handia da —aurtengo edizioan 50.000 pertsona erakartzeko erronka omen dute, 200.000 biztanle inguru dituen hirira—. Jaialdi 2010eko esponsorren artean enpresa ezagunak daude: OficceMax, Budweiser, KeyBank...

Ospakizuneko beste zita garrantzitsua *Fairgrounds* edo feria gunean izaten da. Dantzari mordoa bilduko da aurtien bertan, Mendebaldeko sei estatutatik etorritako 36 dantza talde, hain zuzen.

Interneteko sare sozialak oso baliagarri suertatzen ari dira Jaialdi promozionatzeko. Esaterako, festa hiriko esparru askotara zabalduko da, eta Euskalkazeta.com webguneak leku horiek kokatzeko mapa interaktiboa sortu du Google-n. Bertan azaltzen dira ospakizunak, jatetxeak eta hotelak. Antolakuntzak prezio bereziak hitzartu ditu zenbait hotelekin, eta horietako

askotan lekuri ez da geratzen jadanik. Bestalde, Twitterren eta Facebooken ere ari dira Jaialdi zabaltzen, eta bertara joango direnen iritziak irakur daitezke: “Zer duzu gogokoen Jaialditik?” dio eztabaidaguneko galderak: “Nire kultura euskaldunak ez diren lagunekin ospatzea, guztiek nahi dute izan euskaldun, kosta ala kostal!” dio Heatherek; “Momenturik emozionanteena izan zen ikustea nola nire aitak topo egin zuen haurra zeneko lagun batekin” Janetek; “Jaialditik gehien gustatzen zaidana da Euzkadiko lagunak ikusi eta lagun berriak ezagutzea. Ezin dute gehiago itxaron!” Anniek; “Dantza egin, abestu, jan eta edan!” egiten du garrasi Dianek.

Jaialdik euskal diasporaren ekintzak finantzatzeko balio du, Boiseko ikastola edo Udaleku, tartean

Jaialdiren eginkizuna

Jaialdi kalimotxoa baina zer bait gehiago da ordea, AEBetako euskaldunei balio baitie beren nortasuna agertarazteko: “Talde etniko asko dagoen herrialdeak dira *host country* horiek, eta besteengandik bereizi beharra dago. Zein da biderik errazena? Kultur adierazpide bisualak erabiltzea, erraz ikusteko modukoak”, idatzi du *Euskonens* Benan Oregi Eusko Jaurlaritzako diaspora gaietako teknikariak.

Diasporan, euskal nortasuna mantentzeko, dantza eta gisa bereko espresioei heldu zaie. Ez hainbeste euskarari. Erreportaje honetako hurrengo orrialdeetan Miel A. Elustondok adierazi bezala, Nevada, Idaho, Kalifornia eta beste zenbait lekutako lehen belaunaldiko euskal hiztunak hiltzen ari dira azken urteetan barra-barra: “Zerrenda handiago osatzen dute hildako euskaldunek, bizi direnek baino AEBetako Mendebalde honetan” dio Elustondok.

Hala ere, saiatzen ari dira gazteenek euskara ikas dezaten. Gloria Totoricagüena adituaren arabera, Jaialdi bakoitzaren ondoren, Euzkaldunak Incorporated euskal etxeak bazkide berri ugari izaten ditu —egun 800 inguru dira—, eta ospakizunak AEBetako euskal komunitatearen ekintzak finantzatzeko balio du; tartean daude Boiseko ikastola eta Udaleku proiektua, besteak beste haurren euskalduntzea bultzatzeko sortuak.

Lehen Jaialdiren asmoa zen “holiday festival” bakarra egitea San Ignazio egunarekin. Miren Artiach, Idahoko Estatu Idazkari Pete Cennarusaren idazkaria, aritu zen hasiera hartan antolatzen. Bere esanetan helburua zen euskal nortasuna —“harrotasuna”— Boiseko gainerako herritarrekin partekatzea. Ondoren, 1990ean, Idahoko Estatuaren lehen mendeurrena zela-eta, Gobernadoreak euskaldunei beste Jaialdi bat ospatzeko eskatu zien, eta hala egin zen. Harrera ederra izan zuen bigarren edizioak eta bost urtetik behin egingo zela erabaki zen. Pixkanaka sona hartu duen ekitaldia izan da, bai Idahon eta baita nazioartean ere.


'Begi bistan gordeta': Ellis iriatik Boiseko Jaialdira

Begi bistan gordeta: horrela egon gara urte luzez euskaldunak AEBetan eta izenburu horren pean aurkeztu zen New Yorkeko Ellis Irlan euskaldunen inguruko erakusketa. Boiseko Basque Museum eta Cultural Center-ak, Idaho Humanities Council eta Eusko Jaurilaritzak, besteak beste, antolatu dute erakusketa hau Ellis Irlako immigrazio museoan, eta orain Jaialdira eramango dute, Boiserara.

Ellis Irla New Yorkeko ikonorik famatuena ondoan dago. Hainbat herrialdeetatik itsasontziz luze bidaiatutakoek gogotsu ikusiko zuten amestutako Statue of Liberty. Joandako askok bilatzen zuten *American Dream* eta batzuek amets hau betetzea lortu zuten; beste batzuek aldiz emigratio frogak eta tramiteak pasatu ez, eta atsekabetuta berriz bueltatu behar izan zuten jaio-terrirra. Horrelako bizipenak izan zituzten Euskal Herri- tik joandako askok ere. Ellis Irla erakusketa honetarako espazio estrategikoa izan da. Alde batetik, urtero bertar- ratzen diren milaka bisitariengatik. Bestaldekik, AEBeta- ra 1892-1954 bitartean joan zirenek bertatik pasatu behar izaten zutelako beraien ametsak betetzeko auke- ra izan aurretik.

Ellis Irlako frogak pasatakoek egin zuten, beraz, AEBetako Euskal Herriko historia. Askok Mendebalde- rantz jo zuten trenez. Batzuk Kaliforniara joan ziren, beste batzuk Idahora eta Nevadara, eta badaude Ore- gon eta Washingtonera joandakoak ere, besteak beste. Erakusketan, besteak beste, AEBetako politikariak, bitxikeriak, dantzak, euskal hotelak, pilota, artzantza, euskaldunen iragana Ameriketan... izan dituzte hizpide. Bestalde, ikus-entzunezko euskarrien bidez euskaldu- nek AEBetako paisaia izandako eragina jaso da: eus- kal motelen seinaleak edota euskal izenak daramatza- ten auto-matrikulak, esate baterako.

Erakusketak aurpegia eta izen-abizenak ipini dizkie AEBetara joandako milaka pertsoneri. Gogor lan eginda



M. MADINABEITIA

104 urteko Luciana Aboitizen ongi etorria erakusketara.

gero, lur berrian erein zuten hazia. Orain, hurrengo belaunaldikoen esku dago beraien aitona-amonen hazia ernaltzea. Horretan ari dira, adibidez, Jaialdi anto- latzen buru-belarri dihardutenak; eta ahalegin horren eredu dira baita ere erakusketan aipatzen diren Boise- ko Ikastola, North American Basque Organization, Bas- que Museum & Cultural Center, Boise State University- ko Basque Studies Program edota Reno Unibertsitateko Center for Basque Studies. Ellis Irlako erakusketa ez da oso handia izan, baina bai esangura- tsua. Berau ikusterik izan ez dutenek, badute oraindik aukera. Erakusketaren zati bat Boiseko 2010eko Jaial- din izango da. Ondoren, irailetik aurrera, bertako euskal museoan egongo da gure historiaren testigantza lana egiteko asmoz.

Monika Madinabeitia

argia.com helbidean erakusketaren edukiei buruzko argibi- de gehiago dituzu, artikulua bertsio luzean.

Patxi Lopez lehendakaria euskal diasporaren aurrean lehen aldiz

Aurreko Jaialditan bezala, aurtan ere makina bat lagun hurbilduko da Boiserara Euskal Herri- tik, nola dan- tza talde, bertsolari, herri kirolari edota musikariak, hala oporretan doazen bidaiariak. Politikari eta ordezkari instituzionalak ere ez dira faltako Jaialdin.

Antolakuntzak Patxi Lopez lehen- dakaria gonbidatu du, eta azken orduko ustekaberik ez badago, han izango dela konfirmatu du. Albisteak interesa piztu du, lehendakari izenda- tu zutenetik ez baitu diasporara iaze- ra horretako bisitarik egin. Lopezen Gobernuak errezelo handia aurkitu

du Ibarretxek asko zaindu zuen Amerikako euskal kolektibitatean, eta Idahoko bidaia hori "benetako proba" bezala ulertu du askok. Hori gutxi balitz, duela aste batzuk polemika piztu zen, Bizkaiko Ahal- dun Nagusi Jose Luis Bilbao (EAJ) Jaial- dirara bere kabuz joango dela jakin zenean. Aldunditik adierazi dute Bil- baoren bidaia aurrez prestatuta zego- ela, baina sozialistek lehendakariari

**Euzkaldunak Inc.-eko
arduradunek diote hura
ekitaldi kulturala dela, eta
ez dute zalapartarik espero**

"itzala egiteko" estrategia ikusi dute atzean. Gipuzkoako Aldundiko kanpo harremanetarako diputatu Iñaki Galdos (H1!) ere bertan izango da, beste delegazio batekin.

Idaho Statesman Boiseko erreferen- tziatzko egunkariak artikulua plazara- tu zuen "Politikak muturra sar deza- ke Jaialdin" izenburupean. Artikuluan, Euzkadunak Inc.-eko arduradunek diote hura ez dela "eki- taldi politikoa", kulturala baizik, eta ez dute inolako zalapartarik egotea espero. Euskal jatorriko Idahoko politikari ezagunak ere iritzi bereko- ak dira: "Gehiengoak kultura ospatu eta gozatu nahi du, besterik gabe", dio John Bieter, alkatearen anaia.

Heriotza Renon

Gero eta gutxiago dira lehen belaunaldiko euskaldunak bizirik AEBetan.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

HILABETE DARAMA HETSIRIK Renotik ekarri dudun gutunazalak. Badakit zer dudun zain bertan. Hildakoen oroitzapen mingarria. Hildako gehiegi denbora gutxian. Biziak hila du zor, jakinekoea da erranairua. Hori bezain topikoa ez, Orixek idatzia, William A. Douglassen *Death in Murelaga* liburu azal guttiz beltzaren gaztelaniazko bertsoari Eduardo Estrade itzultzaileak ezarri ziona: *Jaio nintzen hiltzeko / denbora oroz noa hiltzen / hildakoean erabat / hasiko naiz bizitzén*. Bertsoaren ederragatik ere, kontsolagarri eskasa.

Heriotza usaina dakart Renotik, heriotza herriko Zazpiak Bat euskal klubaren buletinean. "Damu gara hainbat euskaldunen heriotzaren berri eman beharra. Gure doluminak hildakoen senide eta lagunei". Hila da Alvida "Al" Josephine Hafford, Mary Barnetche eta Urbano Pedroarena Pete Arena euskaldunen alaba. Hila da Lola B. Olaciregui. Hila, Lolaren neba Ray Barainca. Hila, Peter Dominique *Mick* Laxalt. Hila Raymond Gabica. Hila Joseph *Joe* Mendive. Hila, Bruce Laxalt... Horiek denak aurtengo udaberrian joanak, berrikitan hilak, baina aski izan duzu telefonoa hartu, adiskide zaharrei deiadarra jo eta berehala jakiteko. Inazio Olarreagak esan dizu: "Bai. Asko hil dira denbora gutxian. Eta Frantzisko Aranda, hil zen gizajoa. Gure laguna. Eta Ramon Jaioaren anaia ere hil dela entzun dut. Luis Jaio. Euskaldunak, hildako asko izan dira Renon oso denbora gutxian". Gero zer etorriko den, kezka. "Oraingo euskaldunak hiltzen direnean, akabo! Gazteek ez dute interesik". Xanti Basterretxeak



AEBetako Mendebaldeko euskaldun baten hilarria.

ez du besterik esango. "Txato Gerrikabeitia? Hil zen. Hortaz, jakin duzu Ramonen anaia ere lurperatu duguna... Hemen euskaldunak bagoaz".

Eta hartu autoa eta ihes egin diozu Renori. Ihes heriotzari, Bagdadeko merkataria gogoan harturik. Hegoalderantz jo duzu, Minden-Gardnervillera. Nevadan oraindik, baina Kaliforniako mugari buruz. Han, Juan Leonisen heriotzaren berri eman dizute biziek.

**Jo duzu kax-kax. Inor ez...
Jo duzu hilerrira, badakizu
han euskaldunak beti
dituzuna zain,
bakardadean, haizearen
hegaletan espiritu**

Eta hartu autoa eta ipar-ekialdera abiatu zara orduan, Reno saihetsetik iragan eta Winnemuccarantz. Bertan, hila da Migel Olano. Jerry Etcheverryk esan dizu, bigarren belaunaldiko euskaradunak. Badu jakituria, badu ezagutza. Winnemucca eta herriko euskaldunak bertatik bertara ezagutzen ditu. "Dozena erdi dira lehenbiziko generazioko euskaldunak Winnemuccan. Sei. Joanak dira gainerako guztiak". Eta izendatu ere dizkizu banan-banan jaso ez duzun elkarrizketa informalean. "Pete Salla, Nekane, Estanis, Isidro... Sei".


Eta hartu autoa eta heriotzari ihesi oraindik, Winnemuccatik iparralderago. Iragan duzu Orovadako *Basque Blvd* bide-seinalea McDermitt herrira bidean. Iragan dituzu Lasa eta Albisu kale izenak McDermitt sarreran.

Hain zuzen, Albisutar baten etxea duzu jomuga. Orain dela lau urte ageri zuen amerikar banderarik ez du erakusten. Ilintia da abertzetasunaren sua, non-bait... Jo duzu kax-kax. Inor ez bertan. Jo duzu ezagutzen duzun beste euskaldun baten etxea. Atariko belarretan, ohol zurian beltz: *130 Basque Home*. Ate gainean, *Alcorta's* zenuen duela bost urte; joana da hori ere. Jo duzu, dena den. Inor ez, isiltasuna besterik. Jo duzu Etchart. Inor ez. Jo duzu... Jo duzu hilerrira, badakizu han euskaldunak beti dituzuna zain, bakardadean, haizearen hegaletan espiritu... Hala ere, ez ohiko mugimendua McDermitteko hilerrian. Langileak, hura apain dotoretzen. *Memorial Day* dute laster, hildakoen eguna. Bizirik ez duzu euskaldunik ikusi. Hildakoekin ari zara, hilobien argazkiak bata bestearen ondoren egiten. Lasa, Albisu, Jaca, Arruti, Echave, Bengochea, Ruiz, Yraguen, Babiola, Achaval, Ansotegui, Alcorta, Arrien...

—Senideren baten bila?
—diost langile koadrila zuzentzen duen adinekoak.

—Euskaldunen bila!

—O, ikusten dut! Mordoxka duzu hilerri alderdi honetan... Bernardo Alcorta, diozu? Iaz hil zen. Arbolape hartan duzu ehortzirik, hilarria jarri gabe oraindik. Andrea ez, andrea bizirik da. Gorraizeak jota dago eta horregatik ez zizun irekiko. Adin handikoa bai, baina bizirik... John Albisu? Winnemuccara joan direla uste



Goitik behera: alcortatarren etxea, McDermitt-en; Bernardo Alcortaren hilobiko behin-behineko idazkuna; George Wilkinson, euskaldun hilen eta bizien berriematea.

dut, sendagilearenena. Bizi da hura ere. Anaia hil zitzaion, Jim. Gaitzak hartu zuen, minbizi suete batek, eta airean joan zen. Ez duzu haren hilotarik ez aztarnarik hemen, hilerrian.

Erre zuten eta mendi magalean haizatu zituzten haren errautsak. Haiek denak ezagutu nituen, haiekin joan nintzen eskolara, hemen, McDermitten. Jende ona. Oraindik badituzu batzuk hemen, baina ez garai batean bezainbeste. Ez gara betiko. Hil ziren...

—Nola duzu izena?

—George Wilkinson, beste alderdi horretan dituzu nire senideak lurpean —eta euskaldun gehiagoren aztarna eman dizu, hilak batzuk, biziak beste batzuk.

Ezbairik gabe, askoz ere zerrenda handiagoa osatzen dizute hildako euskaldunek, bizi direnek baino AEBetako Mendebalde honetan. Kalifornian, Nevadan, Idahon, Wyomingeko herrietan, badoaz lehen belau-naldiko euskaldunak. 1975ekoa bide da Renon denik eta lehenbiziko generazioko azken euskalduna. Juan Braña aizkolaria da. Eraikuntzan bertan ere, Nevadan hainbat eta hainbat euskaldunek jardun dute lanbidean bertan ere, bakarra da. Erretiraturik bizi dira gainerako guztiak.

Kito da aspaldi immigrazioa. Ez dago euskaldun berririk, *Jaialdi* eta gisako festaren hotsetara bazter hartara jotzen duen bisitari turista besterik.

Mundu baten akabua. Bestelako baten hasiera, itzulerarik gabeko bidean. ■

argia.c helbidean diaporama ikus dezakezu, Miel A. Elustondok AEBetako Mendebaldera egindako bidaiei irudiekin.

ZIO
ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.



gure artean euskaraz

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

BFA DFB
Bizkaia Foru Aldundia
Deputación Foral de Bizkaia

BIZKAIA BIZIA

Mintzapraktika udan

Txirrindulariak...
eta euskara ikasleak

Bi gurpilen gainean, oinez mendiz mendi edota baserrietan. Udan ikasgeletatik kanpo euskara praktikatzeko hiru aukera hemen: AEK-k antolaturiko bi barnetegi ibiltariak eta Topaguneak eta EHNE Nekazarien Elkarteak antolaturiko mintzapraktika baserrietan.

SAIOA LABAKA

AEK-K UTZIA

OPOR EGUNEI ahalik eta zuku gehien ateratzea ohikoa izaten da. Zentzu honetan euskara eta atsedeen egunak lotzeko eskaintza egin du aurten ere AEK-k. Ikasturte osoan euskaltegian ikasitakoa praktikan jartzeaz gain, mendian eta bizikletan ibiltzea gustuko duenak behintzat, bi gauzak batera egiteko parada izango du udan.

Aurten, lehen aldiz, oinezko barnetegi ibiltaria egiteko aukera eskaini du AEK-k. Uztailaren 3tik 18ra bitartean, Euskal Herria mendiz mendi zeharkatuko dute barnetegi ibiltari honetan. Urduñan emango diote hasiera ibilbideari eta 16 egun ibiliko dira tontorretik tontorrera –Gorbeia, Anboto, Aizkorri, Aralar, Saioa, Otxogorrigane eta abar–. Bestalde, Urduña, Otxandio, Leintz Gatzaga, Araia, Lekunberri, Urepele, Garralda eta Izaba herriak ere ezagutuko dituzte. Aisialdian euskara praktikatzeko gain, Euskal Herria ezagutzeko aukera ere izango dute



Pedalei eta mingainari, biei eragiten die euskara ikasleek AEK-k orain dela hamar urtetik hona uda oro antolatu duen barnetegi ibiltarian.

ikasleek; paisaiak, euskalkiak... Ibilbidean zehar bestelako ekintzak ere izango dituzte; esaterako, Otxandioko berbalagun taldearekin elkartuko dira euskaraz mintzatzeko, hitzaldi batean parte hartuko dute eta eurekin afalduko dute gero.

Joseba Irazabal egitasmoko arduradunak azaldu digunez, berehala osatu zen oinezko barnetegi ibiltari-rako taldea. Guztira, 22 dira taldean. Euskara maila ezberdinetako ikasleak badira ere, gehienek nahiko maila ona daukatela jakinarazi digu Irazabalek. Barnetegi honen helbu-

rua da norberak gustuko dituen ekintzak edota zaletasunak euskararen praktikarekin lotzea; aisialdia euskaraz bizitzeko aukera eskaintzea. Barnetegi hauetan ez dago eskolarik, euskaraz hitz egitea da kontua eta parte hartzaileei eskatzen zaien konpromiso bakarra da berau.

Hamar uda bizikletaz

2001eko udan antolatu zuten bizikletaz egiteko lehen barnetegi ibiltaria. Hamargarrena uztailaren 17tik 31ra egingo dute. Besteak beste, Otxandio, Opakua, Etxarri, Larraintzar, Lakabe, Irunberri, Izaba, Garralda, Urepele, Arantza eta Lekunberri herriak zeharkatuko dituzte. Hamar urtez geroztik ikasleen aldetik erantzun ona jaso izan dutela jakinarazi digu Joseba Irazabalek. Barnetegian jendea ezagutu eta lagunak egiteko aukera ere izaten da, eta aurreko urteetako ikasle batzuk elkarrekin joaten omen dira harrezkero oporretara. Hala, ikasle batzuen hizkuntza ohiturak aldatzea lortu da. Ikasteko sistema hau eraginkorra da hizkuntza barneratzeko eta ikasteko; lagungarria da zaletasun bereko jendearekin elkartu eta euskaraz hitz egin ahal izatea, Irazabalen abuzuz.

Orain dela bi urte parte hartu zuten Maite Palaciosok bizikletazko barnetegi ibiltarian. Bost urte daromatza Iruñeko IKA euskaltegian ikasten. Aurten, oinezko barnetegi ibiltarian eman du izena, barnetegia hasi baino egun batzuk lehenago hitz egin genuen berarekin. "Asko gustatzen zait mendian ibiltzea, eta euskara ikasten ari naizenez, aukera ona da barnetegia niretzat. Orain dela lau urte barnetegi arrunt batean egon nintzen. Oso ongi pasa nuen, baina hamabost egunetan goizero klaseak izan genituen eta arratsaldean hainbat ekitaldi, tailer

eta abar. Denbora libre gutxi genuen. Barnetegi ibiltarian parte hartu nuen orain bi urte, eta oso esperientzia ona izan zen. Alde batetik, barnetegira joango naiz, baina, beste aldetik, nire oporrak ere badira! Beraz, konbinazio oso ona da niretzat bi gauzak batera egin ahal izatea."

Euskaraz baserri giroan

Euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak halako ohiturarik ez dutenekin elkartzea da finean mintzapraktika programa. Euskaltegi-tako ikasleez gain, euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez duten euskaldun zaharrak, euren ingurunean euska-

"Barnetegi ibiltarian parte hartu nuen orain bi urte ere, eta oso esperientzia ona izan zen. Batetik, barnetegira joango naiz, baina, bestetik, nire oporrak ere badira!"

MAITE PALACIOS IKASLEA

raz hitz egiteko aukerarik ez duten pertsonak eta abar dira Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak eta EHNE Euskal Herriko Nekazarien Elkarteak antolaturiko egitasmoaren hartzaileak.

Aisialdia eta euskara uztartu asmoz, lehen aldiz antolatu dute bi elkarteek mintzapraktika egitasmoa. EHNEk badu proiektu bat baserritarrei aisialdirako aukerak eskaintzera bideratua. Horrela, baserritarrek udan aisialdirako tarte gehiago izan dezaten, boluntario gisa baserrian lan egiteko pertsonak bilatzea aukera ona dela pentsatu zuten. Topaguneak baserri giroa ezagutzeko prest dauden bolunta-

rioak topatzeko ardura hartu du. Horiek, baserriko egunerokotasuna ezagutzeko eta bertan lan egitearen truke, euskaraz bizi diren baserritarrek euskaraz praktikatzeko aukera daukate. Topagunearentzat euskararen erabilerari begira, proiektu pilotua da.

Uda honetan euskara praktikatu nahi dutenek, Bizkaian (Busturialdean eta Mungialdean) dauden hamazazpi baserrian izango dute horretarako aukera. Programa uztaila, abuztua eta irailean jarriko da abian. Baserritarrek euskaraz bizitzeko aukera eskainiko diote ikasleari, baserriko lanetan laguntzearen truke. Baserrietan lanean hasi aurretik, EHNEk formazio saio xumea eskaini zien parte hartzaileei uztailaren 8an, baserriko lanaren oinarri-oinarrizko tekniken berri izan dezaten. Ondoren, parte hartzaile bakoitza baserriko kideekin harremanetan jarriko da elkar ezagutzeko.

Topaguneko kideek jakinarazi digutenez, proiektuak interesa piztu du. 50 pertsona baino gehiagok eman du izena egitasmoan. Ezingo dute denek parte hartu, ordea, hamazazpi baserri dituztela aintzat hartuz. Aurrera begira landu daitekeen ildo delarik iruditzen zaio Topaguneari. Egitasmoaren metodologia hitz egitea da, besterik ez. Euskara praktikatzeko beharra duenarentzat aberasgarria da hitz egitea, hizkuntzarekin gero eta erosoago sentitzeko.


Egitasmoaren iraupena eta parte hartzea norberaren aukeren arabera da: aldi bateko egonaldian, egun zehatzetan, orduko egutegian, goizez edo arratsaldean baino ez... Antolatzaila programan parte hartu nahi duten guztiek horretarako aukera izatea nahi dute, eta hori dela eta proposamena ahalik eta malguena egin nahi izan dute. ■

Babeslea: IVAP

"IVAPen misioa da Euskadiko Herri Administrazioetako pertsonak eta antolakuntza hobetzea, administrazio eraginkorragoa, efizienteagoa eta elbiduna lortzeko asmoarekin, eta zerbitzu publikoko zenbait balio komun oinarri hartuta. Horretarako, honako hauek egingo ditu:



- Euskadiko Herri Administrazioen zerbitzura dauden langileei etengabeko prestakuntza eman eta langileak hautatu.
- Euskararen erabilera administrazioan normalizatu dadin sustatu.
- Itzulpen ofizialak eta lege- eta administrazio-erloto euskarazko terminologia.
- Hizkuntzari, legegari eta antolamenduari buruzko aholkularitza, eta antolaketa eta kudeaketaren inguruko ikerkuntza."



Kazetaritza lehiaketa Doberak antolatuta

HERNANIKO (GIPUZKOA) Dobera euskara elkarteak bi urtez behin Dobera Saria antolatzen du. Aurten elkarteak argitaratzen duen *Hernaniko Kronika* egunkariak hamar urte betetzen dituen, kazetaritza lehiaketa antolatu dute. Lanik onenak 2.000 euro jasoko ditu. Urriaren 8a baino lehen erreportaje bat aurkeztu beharko da eta beste bederatzi erreportajeren zirriborroak. Saria irabazten duenak Hernanirekin lotura duten hamar erreportajeak egin beharko ditu. Informazio gehiago: www.dobera.com-en.

Osakidetzako mahaitik altxata

JATORDUA bukatu baino lehen mahaitik jaikiz gero guraso gehienek arreta deitzen diote haurrei. Manerek garrantzia dute sabela betetzeko bildutako mahaian, eta are gehiago bes-telakoetan. Osakidetzako euskara batzordeak hiru urte zeramatzan bildu gabe eta lehen bilkuran Esteban Ruiz Giza Baliabideetako zuzendariak zuzendariordea bidali zuen bilerara. Azken horrek, arrazoiak arrazoi, bilera hasi eta laster alde egin zuen. Euskararekiko manera horiek ez ziren sindikatuen gustukoak izan eta denek bilera etetea erabaki zuten.

BAHEA

Txerra Rodriguezek, Garaigoikoa blogean, Juan Inazio Hartsuagaren *Euskararen egoerari irizten* liburuari heldu dio eta *Euskarari lotzeko balio sorta zaharberritzen* izenburupean liburuko hainbat proposamen jaso du:

–“Kito arbasoekin. Hitz egin dezagun eteten ez den kateaz. Kanpotik etorritakoak ezin ditu hemengo arbasoak izan. Areago, hemengo arbasoen kontu horrek ez du batere laguntzen haren euskararekiko identifikazioa sendotzen.

–Kito hizkuntza zaharrenaren kontuarekin. Euskararen meritua ez da besteak baino zaharrago izatea (...). Euskara iraupen adibide paregabea da. Aspaldian Eurasian zabaldu eta nagusitu zen hizkuntza familia bateko oinordeko bakarra Europan. Hizkuntza indoeuropar hedazaleek inguratutik ia 3.000 urtez bizirik irautea asmatu duen tradizio militar edo hedazalerik gabeko herri baten hizkuntza.

–Baserriko eredia gaintetik kendu ezinik gabiltza eta hori hizkuntza politikaren porrotaren adibide garbia da. 2009an Peru Abarka eta Maisu Juanen arabera gabiltza oraindik. Tolosako ikastolan umeren batek euskara egoki eta bizi erabiltzen duenean casherito deitzen diote”.

Ana Etxaide hizkuntzalariak *Eusko-news & Media* webgunean esanak: “Nafarroan inkestatu asko euskaldun sentitzen ziren, baina baziren euskaraz egin arren... euren buruak euskalduntzat hartzen ez zutenak ere, Pirinioetako zonaldean, batik bat. Nafarrak sentitzen ziren, eta kito. Hori 1968 aldean... Ordudanik sentimenduek norantz jo duten ez dakit”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Subiranotasun faltaren ondorioak

Egoera sozio-politikoak gure herriaren subiranotasun faltaren isla diren gertaerak, erabakiak eta ekimenak erakusten dizkigu egunero. Joan den astean bi gertakari azpimarragarri izan ziren ildo horretan. Lehena: ELA eta LAB sindikatuek haien ordezkaritza bertan behera utzi dute Osalanen, EAEn lan osasuna kudeatzen duen instituzioan. Abandonu horren arrazoiak anitzak dira, baina horietako bat da Osalanek uko egin ziola langileen kotizazioak hemen gestionatu eta banatu daitezela eskatzeari. Urtean 900 milioi euro inguru doaz Madrilera Hego Euskal Herriko langileen kotizazioarengatik. Bigarrena: Lakuko Gobernuak hitzarmena sinatu zuen Espainiako exekutiboarekin kanpaina turistiko bateratua aurrera eramateko *I need Spain* (Espainia behar dut) lelopean. PP eta PSEk salbu, gainerako alderdi eta elkarteek erabaki hori errefusatu dute subiranotasun faltarekin zerikusia duen hainbat arrazoiarengatik.

Lakuako Gobernuak dio bi sindikatuek Osalan utzi dutela “arrazoi politikoengatik”, eta “Espainia behar dut” leloarekin egingo den kanpaina turistiko bateratua kritikatzin dutenak direla “Euskadi Espainiatik deslotu” nahi dutenak. Beste arrazoiak laboral, ekonomiko eta sindikalez gain, jakina arrazoi politikoak daudela ELA eta LABek Osalan uzteko. Jakina, kanpaina turistiko bateratua kritikatzin dutenak, Euskadi Espainiatik deslotu nahi dutela. Osalanek egin beharreko bidea markatzen dutenak arrazoi politikoak diren bezala, edo Euskadi Espainiara lotzea inposatu nahi dutenak arrazoi politikoak dituzten bezala. Hala ere, badago diferentzia garbi bat. Abertzaleen mundua behin eta berriz ari da mahairatzen Herri honek libreki autodeterminatzeko beharra duela eta bere etorkizun politiko, ekonomiko, laboral, sozial eta kulturala erabaki beharra duela. Eta gaur, Espainiako, Parisiko, Lakuako eta Nafarroako Gobernuak dira hori galarazten dutenak. Gure subiranotasunaren alde borroka egitea eskubidea eta betebeharra da.

Juan Mari Arregi

Gero eta argiago... independentzia

ESPAINIA Munduko Koparen txapeldun izateak ez lituzke abertzaleon neuronak txarrera berotu behar, burua hotz mantenduz gero behintzat. Ospa dezatela lasai garaipena, udazkenean izango dutela —dugula— porroterako astirik. Gogoratzen? Lan erreforma, krisia...

Ospa dezatela bai, futbolaren ikuspegitik merezi izan dute eta.

Hara, irakurleak gogoratuko du euskal futbol selekzioaz gure espainiarrek "orgia abertzale" eta gisakoak idazten dituztenean, ezta?

Artean, euskal herritarrok ez dugu futbol selekziorik, baina argi jokatzu gero, Espainiaren aurkako gure partidu berezitik onura handiz atera gaitezke epe ertainean. Buru argiz, talde izaeraz eta griñarekin jokatzu gero, irabazi daiteke partidua. Eta pazientzia handiz, pazientzia itzelez arituz gero. Eta hori, ez munduko futbolari onenak ditugulako, erabaki eskubidearen aldeko euskal herritarren gehiengo zabala irabaz dezakegualako baizik.

Ez da txantxa, komunikabide espaniarrek beren futbol balentriak haizatu ahal izango dituzte, baina ezin beste errealtate garrantzitsuek ezabatu. Partida horretan, ekonomia da gure indarretakoa, ongizatea, bizimaila.

EH 2 - ESPAINIA 1. Hara datu gutxi batzuk —baina gura adina daude—. Langabezia: Espainian %21, Hego Euskal Herria %11. Barne Produktu Gordina biztanleko (2007): Euskal Herria 33.014 euro, AEB 38.800, Japonia 27.900, EB 24.900. Espainiako Estatuan BPG biztanleko handienak 2009an: EAE (30.703), Madril (30.029), Nafarroa (29.598), Katalunia (26.831), Espainia batez beste (22.000).



Gaindegia eta Espainiako INEtik hartu ditut datuok, eta nagusiki egungo ekonomia globalean erabiltzen diren adierazleak dira horiek. Gini koefizientea (aberastasunaren banaketa neurtzen du) edo Hatkinson indizea (errenta desberdintasuna) erabili izan banu justuagoa litza-tekeela badakit, baina hemen jasotakoek ere balio dute gure partidu berezi honen nondik norakoez ohartzeko. Gehiago nahi duenak jo dezala azken hiru urteetan Gaindegia-aren Urtekari interesgarrietara, eta mundu mailan euskal herritarrok dugun posizioaz are eta hobeto ohartuko da. Eta bide batez, gure ahulgune eta miseriez ere bai. San Ferminetako biharamonetarako ez dute balio datuok, baina akaso "La Roja"-ren garaipenaren ondorengorako bai.

Beraz, ikuspegi horretatik begiratuera, nork behar du Espainia?

KATALANEK ERE EZ BEDEREN, hori adierazi zuten uztailaren 10ean Bartzelonan bildutako milioi eta erdi pertsonak, Kataluniako populazioaren %20k. Tira, ohiko datu gerraz gain, Katalunian inoiz egin den manifestazio jendetsuenaren aurrean gaude eta ulertu behar zuenak ulertu zuen: "Independentzia!". Eta ulertu ez badu are eta okerrago. Omnium Culturaleko lehendakari Manuel Casalsek astelehenean *Deia*-ko elkarrizketan zioen legez, "herrial

deak dagoeneko ez dira ezkontza edo gerrekin egiten, herritarren borondatearekin baizik".

Omnium Cultural kultura katalanaren aldeko elkarte da, ez dago bere zereginetan halako manifestazioak antolatzea eta hala egin badu sentsibiltate ahalik eta gehien biltzeko izan da. Hara ikasgaia. Eta, hala ere, begira zer dioen

Casalsek lehen aipatutako elkarrizketan: "Desobedientzia, hori da Madrilgo Gobernuaren aurrean Kataluniako Gobernuari geratzen zaion bakarra". Gogoratzen Ibarretxe Plana? Eta kontsulta Legea? Aurrera egiteko bi aukera galdu abertzaleontzat. Eta are aukera argiagoa oraindik Lizarra-Garazikoa. Bai, badakit gatazkarena tartean zegoela, baina zorionez gatazka kontuak gero eta gutxiago dira hemen ere.

Orain, Kataluniako independentistek larunbatekoari zentzu politikoa nola eman pentsatu beharko dute. Helburua? Udazkeneko hauteskunde autonomikoetatik ateratako Legebiltzarrean independentzia aldarrikatzeko 68 eserleku biltzea. Inbidia ezta? Lanari lotu behar.

POLO BURUJABEZALEAK horixe adierazi zuen Donostian, haiek prest direla, eta ez dutela bidezidorrak behar: "Nazioa gara: autodeterminazioa". EAJk, Aralarrek eta H11-ek "Nazioa gara: guk erabakitzen dugu" adierazi zuten Bartzelonan. Hain desberdinak ote?

Non ote da gure Omnium Cultural? Seguruena hor da katalanen eta gure arteko desberdintasun handietako bat, Kataluniako politikari eta agintariak ohartzeko dira katalan kulturak herrigintzan duen zementu funtzioaz (ez nahastu "zementuaren kulturaz"). Hemen oraindik ez.

PELLO ZUBIRIA

Internet amets sortu zen eta Amazon bilakatu

Liburu txiki batek kontatu du Interneten bestelako historia bat, ezagutza partekatzeko ametsetik abiatuta nola garatu den oligopolio baten esku dagoen merkatu bilakatzeraino. Ia denok bezero gaituen Amazon konpainiaren izaera lekuko.

Hala ere, erresistentziak zutik dirau: oraino Interneten ameslariak asko ei dira, izan poeta edo pirata.

JOËL FAUCILHON *LEKTI-ÉCRITURE* guneko sortzaileetakoa da. Internetez erakutsi eta saltzen ditu liburuak www.lekti-écriture.com zerbitzuak baina irakurleari iritsarazten dizkio proiektuan sartuta dauden liburudenda independenteen bidez. Euskal Herriko editore askok seguru ezagutzen dutela paperean eta digitalean ari diren argitaletxeak elkartu dituen aukera hori.

Internet mundua ondo ezagutzen duen Faucilhonen orain liburu interesgarria plazaratu du: *Rêveurs, marchands et pirates. Que reste-t-il du rêve de l'Internet ?* (Ameslariak, komertziantek eta piratak. Zer geratzen da Internet ametsetik?). Sarean baldarki mugitzen garenok ulertzeko moduan izkiriaturatuko liburu txikiaren ia erdia dago libre irakurgai *Lekti-écriture* zerbitzuan.

“Ametsetik abiatu zen dena”, has ten da hitzaurrea. Karl Popper-ek aldarrikatutako “gizarte irekia” erdiesteko ametsetik. Ezagutzak, jakintzak eta kulturak denen esku egon behar zuten. Internet erne baino askoz lehenagotik McLuhan-ek amestua zuen 1962an: “Alde guztietatik iristen zaigu informazioa abiada bizian, abiada elektronikoan. Esan liteke mundua adinako herrixka bateko kide garena”.

Urte asko lehenago, Pierre Teilhard de Chardinek Vladimir Ivano-

vitch Vernadski-ri hartu bide zion “noosfera” kontzeptua, Lurra inguratu lukeen geruza mehe gisako bat giza kontzientzia guztiak biltzen dituen, humanitatea estali behar zuen pentsamenduzko esfera izugarri baten antzekoa.

Askoz aurreikuspen ezkorragoak egin zituen beste zenbaitek teknologiek jendeak askeago egiteaz, hala nola Herbert Marcuse-k edo Jacques Ellul-ek. 1950-1960ko hamarkadetan abisatzen zuten teknikak eta hauek zekartzaten baloreek ekar zitzaketela atzerakadak maila guztietan, gizartean, kulturen, politikan, ekonomian edo ekologian. Faucilhonen hitzetan, Internet ez da libratu arau horretatik eta merkatarien hegemoniaren arma bihurtu da.

“Urte gutxitan –idatzi du Faucilhonen– Internet bihurtu da medio masibo bat defendatzen dituen korporazio handi urri batzuen interesak, haiek Interneten aurkitu baitituzte ekonomia fisikoan oso nekez lortzeko moduko etekin kopuruak.” Google, Amazon eta enparauez ari da.

Faucilhonen kritika gogorra egiten die enpresa erraldoi horien egitura sozialei, deskribatuz “bazkide” eufemismoz izendatutako langileen artean dauden ezberdintasun beldurgarriak. Bestalde, konpainia erraldoi horiek herri ondasunak bereganatzen dituzte, sarea darabiltenek sortu

Hona Jeff Bezos, Amazon konpainiaren fundatzaile eta buruzagi nagusi. Argazkia Flickr zerbitzuan Etech sinatzen duen batek ipini du, 2005ean Kaliforniako San Diegon aterata, han eman zuen hitzaldi batean. Munduko jenderik dirudunenak zerrendatzen dituen *Forbes* aldizkariak 46 urteko gizona 43. postuan kokatu du 2010ean. 1994an sortu zuen Amazon banaketa konpainia, aurtun enplegu zuzenetan 24.300 langile dauzkana. 2009an ia 25.000 milioi dolarreko salmentak egin zituen mundu osoan, etekin garbieran 900 milioi gaindituz. Teknologia berriek sortu duten “ekonomia berria”ren ikurretakoa da Bezos. Interneteko bere inperioaren beste aurpegia 2008an Claire Newell kazetari ingelesak erakutsi zuen: Bedfordshiren Amazonek dituen biltegietan sartu zen lanera eta gero *The Sunday Times* egunkarian erakutsi nola bizi diren teoriarik enpresako bazkide diren behargin xumeak.

informazio guztia zurrupatzu eta publizitate gehienaren jabe eginez.

Ameslari guztiak suntsitu ote ditu megakorporazioen tirainak? Ez, askok atxikitzen du inperioaren aurrean. “Ezagutzak partekatzeak kulturen, gizartean edo politikan bide berriak irekiko dizkigun asmoa ez da desagertu Internetetik. Nola-bait esateko, babesa bilatu dute ‘pirata’ pribatuen komunitateetan. (...) Talde txikiak, infiltratzen zailak baina mundu osoan milioika internauta biltzen dituztenak”.

Faucilhonen “piraten ugarte” deitzen dituen hauek bazkideen emariz finantzatzen dira, kontra-kultura lantzen dute “aske” eta “partehartzaile” izan nahiaren ahalmen subertsiboa daukate. “Piraten ugarte” hauek gehiago urtea bukatu baino lehen idatziko ote digu ARGIAN Interneteko mugimenduez guk baino haboro dakien norbaitek.

Silicon Valley? Silicon Jungle!

Interneteko korporazioek ernarazi omen duen “ekonomia berria” –lan harreman berriak sortu izanaren fama duena– larrutzeko, Faucilhonen Amazon konpainia hartu du adibidetzat, barne ereduaren zenbait zertzelada erakutsiz.

Korporazio handietan maila batean daude edo marketingeko edo informatikako espezialistak. Hiru



atalez osatzen zaie soldata: hileroko jornal finkoa batetik, emaitzen araberakoa bestetik eta, konpainia burtsan kotizatzen denean, atzeratutako irabaziak, *stock options* famatuak. Denetara jota, plataformaren garapenean ari den ingeniari batek urtean 80.000-120.000 dolar irabazi ditzake, berdin finantzetaiko analistak.

Dirutza horien distira salduz, Jeff Bezos Amazonen fundatzaileagan haragiztatu izan dute ekonomia berria. Amazonek, ofizialki, ez dauka langilerik, bazkideak baizik. *Mister Nice Guy* (Jatorra Jauna) izendatu zuen prentsak Bezos. Aldiz, Faucilonek dioenez “askoz gutxiago aipatzen da *iceberg* erraldoiari ikusten ez zaion atala, banaketarena”.

2008an Claire Newell kazetariak

lortu zuen Ingalaterrako Bedfordshiren Amazonek dauzkan biltegi erraldoietan kontratatu zezaten. Han bizitutakoa *Sunday Times*en plazaratu zuen Newellek, zalaparta eraginez.

Lan erritmo beldurgarrietan ari dira biltegietako beharginak, ugazabek ezarri dizkietelarik erdietsi ezinezko helburuak, kapataz zorrotzen kontrolpean eta bideozaintzaz ikuskatuak. Orduko 7,5 euro pagatzen zaie. Lantokia hurbileneko herritik 22 kilometrotara dago, bidaia norberaren gain.

Zortzi orduko lanaldian bi eten dauzkate ordu laurdeneakoak. Asteaz bost eguneko lanaz gain larunbatetik iganderako “gaupasa” behartua. Kontratuarekin seina puntu ematen dizkie konpainiak; lanera ez zatozen

aldi bakoitzeko puntu bat gutxiago, berdin medikuaren zertifikatua baldin badakarzu. Seigarren puntua galdu duzunean, kale gorrira.

Ingalaterrako biltegien baldintza horietan ari diren obrero gehienak etorkinak dira, Eki Europakoak bidenabar. Hor ez da sindikaturik sartzen. Ezta mailaz gorago dauden koadroen artean ere. Zertarako, haiek ere nagusiak dira eta...

Amerikako Estatu Batuetan Seattle hirian daukan lantoki nagusian 2000ko krisia baliatu zuen Amazonek garbiketa egiteko, mugimendu sindikala lehen urratsak ematen hasia zelako. Zerbitzu asko deslokalizatzea erabakita, batik bat Indiara, enpresak kaleratutako 1.300 langileetatik 850 Seattlen ari ziren. Geroztik ez du inork sindikaturik aipatzen AEBetako Amazonen.

Frantzian, 2008ko maiatzean Bordeauxko biltegiako 100 langile hasi ziren greban. 10 egun iraun zuten.

Mundu guztian funtzionatzen du antzera. “Silicon Harana Silicon Oihana dute bilakatu”. Lan baldintza latzak, soldata kaxkarrak, zaborrezko kontratuak, eskubide sozial eta sindikalen ahultzea: Interneteko merkataritza da sektore ekonomiko oso kontzentratua, funtsean mundu mailako korporazio handi bakan batzuek mugiarazten dutena. Firma handiok kosta ahala kosta eskulana merketu nahi dute aldi berean lan bolumena handituz.

Helburu horretan lagungarri daukate biltegi handietako langileen isolamendua, hauek hiriguneetatik baztertuta daudelarik, herritarren oharkabea, komunikabideen arretatik urrun. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Txillardegi

Zezen hilketa erraldoien garaia

Heldu da, bai. Gure herrietako jaietan, Espainiako herrietan bezala, zezenak chunka hiltzeko garaia da. Horra hor, oraindik ere XXI. mende hasiera honetan Fiesta Nacional delakoaren odol zerga zezenek ordaindu beharra. Eta gu orpoz orpo jarraitzen gaitzazkie espainiarrei. Baina badantzut: espainiar Fiesta Nacionala gurea ere badela aspaldidanik, zeharo errotua dagoela, eta gure herrietan erauzi nahia, alfer lana dela. Eta benetako Fronte Tauromakiko bat osatu duten PNV, PSOE eta PP alderdiek, zezenketei nola edo hala eusten diete.

Gipuzkoako Batzar Nagusietan, ekain honetantxe, PNV, PSOE eta PPren botoari esker, zezenketen abolizioaren aldeko mozioa gaitzetsi zuten. Bapol Areago. Zezenketak debekatzeko saio guztien kontra altxatzen dira hirurak ideia bera hozitzen hasi baino lehenago. “Tortura ez da kultura” aldarrikatzen dugu guk, astakeria hori, krudelkeria hori, tortura hori, geure zezen-plazetatik uxatu nahi dugulako. Baina gure arteko eta Espainiako taurofiloak baturik, kezkatutik, oihuka hasten dira: “¿Cómo, unas fiestas sin corridas? Pues sólo nos falta eso!”. Eta Donostiako Ilunbez oroitzuz, zezen-plaza izaerari utzi, eta kirol eremu publikoa bihurtzeko asmo egokiari “errealismo falta” egotzi diote. Eta kito.

Kataluinaren ekinbidera hurbiltzeko eskatzen dugu guk, eta “rito sacrificial” higuinarritik aldentzeko; baina Fronte Tauromakiko espainiar hirukoitzak baradera eta traba guztiak ipintzen ditu zezen hilketari harro-harro eusteko. Katalunia osoan jadanik Bartzelonako La Monumental plaza gelditzen da bakarrik korridak eskaintzen (18 zezenketa 2008 urtean). Eta Katalunian protesten uhina azkartuz doa: 180.000 sinadura bildurik aste gutxitan zezenketak erabat ezeztatuko.

Alta, hemen ez. Hemen, 2008 horretantxe, 44 zezenketa burutu ziren, eta 357 zezen izan ziren heriotzaraino torturatuak. Izerdia, keru kiratsa, pasodobleak eta *olé* ozenek lagunduta. Noski! Gurean, artean, Francisco Lópezek berriki, abolizioa eskatzen



DANI BLANCO

zutenei erantzunez, hau esan zuen: “*El interés de nuestro gobierno es garantizar que ese espectáculo pueda ofrecerse en Euzkadi, como ha sido hasta ahora, en el respeto y con absoluta normalidad*” (2010eko maiatzaren 7an).

1931n (*O tempora o mores!*) PNVren Sabin Etxeak bere barne araudian hau agindu zuen: zezenketetan parte hartuko zuten bazkideak oro, elkartetik botako zituztela. Iñaki Azkuna hiper-zezenketazaleak, zer dio honetaz? Eta Miguel Sanzek zer? Gora zezenketak! Eta badaezpada zezenen hilketak Nafarroako “*patrimonio cultural*” izendatu ditu. Sanz eta López, eskuz esku, “*du pareil au même*” baitira.

Egun hauetan, Saramagoren heriotzak eta Pessoaaren oroitzapenak Portugalen kultur maila gogorazi dute. Hots, besteak beste, Lisboako Telebistak debekatuta dauka, egun-argiz bederen, zezenketen irudiak eskaintzea.

Ez zaigu aise ahaztuko iaz, Donostiako Bulebarrean, abuztuaren 8an (Aste Nagusia hastera zihoalarik), 20 bat gaztek eskaini zuten ekitaldi ederra. Beren burua biluztuz eta larrua pintura gorritz margotuz, “Zezenketarik ez!” eta “*Bullfight abolition!*” pankartez salatu zuten zetorren zezen hilketa.

Oso interesgarria ere José Luis Orella Unzué historialari nafarrak (*Gara*, 2010eko martxoaren 18an; 11. orr.) jakinarazi ziguna: Eliza Katolikoak berak eskomikatu zituela (XVI. mendean) Fiesta Nacional delakoa defenditzen dutenak, eta zezenketetan parte hartzen dutenak oro. Egun, jakina, axola gutxi zaizkio euskal jendeari eskomikatu horiek. Baina Elizak berak jarrera hori du zezenketen kontra. Askok ez-ikusia egiten badute ere.

Amaitzeko Jesus Mosterin bilbotar filosofo eta animalien eskubideen defendatzaile sutuaren artikulua bikaina (ikus *Gara*, 2010eko maiatzaren 30ekoa; 26.orr.) “*Si uno no es ciego tiene que estar en contra de la tortura siempre*”. Eta zezenek korridetan jasaten dutena tortura publikotzat dauka. Jaume Balmes filosofo katalanak egokiro esan zuen: “*El arte es arte, y las corridas de toros no son arte: son barbarie*”. ■


1931n PNVren Sabin Etxeak

bere barne araudian hau agindu zuen:

zezenketetan parte hartuko zuten bazkideak oro, elkartetik botako zituztela. Iñaki Azkuna hiper-zezenketazaleak, zer dio honetaz?

ASTE HONETAKO

zozketak



Ondarre Landetxea

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Ondarre baserria
Segura GIPUZKOA

www.nekatur.net/ondarre

1



Tarpoon Urpekaritza

2 harpidedunentzat
"Discover Scuba" saiorako
bina sarrera

Kirol portua, A lokala - 7
Getxo BIZKAIA

www.divetarpooon.com

2



Bilboko Euskal Museoa

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

3




Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIZPUKOA

www.aquariumss.com

4



Gauaren sakonean Haruki Murakami

5 liburu opari

Donostia GIPUZKOA

www.erein.com

5

AZKEN IRABAZLEAK (2237. Argia)

ONDARRE

- Begoña Azpeitia Begiristain (Alegia)

EUSKAL MUSEOA

- Jose Mari Ilarduia Garitano (Bergara)
- Jaione Goienola Guarrotxena (Galdakao)
- Jose Aierbe Mendizabal (Beasain)
- Izaskun Elizburu Urkizu (Zarautz)

URKI TXAKOLINA

- Mikel Arrazola Aranzadi (Donostia)

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

- Juan Karlos Calleja Prada (Gasteiz)
- Balmasedako Justizia Jauregia (Balmaseda)
- Enrike Letona Biteri (Arrasate)
- Ander Epelde Ezenarro (Soraluze)

KIROLAZ BADAKIT


- Asier Lizarriturri Martiarena (Aretxabaleta)
- Amara Berri Aek Euskaltegia (Donostia)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea



TXITXARDIN BELTXA

Oria Etorbidea, 12
☎ 37 03 04